

ttipi-ttapa



EGUBERRIETAKO gehigarria / 29



LURPEAN ZEGOENA PLAZARATU NAHI DUTE AMAIURREN

Azken hamalau urteotan Amaiurko Gazteluan egin dituzten indusketa arkeologikoetan egindako aurkikuntzak ikusarazi eta duela 500 urte gertatu zenaren berri emateko bisitarien gunea eraiki nahi dute Amaiurren. Horretarako, diru-bilketa egiten ari dira / 12

SINADURAK



ZOKKETA / 40



Master Cup finaletik kanpo gelditu da lera Agirre baina Bizkaia Torneoa irabazita / 46



«Elhuyarren euskararen inguruko ekosistema oso bat ezagutu dut»

Duela zazpi urte Elhuyar Fundazioan lanean hasi zen Jon Abril Olaetxea beratarra. Gaur egun, bertako zuzendari nagusia da. / 10

EGUBERRI ON!

Hauxe da aurtengo azken aldizkaria. 2020ko urtariraren 9an hartuko duzue hurrengo TTPI-TTAPA!

Urte berri on!

Hilton hotel-kate handiarena izanen da Aroztegiko Jauregia / 51



GURE OPARIRIK ONENA: ZURE ENTZUMENA OSASUNTSU IZATEA

Data esanguratsuak datoz, eta zurekin akordatu gara. Eguberri zoriontsua eta osasunez eta pozez beteriko urte berria opa dizugu. 2020an ere zure zaintzaz arduratuko gara. Horregatik, urtea amaitzeko hainbat opari egin nahi dizkizugu: DOAKO entzumen-azterketa oso-osoa eta audifono ikusezinen proba DOAN.

Eguberri on!

Abenduan eta urtarrilean zehar DOAKO AZTERKETA OSO-OSOA egin ahal izateko, aurrez zita eskatu beharko duzu **943 63 33 05** telefono-zenbakira deituta (astelehenetik ostiralera 09:00 – 13:00 eta 15:30 – 19:30 ordutegian).

Entzumenaren balorazio osoa eta **DOAKO A**

Bideotaskopia eta inpedantziometria bidez

☎ **943 633 305**

📍 Colon Pasealekua, 27, Irun
(Irungo turismo-bulegoaren ondoan)



Entzumenaren balorazio osoa egi-teaz gain, AUDIFONOEN PROBA egitea oparitutako dizugu Auditek-en DOAN.

Audifono ikusezinen proba **DOAN**



Eguberrietako haur parkea

Abenduak 26 - urtarrilak 4

Abenduak 31 eta urtarrilak 1 itxita

15:00 - 20:00

FICOBA. Irun

SALMENTA ONLINE!
Sarrera mugatuak



pin.ficoba.org





NIRE TXANDA

JOSEBIÑE AGIRRE SOTO

Maputxeak eta euskaldunak

Abenduaren 5az geroztik, Paris (eta Frantzia) greba orokorrak blokeatua du. Macronen gobernuak aplikatu nahi duen pentsioen erreformaren kontra antolatu dira metroko, treneko, funtzio publikoko eta pribatuko langileak, jaka horiak eta ikasleak. Erreforma lotsagabekeria hutsa da, egunero esplotatuago eta nekatuago etxera itzultzen diren langile guzietan zuzendu iraina. Eta niri, Espainiar Gobernu zuzentzeko osatu koalizio «progresista» ekarri dit burura. Kataluniako mugimendu independentistaren aurka eraman politika errepresibo eta nazionalista, eskuinaren igoeraren beldurrean oinarritutako kanpaina eta «ongizate progresistaren» izenean, aterabidetzat motxila austriarra eta Calviño aurkezten dituen gobernu proiektu bera. Bolibia, Hong Kong, Libano, Iran, Irak oroitazten dizkit abenduaren 5ak. Eta Txile. Eta guk Txilen bezala egin beharko dugulakoan nago, maputxeak gobernuaren kontrako eta etorkizun hobearen aldeko borrokaren sinbolo direlako: ez al da ba hori gure rola?

«TXILEN BEZALA
EGIN BEHARKO
DUGULAKOAN
NAGO»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Ur ganean txipi-txapa bonboia

Bizitza bonboi-kaxa bezalakoa dela zioen Forrest Gump-ek. Inoiz ez dakizu zein egokituko zaizun. Enrique Villareal Drogas-ek, berriz, bizitza ur-ganean txipi-txapa saltoka dabilen harri xabala bezalakoa dela adierazi du, azken saltoan ibai hondora murgildu eta bertan dauden bertze harriekin bat egin arte. Urte berri on eta bizi bizitza bonboiekin saltoka!



ATZERA BEGIRA

Esther Iriarte Narbarteko kirolaria

«Txinga eramaile on batek eskuetan indarra, burugorria eta kirola gustuko izan behar du». Euskal Herriko Txinga Txapelketa bigarrenez irabazi ondotik, halaxe mintzatu zen Esther Iriarte narbartearra duela hamar urte TTPI-TTAPAN. Txapela jantzita «arrunt kontent» gelditu zen: «kirol gogorra da eta sufritzen jakin behar da. Baina zer lortu nahi duzun argi duzunean, eta lortzen ari zarela ikustean sentitzen den pozak ez du parekorik». Txingekin ez ezik, «bertze edozein kirol gustuko» izateaz gain, ongi moldatzen zela ere erakutsia zuen: 16-17 urterekin palan Nafarroako txapela jantzi zuen. Guztietan maiteena, halere, sokatira zuela aitortu zuen: «taldeko lan bat da eta Amaiaruko Sokatira Taldean hagitz giro ona dugu».



Argitaratzailea
Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eu



Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea
Nerea Bazterrika
Eneritz Iraola
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Usua Vicente
Berriemakileak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,

Joseba Urrotz, Irune Elizagoien,
Maider Petrirena, Oihana
Kalparsoro, Fermin Etxekolonea,
Pablo Irastortza, Mattin Larralde,
Juan Mari Barriola, Iñigo Imaz,
Marga Erdozain, Maitane
Maritorea, Aranxa Iturralde,
Aranxa Gamio, Jaione Ariztegi,
Jaione Zabalo, Nerea Mortalena,
Virginia Oteiza, Pierre Bastres,
Ainhua Astiz, Ganex E., Xabier
Maritorea, Maialen Iantzi, Jaione
Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea
Pello Apeztebea
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia

Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko udalak,
Malerrekako Zerbitzuen Mankom.,
Zugarramurdioko Akelarre elkarte

2019ko harpidetza sariak
Baztan, Urdazubi 38€
eta Malerreka 26€
Leitza 26€
Hego Euskal Herria 44€
Ipar Euskal Herria, Europa 83€
Amerika eta Australia 130€



KOLABORAZIOAK

MIKEL RODRIGUEZ LANDA

Vasconavarro

Gaztelaniaz, gero eta guttiago erabiltzen den terminoa da 'vasconavarro' —edo 'vasco-navarro'—. Erabiltzen denean, normalki nafar euskaldunak izendatzeko erabili ohi da, eta espainoliek erabili ohi dute; alegia, nahita edo nahigabe, guttiengo etniko izaera ematen zaio Nafarroa Garaiko euskaldunari, eta nafar espainolari, berriz, nafar normalaren kategoria. Hortaz, euskaldunak ezinen lirakeke espainolak bezain nafarrak izan. Kuriosoa da, 'vasconavarro'-k badu-eta bertze erranahi bat ere: Euskal Herriko zazpi probintziak edo Hego Euskal Herriko laurak izendatzea. Gaur egun, espainolista zein abertzale, guziek dute baztertua. Espainoliek, ez dutelako batasunik ikusi nahi, euskaldunen eta abertzaleen gainean duten dominazioa separazioan oinarritzen baita —'Pais Vasco y Navarra', ongi separatuta—. Abertzaleek, berriz, hain zuzen horregatik, 'vasconavarro' erratea separaziotzat ikusten baitute; alegia, nafarrak ez lirakekeela 'vascoa'-k, eta Nafarroa Garaia ez litzatekeela Euskal Herria. Paradoxa handia da hori, 'vasconavarro' gehien erabiltzen zen aroan inork ez baitzuen zalantzan paratzen Nafarroa Garaia Euskal Herriaren parte zela, ezta gaur egungo eskuin espainolista estremista horren aitzindari zirenek ere. Batasun bat eta elkar hartuta zeuden bi identitate izendatzen zituen. Makina bat izendapen eta elkarte

«**SESIOAK GAINDITZEKO AHALEGIN BAT VASCO-NAVARRRO BERRESKURATZEA IZAN DAITEKE»**

proposamenari 'Estatuto Vasco-Navarro' izena eman zioten, eta euskaraz 'Euskalerriko sortaraua' erabili zen. Gaur egun, Hego Euskal Herriko lau probintziak biltzen dituen arkitektoen elkargoak 'Colegio Oficial de Arquitectos Vasco Navarro' izena du. Eta euskaraz 'Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala' da. Jose Mari Esparza idazle eta historialari tafallarrak bere artikuluetan maiz erabili ohi du 'vasconavarro' Euskal Herria izendatzeko, eta Nafarroa Garaian intelektual gutti egonen dira probintzia osoa Cortesetik hasi eta Beraraino hain ongi ezagutzen dutenak. Izenak ez du izana egiten, eta funtsa eskola baino inportanteagoa da; Nafarroa Garaian, ordea, izenak eta eskolak aipatu orduko hasten dira sesioak, eta izanari eta funtsari buruz eztabaidatzea ia ezinezko egiten dute. Oraindik ezinezkoago probintziako espainolak Euskal Herriaren batasun baten kontzeptua onartzera erakartzea. Hesi hori gainditzeko ahalegin xume bat izan liteke 'vasconavarro' terminoa berreskuratzea gaztelaniaz aritzean; 'vasco' sentitzen ez diren nafarrak berdintasunean onartzen ditu, Euskal Herriko probintzien batasuna izendatzen du, eta Nafarroa Garaiko euskaldunak guttiengo etniko gisa ez izendatzeko erabilgarria izan liteke. Nafarroa Garaian espainolistak eroso daude 'statu quo'-arekin. Abertzaleek dute mugitzeko, berrasmatzeko eta esperimentatzeko beharra, duela 40 urte eskas gorpuztu zen separazio hori gainditu nahi badute.



AITZIBER ALMANDOZ LARRALDE

Aisa

Aurtengo azaroko euriak uhandituak utzi dizkigu bazterrak. Erortzeak nonahi. Natura bera orekatzen da, guk aunitzik entenditu ez arren. Oreka dena bere onera ekartzen digu, muturretik muturrera dabilen bitartean. Gizakiok ere oreka bila ote gabiltza? Muturretik muturrera, zenbaitzuetan muturka ere.

Azkenaldian, harritia nago dabilkigun ibilerarekin. Eskubide eta betebeharrak gero eta urrutiago ditugu. Hegalak hartu ditugu, mugarik gabe utzi gaituztelako. Ardurarik ez dugu nahi, ondokoaz gaizki erranez, gure ongizatea bertzei ez betetzea leporatzeko abilezia latza gailendu zaigulako. Esne gainetan hezi gaituztelako akaso? Edo auzokoaren lanak gure etxeokak baino errazago zaizkigulako. Edozein gisara, oreka bila gabiltza.

Gizartea eraldatzen ari da, ari gara. Sekulako martxan, sentitzeko astirik gabe buruak agintzen digu, bihotzik gabeko gorputz hotzak bagina bezala. Beharbada, batzuentzat agudoegi doa afera. Eraldaketa horretan ustezko eboluzioan inboluzioan ez ote gara?

Gauzak plazeretik egiteari utzi diogu, ingurutik jasoko dugun sariaren men. Orekatik urruti, erraz edo zail suertatzen da dena, aspaldi ez dut aisa egiten dugunik sumatzen.

«**SENTITZEKO ASTIRIK GABE BURUAK AGINTZEN DIGU»**

Gustura aski aritzeak zentzua galdu du, erraza erakargarriago baitzaigu, akaso eboluzio honek plazeretik aritzeko ez gauza bilakatu nahi gaituelako? Marija Gimbutasek jainkosen lengoia liburuan jaso bezala, «ernatzeko premia dauka gizakiak eta eraldatze-koa. Inoiz baino premia handiagoa dugu gure emetik ernatzeko, oreka, armonia eta ama lurraren ongizatearen bila, naturak emaniko sortze gaitasunekin bat. Oraindik, ordea, inbasio maskulinoaren bulkadapean gara, gure egiazko herentziatik urruti».

Auzoko behia erkin dago, hark bai jakin eztula erraza edo zail izan behar, bere senari segituz aisa umatuko baita. Gu ere aziendaxeago bagina akaso zentzua emanen genieke galtzen ari garen hitzei, akaso entenditzeko gauza ginateteke azaroan bota dituen parrastadak.

11 GALDERA LABUR

MIREN TELLETXEA BERATARRA

«Grabaketetan denborak presio handia eragiten du»

Aurkeztu zure burua.

22 urte dituen beratarra. Ikus-entzunezkoak ikasi ditut eta orain publizitatea ikasten ari naiz.

Zein dira zure zaletasunak?

Zinema, irakurtzea eta musika aditza bereziki. Egunero koan hirurak gozaten ditut.

Nondik datorkizu zinemarekiko zaletasuna?

Txiki-txikitatik gustatu izan zait istorioak aditza eta kontatzea. Pixkanaka bideoklipak eta bideoak nola egiten diren pentsatzen hasi nintzen eta horretan murgildu nahi nuela erabaki nuen.

Praktikak eta ikasketak uzartzeko sekreturik baduzu?

Antolatzen eta denbora ongi aprobetxatzen saiatzen naiz.

Lanak gain ez hartzeko atsedean hartzeko tarteak ere garrantzitsuak dira.

Film laburretan ibili zara...

Hasiberria naiz, bizpahirutan parte hartu dut. Azkena Sergio Barrejonen *Los Honores* izan da eta heldu den urtean ikusgai izanen da.

Zertan aritu zara?

Script lana egin dut. Filmak ez dira ordena kronologikoan grabatzen eta hori kudeatzeko eta produkzio-beharren araberrako grabaketak egiteko lan hori garrantzitsua da.

Zer ekarpen egin dizu film laburretan parte hartzeak?

Anitz ikasi dut. Orain dela bi urte arte ez nekien grabaketak nola egiten ziren... Graduan ez dute halakorik erakusten.



Ikusi eta ikasteko aukera izugarria izan dut.

Teoriatik praktikara... zer izan da zailena?

Denbora ongi kudeatzea. Grabaketetan eszena batzuk grabatzeko denbora mugatua da eta ez betetzeak galera ekonomiko handiak eragin ditzake. Akats txikiek ondorio larriak izateak presio handia eragiten du.

Aitzinera begira zein da zure asmoa?

Momentuz, publizitate ikasketak bukatzea. Gero, lanak erakutsiko du bidea...

Kamera gibeletik aitzinera pasatuko al zara noizbait?

Gibelean hobe, hagitza lotsatia izateaz gain, aktore bezala kaskar-kaskarra naiz.

Amets bat?

Milaka amets ditut. Horietako bat nik kontatu nahi dudana istorio bat kontatzea, hori pantailaratzea eta ikusle bat hori gozaten ikustea.

1951tik
Casa Cambra
 lentzeria-etxea

**opari praktikoak!
 Zorionak!**

edredoi fundak • albornoak • edredoi nordikoak • ohe estalkiak • maindireak • mantelak • kuxinak • toailak
 Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634



IRAKURLEAK MINTZO

Suspentsoa EITBri

XANTI BEGIRISTAIN MADOTZ

Hainbeste hamarkada igaro ondotik, guztiz etsigarria da euskaldunontzat ikustea nola EITBn jarraitzen duten bultzatzen askoz ere gehiago Espainia-ko hizkuntza eta kultura, arlo guztietan.

ETB2 sortu zutenean, bere sortzailerek, Eusko Jaurlaritzakoek, argudiatu zuten, alegia, horrela egin zutela, erdaldunak erakartzeko euskarara eta euskal kulturara, eta ia lau hamarkada iragan direnean, segitzen dugu ikusten, lortu duten gauza ia-ia bakarra izan dela, askoz ere jende euskaldun gehiago eramatea erdal telebistara, hau da, ETB2ra ETB1era baino. Bide batez esanda, nik ETB2ri ezin diot deitu 'euskal telebista', gehien-gehiena espainieraz egiten duelako, euskaldunak Cervantesen hizkuntzan mintzatze-ara bultzatzen dituelako eta erreferentzia pilo ikaragarri bat Espainiatik hartzen duelako, Ipar Euskal Herriko biztanle gehienentzat guztiz arrotzak direnak.

Inor harritu liteke horretaz? Nik ezetz uste dut!; inola ere ez! Behin eta berriz ikusten dugunean hamaika aldiz gehiago inbertitzen dutela ETB2 eta ETB4n ETB1 eta ETB3n baino, frogatzen dugunean ETB1en ia ez dutela ematen fikziorik, lehiaketarik, filmik (errepikatu gabe), so egiten dugunean informatiboak motzagoak direla, ETB1en programazioaren hiru laurdenak aspaldiko programa errepikatuak direla eta abar, buru pixka bat duen ororentzat ez da batere harrigarria, ez.

Gero, EITBn, berriz ere, egiten dizkigute Euskaraldiaren eta Korrikaren aldeko beren antzerkitxoak, eta, ekitaldi horiekin arduradun nagusiak aseta

gelditzen omen dira. Nire ustez, EITBk bultzada txikiegia ematen dio gure hizkuntzari, euskarari, eta handiegia espainierari; frantsesari, ez dakit. Pentsatzen dut, honetaz guztiaz, askoz ere gehiago hausnartu behar luketela Eusko Jaurlaritzakoek, eta, ondorioz, aldaketa nabarmenak egin, onerako.

Noizko erizaintza gradua euskaraz?

JOSEBA OTANO VILLANUEVA

ADMINISTRAZIOAN EUSKARAZ TALDEAREN IZENEAN

Iruñeko Euskalgintza eta zenbait sindikatu iazko ikasturtean saiatu ziren erizaintzako graduari euskarazko lerroa gehitzen. Sinadura bilketa, bilerak NUPeko arduradunekin eta Nafarroako Gobernuako agintariekin, ikasleen mobilizazioak orain... Bitartean, NUPen Finantziario Plana onartu zuen Nafarroako Gobernuak 2018-2020ko eperako, NUPerako ikasketa berriak onartu zituen, eta ez zuen jarri euskararen inguruko baldintzarik. 2019-2020ko ikasturtea hasi da, erizaintza gaztelania hutsean eskaintzen da, eta euskaraz osorik egin daitekeen gradu bakarra Magisteritzakoa da (oso aspaldikoa). Ikasketen egitura, hizkuntzei dagokienez, frankismo garaian hezkuntzak orokorrean zuen bera da (gaztelania hutsean, ikasgai batzuen salbuespenarekin). Alferrik igaro dira hamar-kadak, D ereduaren garapen handiarekin. D eredu oraindik ez da iritsi Nafarroako Unibertsitate Publikora.

Aurreko lau Gobernuaren porrot garbia izan da erizaintza euskaraz ez jartzea. Orain aldatu da egoera politikoa. Ea hori bideratzen den! Inoiz ez da berandu, borondaterik baldin badago.



BOTA BERTSOA

IRATXE MUXIKA CARRION

BAZTAN-BIDASOKO XXXII.
BERTSOPAPER LEHIAKETAN
15-18 URTEKOETAN 1. SARIA

Sekretupean

Doinua: Beste bateko inularretan

*Haur bat nintzela hurbildu zinen
Ezezagun zen zulora
Erakutsiaz oraingo hontan
Zetorkidan lehen proba
Lehenengo tanta ikusi nuen
Ama etorri ondora
Lasai xuxurlatuaz datorren
Hilekoa izango da.*

*Nire itxura ta izaera
Aldatu dira ordutik
Ardo kopa hau hilabetero
Lagun bihurtu denetik
Bi aste ditun nahaste horrek
Badauka zerbait onetik
Aunitz ikasi dutela azkenik
Emakume izatetik.*

*17tan ama izatea
Nere azkenko planean
Nahia eran nola ibiltzen zaren
Nire errailen barnean
Bixitatze hurbiltzen zara
Gaizki datorkidanean
Eta barruko goxoan gorde
Gehien behar dudanean.*

*Zergatik gorde hilerokoa
Zergatik dena ezkuta?
Zergatik egon aho itxien
Esklabutzara lotuta?
Hitz egin zazu askatasunez
Eta tabuekin buka
Gizarte honek sekretupean
Gehiegi eduki du ta.*

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus



948 63 54 58



AMAIUR azken gaztelua

Babestu nahi duzu?

Izan kontu zuk emandako diruak gazteluan eta bisitarien gunean harri bat gehiago moldatzeko edo paratzeko balio duela.

% 80
Zerga-desgrabazioa

PARTIKULARRAK

% 30
Zerga-desgrabazioa

ENPRESAK

Gurekin bat egin! > EKARPEN ADIBIDEAK:

Partikularrak: 150€ arte: % 80ko zerga-desgrabazioa.
Adibideak: 120€-ko ekarpen batean, 24€ emanen dituzu urtean. 20€-ko ekarpen batean, 4€ emanen dituzu urtean.

Enpresak: 300€ arte: % 30eko zerga-desgrabazioa (metagarria enpresa bakoitzaren kargara).

Adibideak: 100€-ko ekarpen batean, % 20ko karga izanez gero, 50€ emango ditu enpresak urtean.

* Nafarroako Foru Ogasunean zergak ordaintzen dituen pertsona fisikoaren edo enpresaren mende.

1 Internetez

Sartu:

www.amaiur.eus/bisitari-zentrua/



eta egin zure ekarpena

2 Zuzenean bankoan

Diru-sarrera egiteko kontua:

ES66 3008 0043 1238 8532 1624

Eta bidaliezaguzu datuak:

Izen-abizenak, helbidea, telefonoa, NAN eta ekarpen kopurua.

20€ 50€ Beste bat

Ordainketa bakarra Urtero

Gure helbidera:

Gaztelu Elkarte

Karrika Nagusia z/g

Amaiur 31715 Nafarroa edo

info@amaiur.eus e-postara

Ikusi proiektua

www.amaiur.eus



Amaiurko historia gogoan bertze urrats bat

2006az geroztik Aranzadi Zientzia Elkartearen bitartez urtero Amaiurko Gazteluan egin diren indusketa arkeologikoetan egindako aurkikuntzak ikusarazi eta duela 500 urte gertatu zenaren berri emateko helburuekin bisitarien gunea eraiki nahi dute Amaiurren

G. PIKABEA AMAIUR

Leku berezia du Amaiurko Gazteluak Euskal Herriaren historian, eta 500 urte pasatuta ere baduzer kontatua. 2022ko uztailean, bortz mende beteko dira Gaztelak Amaiurko Gaztelua eraitsi zuenetik. 1512an Nafarroa konkistatu ondotik, erresuma berreskuratzeko azken saiakera izan zen, baina Gaztela nagusitu zen. 10.000 soldadu bidali zituen Amaiurko Gaztelua setiatzera, eta gogor borrokatu arren, Nafarroako Erresumaren aldeko 200 gudariak garaitu zituzten.

Hura gogoan, egiari atek zabaldu nahian segitzen dute Amaiurren. Hori izan zen 1922an Gaztelu mendian monolitoa eraiki zutenen asmoa eta 1931n lehertu ondotik, bide beretik goratu zuten 1982an. Tartean ibili zen Jexux Urrutia Jauregi (Amaiur): «1975ean auzolanean hasi eta 1977an akitu genuen Amaiurko Gaztelu Elkartea. Elkartzeko toki bat egiteaz gain, gazteluaren alde lan egiteko sortu genuen, batetik, 1931n dinamitatu zuten

monolitoa berriz goratzeko eta bertzetik, 1522an pasatu zena jendeari ezagutarazteko».

Auzolana izan zen monolitoa zutitzeko gakoa: «igandetan maldan beheiti joanak ziren marmol harriak biltzen hasi ginen eta batzuk berriak egin genituen». Kanpo laguntzaz ere behartu ziren: «1922an bezala, lau diputazioei eta bertze aunitzi babesa eskatu genien, eta gatazka batzuen ondoan lortu genuen. Jaurlaritzako lehendakaria zen Karlos Garaikoetxeak harrera ona egin

zigun eta Ajuria Enea bazkal-tzera ere gonbidatu gintuen». 1982ko urriaren 10ean inauguratu zuten monolitoa eta orduko «oroitzapen onak» ditu: «alde guztietatik jende aunitz etorri zen, zazpi herrialdeetako agintariak... Izugarria izan zen».

14 urte indusketa lanetan

2004an eman zuten bertze pauso erabakiorra. Juan Mari Aleman Irungarai (Amaiur, 1970) herriko alkate zela, «zerbait gelditzen ote zen jakin-minenez, laguntza eske hasi ginen».



«BAIEZTATU DA GAZTELUA INДАРREZ SUNTSITU ZUTELA»

JUAN MARI ALEMAN IRUNGARAI, AMAIUR



«GURE HISTORIA UKITZEKO TOKIA IZANEN DUGU»

JEXUX URRUTIA JAUREGI, AMAIUR

Arkeologia taldetara gutuna idatzi eta Aranzadi Zientzia Elkartetik erantzun zioten.

Bi urteren buruan, indusketekin hasi ziren. «Monolitoan argindarra paratzeko aitzakia-rekin, larrialdietako lagin arkeologikoa egin zen eta sorpresa handia hartu genuen, hamar zentimetro lurrakenduz, lehendabiziko aztarnak agertu zirelako: bi dorre zati, harrisi zati bat...». Abiapuntua baino ez zen izan, baina «induskatzen segitzeko indarra eman zigun», dio Alemanek.

Ordutik urtez urte lan eginez, monolitoaren tokian, gaztelu oso bat aurkitu dute; baita bizimodu baten erakusle diren 2.000 objektu baino gehiago ere. Alemanen hitzetan, «batzuk ikusgarriak dira, kanoi bolak eta Erdi Aroko ezpada, adibidez, eta bertze batzuk ez hain bertze, baina arras garrantzitsuak». Adibide gisa, «Europa osoko txanponak» aipatu ditu: «Gaztelua jatorrian Iruñea eta Baiona artean bidesariak jasotzeko zen». Bertze «ondorio garrantzitsuez» ere aritu da: «Gazteluaren planta geometriko zehatza ezagutu dugu eta kanoi bolak paretetan sarturik ikusiz baieztatu da Amaiurko Gaztelua indarkeriaz suntsitu zutela, 1512an Gaztelak Nafarroa konkistatu zuenean bezala».

Auzolanaren indarra

Joxe Urrutia Juanikotena (Amaiur, 1967) egungo alkatereandako, Gazteluan egin dena «oinarrian auzolana duen



AMAIUR
1522-2022

1922

Monolitoaren eraikuntza



1931

Monolitoaren lehertzea



1937

Amaiur gudarostea



lan profesionala izan da. Boluntarioei esker egin da, baina ikuskaritza zientifiko eta profesionala Aranzadik eman dio». Herritarrak, ordea, ez dira besoak gurutzatuta egon. 14 urtez abuztuko lehendabiziko bi asteetan hurbildu diren boluntarioak esku zabalik hartu dituzte: «Gazteluan induskatzea gure eskaera izanenez, garbi genuen gure eskuetan zegoen guztia eginen genuela hama-bortzaldi hori herrian pasatzeko». Eta horrela izan da: «Herriko Etxeko sabaian dugun 40 lagunendako aterpean egiten dute lo eta taldea herrira ailegatu aitzinetik beraiendako janari bilketa egiten dugu».

Naiara Arrizabalaga Bilbao (Ondarroa, Bizkaia, 1981) da indusketetan ibilitako bat. Gasteizen Historia ikasten ari zela ezagutu zuen Aranzadiko Juantxo Agirre Mauleon eta haren gonbita onartzuz, 2008ko abuztuan abiatu zen Amaiurrea. «Bederatzi urtez» ibili da Amaiurren, «engantxatuta» gelditu zelako 2010ean ezpata aurkitu zuten egunean: «ez nuen inoiz hitz bat aurkitu une hartan sentitutako emozioaren handitasuna jasatzeko». Orain, ordea, «ezpata *inkreibli*» izenarekin oroitzen dute, Ondarroako euskalkian; hori izan zelako «Uxue Barkos presidenteak, gazteluan, ezpata agertutakoan zer sentitu genuen galdetuta erantzun niona». Halere, ezpata berari eta Hodei lagunari agertu izana «aurreko urteetan zein Unai Iraolak goiz

hartan eginiko lanari esker» izan zela adierazi du.

«Lagunak, esfortzua, ikaske-ta, talde-lana, pazientzia, kultura, gure historia, praktika eta aurkikuntza». Hori guztialotzen du bizkaitarrak Amaiurko Gazteluarekin. «Ohorea» sentitzen du «gazteluaren historiaren jakitun hurbiletik» egin delako. Amaiur eta herritarrek ere hitz politikak ditu: «nire izate ederrenabizitzeko aukera eman didan txoko txiki ederrenetarikoa bat da eta herritarrek dena eman digute. Enrike Lekuonak esan bezala, 'gaztelu bateko harrien bila etorri ginen eta herri oso batekin topatu ginen'». Eta Aranzadiz miresmenez mintzo da: «batzuek ezkutatu edo isildu nahi izan dizkiguten historiaren pasarteak eta horiek ulertzeko behar genuen giltza ezagutzeko aukera eman digu».

Bisitarien gunea eta fundazioa
Bertzelako pausoak ere eman dituzte. 2013an monolitoaren



«GAZTELUAK BIZIRIK DIRAU 500 URTE BERANTAGO»

JOXE URRUTIA JUANIKOTENA, AMAIUR

inguruan pasarela eraiki zuten eta 2016an aurkikuntzekin Iruñean erakusketa ireki zuten.

Orain, erakusketa hartan bildutakoa etxera ekarri nahi dute eta horretarako bisitarien gunea eraikitzeari ekin diote, bertzeak bertze, «bisitariak informazio osoa eskura eta erakusketa modu iraunkorrean ikusgai izan dezan», dio Alemanek. Bi solairuko «zurezko eraikin modernoa eta jasangarria» elizaren gibeledko aldean zegoen lehenagoko behitegian kokatuko dute eta erakusketa gela, tailerren gela, Pello Esarte ikerlari baztandarraren izena hartuko duen Nafarroako historiari buruzko liburutegia, hitzaldien gela, harrera, ostalua eta jatetxea izanen ditu.

Bide horretan, «dirulaguntza partikular batekin, 2017an elkarteak behitegia erosi zuen eta aurten, Parlamentuak emandako 250.000 euroekin, behitegia bota eta lur eremu-tik pasatzen den tentsio han-



«HISTORIA HURBILETIK JAKITEA OHOREA DA»

NAIARA ARRIZABALAGA BILBAO, BIZKAIA

diko argindar sarea lurperatu dugu». Hurrengo fasean «eraikina goratu» nahi dutela azaldu digu Alemanek, baina hori lortzeko «finantziario bila» ari dira. «Hainbat eragilerekin harremanetan jarri gara eta mezenasgo kanpaina badugu».

Gaztelu Elkarteak 2016tik du Mecna zigilua, eta hala, elkar-teari lagunduz errenta aitortu-penean zerga-desgrabazioa izaten da. Hortik doa Alemanen mezua: «urte hondarrean dirua sobra baldin baduzue, Amaiurko Gazteluari ematen ahal diozue». Diru horrek gazteluan eta bisitarien gunean harri bat gehiago paratzeko balioko du.

Bertzetik, bisitarien gunea kudeatzeko Amaiur Fundazioa osatu nahi dute, Gaztelu Elkarteak, Baztango Udala, Nafarroako Gobernua, Aranzadi Zientzia Elkarteak eta gazteluaren lagunen ordezkaritzarekin.

Historia ezagutzeko urratsa

Pausoz pauso badoaz aitzinera, ilusioz eta gogotsu. Proiektuari esker, «gure historia ikusi eta ukitzen ahalko den toki prestatua» izanen dutela gorai-patu du Jexuxek, «haur eta helduek jakin dezaten Gaztelako errege katolikoak Nafarroako Erresuma nola inbaditu zuen, Gaztelako koroari erantsiz». Alkateak, berriz, argi du «herriaren balio historikoa handituko» dela: «monolitoa sasiz inguratua egotetik zerbait bizia izatera ailegatu da. 500 urte berantago gazteluak eta han gertatuak bizirik dirau».



1982

Monolitoaren berreraikuntza



2006

Indusketa arkeologikoen hasiera



2013

Gazteluaren musealizazioa

2017

Proiektu arkitektonikoaren idazketa

2020

Amaiur Fundazioaren osaketa

2022

Bisitarien guneari irekiera

«Zientzian bezala euskara bertze edozein arlotan gara daiteke»

JON ABRIL OLAETXEA ELHUYAR FUNDAZIOKO ZUZENDARI NAGUSI BERATARRA

1972an euskarazko zientziaren dibulgazioa egiteko sortu zen Elhuyar Fundazioa. Geroztik bertze lan-esparru gehiagotara zabaldu da. Hortaz aritu da Jon Abril Elhuyarreko zuzendari nagusia

G. PIKABEA BERA

Zaila da Jon Abril Olaetxearen (Bera, 1975) aurkezpen labur bat egitea, zaila bere ibilbidea lerro gutti batzuetan biltzea; kazetari, kolaboratzaile, kultur teknikari, politikari, antzerki taldeko eta bertso eskolako partaide, bertso txapelketetan epaile... bazter aunitzetan utzi du arrastoa. Etxean jaso zuen «euskararekiko atxikimendua eta euskal kulturarekiko kontzientzia» eta karrikan gazetarik herri mugimenduetan parte hartuz hasi zen gainerako bidea osatzen. Dioenez, «horrek guztiak niregan sortu zituen nolabaiteko emozioek ekarri naute gaur egun nagoen tokira». Duela zazpi urte Elhuyar Fundazioan hasi zen lanean, eta irailaren 1az geroztik, bertako zuzendari nagusia da. «Erronka eta aukera» gisa hartu omen du ardura: «erronka maila pertsonalean eta profesionalean, eta aukera pertsona bezala hazteko eta erakundea nire ibilbidearekin lotu eta jakintza hori konpartitzeko». **Nola ailegatu zinen Elhuyarrera?** Politika utzi, eta langabezian egin nuen denboran ikasten ari nintzela, Elhuyarren euskara eta partaidetzaren inguruan teknikari lanak egiteko lan-poltsa ireki zuten. Eskaintza erakargarria iruditu zitzaizdan, lana behar nuelako, baina batez ere, nondik heldu nintzen ikusita, hagitz interesgarria izan zitekeelako. Herriko Etxean partaidetzaren arloa

dezente landu nuen eta euskararen gaia beti presente izan dut. Hautatuetakoa bat izan nintzen eta bi arlo horiek aldi berean lantzeko aukera eskaini dit Elhuyarrek. Gerora, beharbada, gehiago espezializatu naiz partaidetzaren eta berrikuntza sozialeko gaitan, eta horrek bertze bide bat ireki dit. Zazpi urte hauetan sekulako eskola izan da Elhuyar,

«ELHUYARREN EUSKARAREN EKOSISTEMA OSO BAT EZAGUTU DUT»

profesionalki hazteko aukera eman didana.

Hortaz, balorazioa ona da...

Bai, 85 laguneko lantalde bat gara, etengabe egitasmoak sortzen, asmatzen eta gizarteratzen ari dena, eta horrek aunitz erakartzen nau. Elhuyarren nagoenetik euskararen inguruko ekosistema oso bat ezagutu dut; alor aunitz orain arte ez nituen hurbiletik eza-

«85 LAGUNEKO LANTALDE BERRITZAILEA GARA»

Erronkei heltzeko gogotsu

Kazetaritza ikasi eta «hasierako urteetan kazetari gisa» aritu zen. Geroztik ez du baztertu: «komunikazioa nire lan gehienetan presente egon da». Baina bertze hainbat alderditan ere ibilia da, gustuko duelako batetik bertze-ira ibiltzea, «gauza diferentek probatzea eta erronkei heltzea». Hori bai, beti maite duenaren bueltan dabil, «euskara, kultura eta herrigintzari lotuta», bere ibilbidean «hagitz presente egon diren hiru ardatz» direlako. «Ttikitatik kulturak eta euskarak toki berezia izan dute nire bizitzan eta gazetarik hainbat saltsatan ibili naiz. Herrigintzan inplikatur egotea politika egiteko modu bat da eta akaso horregatik egin nuen politikara pausoa eta berriz herri mugimendura».



gutuak, baina euskararen garapenean beharrezkoak dira. **Zure lan esperientziarik interesgarri eta aberasgarriena dela erran izan duzu...**

Bai... Ikasten ari nintzela *Egun-karian* ibili nintzeneko oroitzen zaren zoragarriak ditut, eta Beran kultur teknikari hasi nintzenean, dena egiteko zegoenean, nire ikuspegia eta lan teknikoak garatzeko aukera izan nuen. Baina 20 urte baino gehiagoko ibilbide profesionalaren ondotik, erakunde moduan eta etorkizuna ikusteko duen moduatik interesgarriena dela erranen nuke. **Euskarazko zientziaren dibulgazioa egiteko sortu zen Elhuyar. Nola ikusten duzu euskarazko zientzia?**

1972an sortu zenetik jauzi izugarria egin da. Gaur egun, unibertsitateko ikasketa zientifiko gehienak osorik edo zati handi batean bederen euskaraz ikas daitezke. Zabalkunderako kanal aunitz ireki dira eta euskarazko zientziak bere lekua harrapatu du, batez ere Gipuzkoan eta Bizkaian. Zientzia gizarteratzea gobernuen agendatan dagoen gai bat da eta EAEn euskarak hor egon behar duela barneratua da. Hortaz, egiteko aunitz dago, baina egindakoa ere nabarmentzekoa da.

Adolfo Suarezek fisika kuantikoa euskaraz egitea ezinezkoa dela erran bazuen ere, posible da...

Jose Ramon Etxebarria fisikari euskaldunak aski ongi zuzendu zion, fisika kuantikoa euskaraz egiteko bi gauza jakin behar direla erranez; fisika kuantikoa eta euskara. Euskarak bizitzako edozein arlotan izan dezake garapena, eta azken hamarkadetan erakutsi da ez dela hezkuntzarako edo kulturarako bakarrik. Halere, lan munduan oraindik erronka hori sendotzekoa du. Kontua apustua egitea da.

Gaur egun zertan ari da Elhuyar? Nagusiki lau lan esparru ditu. Batetik, hizkuntza eta teknologien arloko lantalde zabala du. Gure produkturikezagu-

na hitz egitea da, eta berriki *itzultzailea.eus* bostz hizkuntzen arteko itzultzaile automatikoa argitaratuz bertze urrats bat egin dugu. Baina horrez gain, itzulpengintza espezializatua eta goi-mailakoa eskaintzen dugu eta teknologien arloan, adimen artifizialarekin eta ahotsarekin eta big data-rekin ari gara. Gero eta ohikoagoa da edozein gailu teknologikorekin solasean aritzea, baina gailu horiek oraindik ez dute euskara ulertzen. Laster errealitatea izanen da hori. Bigarren lan esparrua, zientziaren dibulgazioa da. Horren barne, batetik, hedabideen bitartez kultura zientifikoaren zabalkundearen ari gara *Elhuyar* aldizkariarekin, *Norteko Ferrrokarrila* irratsaioarekin edo *Teknopolis* telebistako saioarekin. Bertzetik, zientzia hezkuntza dugu. Gazteen artean zientzia zabaltzeko hainbat egitasmo ditugu: Zientzia Azoka, Bizilabe teknologia gunea... Hirugarren esparrua aholkularitza da. Euskararen garapena lantzen dugu, administrazioari eta enpresei parte-hartzea, berrikuntza soziala eta berdintasunaren inguruko aholkularitza zerbitzua eskainiz. Azkenik, laugarren arloa, ttikiena, komunikazio espezializatuarena da. Ikerketa guneei, unibertsitateei... prentsa-bulego lana egiten diegu. **Zuzendari nagusiaren kargua hartutakoan, erakunde berdeagoa egiteaz eta emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunaren urratsak egiteaz aritu zinen...** Berdintasunaren arloan lan aunitz egin da. Erakunde hagitx feminizatua gara, langileriaren %75a emakumezkoa da; garapen maila altuko berdintasun plana dugu, kontziliaziarako neurri aunitz, jazarpen sexistaren kontrako protokoloa... Gure proiektuetan genero ikuspegia txertatua dugu, baina gehiago egin daiteke eta zaintzaren aldetik arreta gehiago jartzea posible da. Larrialdi klimatikoaren inguruan, berriz, ekologismoaren ikuspegia en-



Jon Abril Olaetxea beratarra duela zazpi urte hasi zen Elhuyarren, eta irailaren 1az geroztik zuzendari nagusia da. UTZITAKOIA

presetan barneratu beharra dago. Gure aldetik, erakundea eta gure eraikina hobetu eta gure proiektuetan ikuspegi hori lantzeko asmoa dugu.

Nolako harremana duzue administrazioarekin?

Hainbat erakunderekin harreman sare estua dugu: euskalgintzarekin, ikerketa zentroekin, unibertsitateekin, zientzia erakundeekin, enpresekin... Baita administrazioarekin ere; batetik, proiektu berritzaile

«HAINBAT ERAKUNDEREKIN HARREMAN SARE ESTUA DUGU»

aunitzetan ezinbertzekoa delako laguntza publikoa; eta bertzetik, gure patronatuan erakunde publikoetako ordezkariak daudelako. Zeharka bada ere, gure izaeraren parte dira. Herri mugimenduaren eta administrazioaren arteko elkarlana ezinbertzekoa da.

Gizartean nola ikusia da Elhuyar?

Beharbada, hiztegia eta aldizkaria dira gure ikurrik ezagunenak, batez ere hiztegia, erabiltzaile pila baititu; urtean

«EGITEN DUGUNA EZ DA HAIN EZAGUNA GIZARTEAN»

56 milioi kontsulta. Gure proiektuen bidez, jende aunitzengana ailegatzeko gara, baina egiten duguna ez da hain ezaguna. Gehiago zabaldu behar genuke.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Horrelako erakunde batean beti dago zer egina, zer hobetua eta zer aldatua eta beti ur putzu berritan sartzen gara. Hasteko, 85 lagunentzako soldadak ordaintzeko proiektuak behar ditugu eta hori egunero landu beharreko kontua dugu. Etengabe aldatzen ari den gizartean bizi gara eta zer gertatzen den erne egon eta horren arabera egokitu eta lanean segitu behar dugu. Horrek ezinbertzean beti berrasmaten aritea eskatzen du.



Okindegi atarian, Iñigo Sarobe eta langileetako batzuk.

Estatuko okindegi onenen artean sartu dute Sarobe

Bartzelonako Panatics eta Madrilgo Pan de Calidad elkarteek emandako izendapena azaroaren 18an jaso zuten Valentzian

TTIPI-TTAPA

Bartzelonako Panatics eta Madrilgo Pan de Calidad elkarteek, orain dela sei urte, okintza arloko sariak sortu zituzten. Hasiera hartan, Bartzelona eta Madrilgo okindegi onenak saritu zituzten. 2017an, orde, txapelketa zabaldu egin zuten. Azaroaren

18an, Valentzian, sariketa horren hirugarren edizioa izan zuten. Guztira 950 okindegik eman zuten izena. Sarobe okindegiak estatuko 80 okindegi hobereenen artean sailkatzea lortu zuen. Areago, onenen artean sailkatu den Nafarroako bakarra izan zen. Iñigo Sarobe okina kontent

dago izendapenarekin: «lehenagoko moduan egindako ogi borobil bat aurkeztu genuen uztailan Logroñon Nafarroa-Errioxako lehiaketara. Erabat anonimoa zen eta beraiek, irizpide batzuren arabera, baloratu zuten: azala, mamia, kolorea, gustoa... Han bigarren izan ginen, Errioxako okindegi baten gilebetik, eta aipatu ziguten estatu osoan puntuzio handiena zuten 80 okindegiak zerrenda batean sartuko zituztela. Eta halaxe gertatu da». Izendapen honek «gauzak behar den bezala egiten ditugula» erakusten duela uste du Sarobek, «lan gehiago egiteko eta bide horretan ez okertzeko» indarra eman die.

Izan ere, herriko okinaren ustez, «ogi-mailan edozein lekutan frankiziak jartzen dira, ogi kongelatuak saltzen da, edozein irinekin eta prozesuarekin egindakoak... Jendeak badaki, baina azkenean errazenera joaten gara, nahiz eta onena ez izan. Aurrezten ahal diren zentimo horiek gero kalitatean nabari dira». 1952an Arantzako aitatzki okindegian hasi zenetik aldaketak izan badira ere, «oinarizko prozesua berdina da», dio.

Alzheimerraren kausak eta ondorioak hizpide

Arkupeak elkarteak antolatuta, *Alzheimerraren kausak eta ondorioak* solasaldia eskainiko du Nafarroan eritasun hori dutenen senideak biltzen dituen AFAN elkarteak abenduaren 18an, asteazkenean 17:00etan Beralandetan. Hitzaldia gaztelaniaz izanen da.

Musika Eskolako entzunaldiak eta Gabon kontzertua

Isidoro Fagoaga udal musika eskolako kurtsoa hilabete beranduago hasi denez, biolin eta piano entzunaldiak gibeleratu egin dituzte. Hor-taz, lehenbiziko entzunaldia trikitixa eta akordeoikoa izanen da, abenduaren 12an, ortzegunean. Abenduaren 16an biolin entzunaldia eskainiko dute eta abenduaren 17an piano entzunaldia. Entzunaldi guztiak Musika Eskolan 18:00etan izanen dira. Eguberrietako kontzertua abenduaren 18an eskainiko dute Berako elizan, 18:00etan.

JAIÑONE - GOXOTEGIA

Etxean egindako produktuak

948 630 786
Altzate, 21 • BERA

anterola
Tekniko instalatzailea

ITURGINTZA • GASA KALEFAKZIOA

Zerbitzu anitzak & Gremioen koordinazioa

629 449 602

Astelehenerdik ortziralerara:
07:15etik aitzinera

Larunbata eta igandea:
08:00etatik aitzinera

LABE ZAR

948 631 076 • BERA

PAGOLA
Harategia - Hestebeteak

EGUBERRI ON!

Altzate Plaza, 2 • Bera • T. 948 63 00 54
www.embutidospagola.es

Alberto RETEGI
abokatua

© 948 630 763 • Altzate, 17 • BERA

xuga

tel. 948 631 519 | www.xugabera.com | www.facebook.com/xugabera

Olentzero eta Mari Domingiren kalejira prestatzen hasiak

Abenduaren 24ko ekitaldiak prestatzeko entseguak izanen dituzte musikariek, guraso eta haurrek hilaren 11n eta 17an

TTIPI-TTAPA

Ohiturari eutsiz, abenduaren 24an egingen dute Olentzero eta Mari Domingiren kalejira herrikoia, 16:00etan Merkatu plazan hasi eta Herriko Etxeko plazan bukatuko dena. Ibilbideari dagokionez, Merkatu plazatik (Altzateko parkea) abiatu eta Alzateko plaza, Alzate karrika, Eztegarra karrika, Kanttonberri, San Jose zahar-etxea, Eztegarra, Iturlandeta karrika, Foruen plaza eta Gemikako arbolaren zehar bidean barna ailegatuko dira Herriko Etxeko plazara. Euria

eginen balu, Eztegarra pilotalekuan egingen da ekitaldia 17:00etan. Ilunabarrean, helduak kalejiran ibiliko dira kantari, Gure Txokoak antolatuta.

Egun handia prestatzeko, abenduaren 11n, asteazkenean 19:00etan Musika Eskolan egingen dute kalejiran parte hartuko duten musikarientzako entseguak. Abenduaren 17an, berriz, abestien entseguak egingen dute gurasoek, haurrek eta Musika Eskolako trikitilariak eta panderojoleak, asteartean, 17:15ean Kultur Etxean.



UTZITAKOIA

Enrique Irazoki omendu dute

84 urte dituen Enrique Irazoki beratarriari omenaldia eskaini zioten azaroaren 23an. Txirrindularitzan egindako lan handia eskertu nahi izan zioten, bai txirrindulari izan zen garaian, baita kirol zuzendari moduan edo CC Beratarra taldean egindako lana ere. Urtetan, La Miguel Indurain probaren bultzatzaile izan zen eta Miguel Indurain bera izan zen ekitaldian. Atarrabiako txirrindulari ohi handiarekin batera, Jon Bru eta Patxi Vila Berako txirrindulari ohiak, Irazokiren garaian txirrindulari zen Luis Otaño, Jaime Ugarte, Antxon Aiestaran eta Miguel Mari Lasa izan ziren. Enrique Irazokiri laguntzen emaztea eta alabak izan ziren. Txapela, oroigarria, lore-sortak eta Aureskua ere eskaini zioten Irazokiri, Lenkonea jatetxean egin zuten bazkari ederraren aitzinetik.

Xulufraia
emakume arropa
osagarriak
dekorazioa

Udazken-neguko arropa

Abenduak 21, 28 eta urtarrilak 4 eta 5
goiz eta arratsaldean IREKIA

Alzate 18, BERA. 948 631 266

amaleun
ARRAINDEGIA

948 630 981 • 620 828 757
Itzea, 6 • BERA • NAFARROA

AUZOA GO!

Etxez etxeko zerbitzua BERAn

Gabonetarako ospakizun berezia!

- Erreserbatu menu berezia eta baietz lagunak harrিতuta utzi!
- Errekiak, itsaskiak, iberikoak, kanapeak...
- Egun berezi hauetarako plater onenak proposatzen ditugu!
- Enpresako afariak, lagun bilerak, familiako otorduak...

ERRESERBATU ZURE OTORDU BEREZIA!

Menu berezia 34 €

1. Tomate konpota eta gazta kremako kopa.
2. Zamburinak plantxan.
3. Olagarroa galiziar erara.
4. Ganbak plantxan.
5. Kalabaza krema laranja erara.
6. Biledots errea, txerrikume errea edo erreboilo errea.

**Erreserbatu zure mahaia eta ospatu gurekin, edo bestela zure etxeraino eramango dizugu.*

***Plater guztiak banaka ere saltzen dira.*

Gabonetan itxita:

- Abenduak 26 eta 27 | Urtarrilak 1 eta 2.
- Abenduaren 24 eta 31, 21:00etatik aurrera.

INFORMAZIO GEHIAGO edo ESKAERAK EGITEKO: www.auzoago.com • T. 948 63 15 09



60 behi, batzuk bere aretzeekin, paratu zituzten plazan. Lehen aldiz, bederatzi artalde ere eraman zituzten. A. AROTZENA

Aspaldiko azienda kopururik handiena plazaratu da ferietan

Feriek 520 urte bete dituzten urtean, 60 behi, 146 zaltabere eta bederatzi artalde eraman zituzten plazara

AITOR AROTZENA

Seguruena lehiaketan izandako aldaketengatik, aspaldiko kopururik handiena, 250 azienda baino gehiago aurkeztu ziren plazara, Bortzirietako feria egunean parte hartzerako. Horietatik 146 zaltabereak ziren, 60 behi, batzuk bere aretzearekin eta zezenkoren bat eta, aurtengo berrikuntza nagusia, bederatzi artalde, batzuk bildots eta guzti. Azken urteetako joerari eutsiz, behi-azienda lehiaketan sari nagusiak Gillenbordara (suizak) eta Berako Begibeltzenekobordara (haragi-

takoak) joan ziren. Zaldi-azientetan banatuagoak izan ziren sariak.

Azienda lehiaketako sariak banatu baino lehen, herri kirol saioa izan zen. Aipatzekoa, aizkoran, Berako Oier Larretxea eta Endika Goiaren debuta. Ugaitz Mugertza eta Julen Alberdi Txikia IV. arekin bikotea eginez aritu ziren. Beraiekin batera, Maika Ariztegi eta Nerea Sorondo ere aritu ziren aizkoran, eta arpanan Xabier Ariztegi *Santxin* eta Patxi Larretxearen kontra. Azken bi hauek, altueran aizkoran ere erakustaldi polita eskaini zu-

ten. Harri jasotzen, Mikel Lopezegi *Urta* aritu zen. Sebastian Lizaso eta Julio Soto bertso-lariak kantari aritu ziren kioskotik, preso senide eta lagunek hauen eskubideen aldeko elkarretaratzea ixilean egiten zuten bitartean.

Arratsaldean, aulki-gurpildunean palaz jokatuako partidan, Joseba Lasa herritarrak eta Lizasok, irabazi egin zieten Navaridas eta Matarranzi. Esku pilotan, Ugaitz Elizalde iturrendarrak eta Iñigo Martinez beratarrak 22-17 irabazi zieten Jon Olaizola III.a lesakarrari eta Mikel Beroizi.

Ajoarriero lehiaketa

Feria bezperan, Beti Gaztek antolatutako ajoarriero lehiaketa egin zen. Hamabi bikote aurkeztu ziren. Horien artean, Argiñe Ordoki eta Paula Garcia nagusitu ziren. Bigarren saria Aitziber Maia eta Jaione Telletxearentzat izan zen eta hirugarrena, Boro Legasa eta Imanol Lopezentzat.

AZIENDA LEHIAKETA

BEHI AZIENDAK

SUIZAK

1. Fco.Javier ALZUGARAI (Les.) **190 €**
2. Fco.Javier ALZUGARAI (Les.) **160 €**
3. Jose Antonio IGOA (Bera) **100 €**

HARAGITAKOAK

1. Jose Antonio IGOA (Bera) **190 €**
2. Unai MENDIBERRI (Bera) **160 €**
3. Jon MUÑOA (Lesaka) **100 €**

ZALDI AZIENDAK

ZALDIAK

1. Fernando FAGOAGA (Igantzi) **125 €**
2. Maria Jesus MAIA (Lesaka) **95 €**
3. Aitor AROZENA (Arantza) **50 €**

LARRE BEHORRAK

1. Marisol OTXOTOKO (Lesaka) **100 €**
2. Patxi BALDA (Bera) **50 €**
3. Marisol OTXOTOKO (Lesaka) **30 €**

POTTOKAK

1. Jose Luis ORONOZ (Lesaka) **100 €**
2. M.Angel ETXEPARE (Lesaka) **50 €**
3. M.Angel ETXEPARE (Lesaka) **30 €**

MONTURAKOAK

1. Jon ITURBIDE (Lesaka) **100 €**
2. Jose Angel ZUBIRIA (Lesaka) **50 €**
3. Joseba IRIGOIEN (Lesaka) **30 €**

PONIAK

1. Jaime ETXEGARAI (Bera) **100 €**
2. Jose Luis ORONOZ (Lesaka) **50 €**
3. Sabino KORTA (Bera) **30 €**

ARDI AZIENDAK

ARTALDEAK

1. M.Angel ETXEGARAI (Bera) **100 €**
2. Marcos ETXABIDE (Lesaka) **95 €**
3. Fco.Javier ALZUGARAI (Les.) **50 €**

GILLENBORDA ETA BEGIBELTZENEN BORDAKO BEHIAK NAGUSI IZAN ZIREN

Hemen erabili
Denak Bat
kattagorria
LESKA
948 627 514
www.kattagorria.com

IRU-BIDE
OSTATU • JATETXEA
Arratzubi Kalea 3
31770 LESKA
T. 948 63 71 27

TXIRULA
OPARI TXARTELA
zure esku

· Eguberrietako Pazko lore aukera ezberdinak
· Etxea apaintzeko gaiak
· Arropa eta osagarriak

ETORRI ETA IKUSI!!
Albistur 39 LESKA · T. 948 627 542

MARITX

· INGENIARITZA ELEKTRIKOA
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK
· BOLETIN INDUSTRIA
· INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

T. (0034) **636 617 450**
Legia, 23 - BERA

'Oskara' dantza ikuskizunarekin hitzordu bikoitza

Ortziralean 19:30ean dokumentala eta larunbaten Kukai taldearen dantza-emanalda eskainiko dute 19:00etan

AITOR AROTZENA

2017an hiru Max Sari irabazi zituen Kukai dantza taldearen *Oskara* izanen da protagonista asteburu honetan Harriondoan Kultur Etxean. Abenduaren 13an, ortziralean 19:30ean dokumentala ikusgai izanen da (sarrera hiru euro ordaindu beharko da) eta larunbatean 19:00etan dantza-ikuskizuna eskainiko dute (sarrera: 12 euro).

Abenduko kultur agenda emankorreko hitzordu nagusia izanen da, baina ez bakarria. Mairu Antzerki Tailerrak an-

tolatutako *Keinu Leihoak* antzerki zikloko azken emanaldia **abenduaren 15ean** izanen da Arranon. Igandean, 17:30ean, *Uretako ipuinak* antzezlanak eskainiko du Eneritz Artetxek, 4 eta 9 urte arteko neska-mutikoei zuzendua.

Abenduaren 18an, asteazkenean, 18:00etan, Eguberrietako kontzertua eskainiko dute Musika Eskolako ikasleek Harriondoan.

Abenduaren 19an, ortzeguan, 18:00etan, ipuin-lehiaketako sariak banatuko ditu Beti Gaztek, egoitzan.



Kukai dantza taldearen ikuskizunak hiru Max Sari irabazi zituen 2017an.

Abenduaren 22an, igandean, Argitsu Elkartek artisau azoka antolatu du egun osorako Plaza Zaharrean.

Abenduaren 24an, nola ez, Olentzero eta Jaiotzen lehiaketa egingen dute eguerdi partean plazan. Arratsaldean, Olentzero irabazlea musika bandarekin batera ibiliko da karriz karriz.

Hilaren 28an, larunbatean 18:00etan, Hodei magoak *Ezinezkoaren logika* ikuskizuna

eskainiko du Harriondoan. Sarrera hiru euro ordaindu beharko da.

Hilaren 29an, Tantirumairu ikastolako eta Irain eskolako guraso elkarteek antolatutako euskarazko zinema-emanaldiak izanen dituzte Harriondoan.

Urtezahar-egunean Diosesalbe kalejiran aterako dira abesbatzako kideak eta beraiekin kantari ibili nahi duten guztiak.

OTXANGO BAHÍA



Otsango ind.
LESAKA

- Eguneko menua, plater konbinatuak, ogitartekoak.
- Eramateko janaria eta etxez etxeko zerbitzua.
- Bilera, ekitaldi edo ospakizun partikularretarako jangela alokatzen dugu.

Ordutegia: Irekia astelehenetik larunbatera 07:15-16:00h.
Afariak enkarguz bakarrik.
Igandetan itxia (bazkariak enkarguz bakarrik).



948 638 126
627 877 281

Gabonetako
deskontu bereziak
-%20
eguzki betaurrekoetan
abenduaren 9tik urtarrilaren 5era

Ostargi optika



Bea Artola Ferran Optiko-optometrístia kol.zk: 9812
Bidasoa 8 BERA Tfno: 948 630 753

Carlos Nuñez eta bere taldearen kontzerturako prest

Abenduaren 15ean, igandea, 20:00etan hasiko da kontzertua elizan eta herriko musikariak ere ariko dira

IRUNE ELIZAGOIEN

Hirugarren urtez izanen da Carlos Nuñezen kontzertuaz gozatzeko aukera Etxalarren. Itsaso Elizagoien herriko trikitilariaren bizitokian kontzertu eta giro berezia sortzen dela diote taldekideek. Aurten ere herriko hainbat musikari eta gonbidatuk parte hartuko dute kontzertuan. Oraindik sarrera batzuk gelditzen dira Elutsan eta Herriko Ostatuan edo interneten www.ataquilla.com web gunean.

Eguberriak ate joka

Eguberri usaina sumatzen kontzertu honekin hasiko bagara ere, abenduaren 24an, 17:00etan, abiatuko dira Eguberrietako ekitaldiak. Haur, guraso eta musikariak elkartuta, herriari itzulia emanen diote, Olentzeroen irudiekin. Ondotik, meza izanen da, 18:30ean. Txokolate berorik ez da faltako egun honetan; herriari itzulia emandakoan, eta meza ondotik ere meriendatzeko aukera izanen baita frontoian. Herriko musikariek Eguberrietako emanaldia es-



Hirugarren urtez joko du Nuñezek.

kainiko dute frontoian, 19:30ean. Hor Olentzero eta Mari Domingirekin egoteko aukera ere izanen da.

Larraburua elkarteak antolatuta, urtero bezala txokolatea eskainiko dute urtarrilaren 6an, 17:30ean.

Haur Txokoa

Abenduaren 23, 24, 26, 27 eta 30ean eta urtarrilaren 2, 3 eta 7an, 10:00etatik 13:00etara haur txokoa eskainiko dute Etxalarren, 3 eta 12 urte arteko haurrei zuzendua. Taldea osatzeko gutienez hamar lagunek eman behar dute izena 948 63 50 36 telefonoan edo info@bortziriakgz.eus helbidera idatzita abenduaren 19a baino lehen (20 euro).



MIREN OLAETXEA

Emakumeenganako indarkeriaren kontra

Etxalarren ere azaroaren 25ean Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunarekin bat egin zuten herritarrek plazan bi elkarretaratze eginez. Aitzinera begira, urtarrilaren 24an 18:30ean, feminismoarekin lotutako emanaldia izanen da Kultur Etxean.

Metrobaserria proiektuko plakak biltzeko deia

Baserritarrei oroitarazi nahi zaie, oraindik bildu ez badute, Herriko Etxetik pasa behar dutela norbere baserriko plaka biltzera. Garrantziak da lehenbailehen plaka hartu eta baserrietan modu ikusgarrian paratzea, larrialdietako zerbitzuen lana errazteko.

Altxatako kuota urtea bukatu baino lehen kobratuko da

Altxata elkarteko juntak jakinarazi du urte akabaila baino lehen, bazkideei urteko kuota kobratuko diela lehendik emana duten bankuko kontutik. Urteko kuota 15 eurokoa da. Herrian egiten diren hainbat ekitaldi antolattzen ditu Altxatak eta orain Herri Aitada.

E D A R I A K

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.eus

USOA
Nekazari kooperatiba

ORAIN GASOLINA ERE

T. 948 635 214 ETXALAR

arropa-denda | etxeko osagarriak | lentzeria

Altzate, 30 31780 BERA T. 948 630 136



BIZIKLETEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
GIMNASTIKA ETA
FITNESS MAKINAK
bizikleta estatikoak, lasterketako zintak...

2. eskuko bizikletak

Kanttonberri, 1 | BERA | T. 948 631 218 | joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com



ETORRI ETA SOLASTUKO GARA
*Eguberrietako
oparirik ederrena*

Biltoki elkarteko neguko ekitaldiak hasiak dira

Ilbeltzaren 25ean hasiko den adimen emozinalaren ikastarorako bertze lagun batek eman dezake izena

TTIPI-TTAPA

Azaroaren 29an eman zitzaion hasiera Biltoki elkarteko mahai jokoen neguko txapelketari. Ortziraletan 21:30ean ariko dira musean, eta larunbatetan 17:00etan partxisean.

Jardunaldi bakoitzak berez sariak izanen ditu, eta lau lehenbizikoek jardunaldi bakoitzean lortutako puntuak hartuko dira kontuan otsailaren 8an jokatu diren finalerako sailkatuak erabakitzeko.

Bertzalde, ilbeltzaren 25ean hasiko den adimen emozio-

nalaren ikastarorako hemeziretzi lagunek eman dute izena. Bertze lagun batentzat lekua dagoenez, ikastaroa hasi bitarteko egunera arte luzatu dute hogeit laguneko kopurua osatzeko epea.

Mendiko edo bizikletako fitxak egiteko azken egunak

Mendian edo bizikletan ibiltzeko heldu den urterako fitxa egin nahi dutenek, berriz, abenduaren 15era bitarteko epea izanen dute. Elkarteko tabloian dituzte izena emateko zerrendak eta baldintzak.



OSKAR TXOPERENA

Giltzarri abesbatzaren kontzertua

Giltzarri Abesbatzak abenduaren 14an, larunbatean 20:30ean, eskainiko du elizan Eguberrietako kontzertua, bigarren urtez segidan. Iaz bezalaxe, dozena bat kanta izanen du egitarauan Isabel Lacar lesakarrak zuzendutako taldeak, bi zatitan banatuak: kanta polifonikoak abestuko dituzte lehenbiziko eta herrikoiak kontzertuaren bigarren zatian. Imanol Elizasu piano-jotzaile ezagunak lagundurik kantatuko dute ekitaldi gehiena eta kanta batean Ioritz Mitxelorena baztandar saxofoi-jotzailea izanen da protagonista. Hogeita hamartik goiti izanen dira bertara bilduko diren kantariak, bortziritarrak gehienak, baina baita baztandar eta iparraldetar zenbait ere. Ea iazko arrakasta lortzeko modurik duen 1996. urtean sortutako abesbatzak.

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Eguberri eta urte berri on!!

Zalain Auzoa z/g 31780 Bera
t. 948 631 106 w. www.zalain.info

EDERKI tailerra

CITROËN
ZERBITZU OFIZIALA

'Latigillo' hidraulikoen moldaketa
PEUGEOT MARKAN ESPEZIALISTAK

24 ORDUZ GRUA ZERBITZUA

Leitzako bidea · DONEZTEBE · 948 450 525

Jaurena

Zure oparia hemen!!!

T. denda 948 631 217 · T. 630 136 863 · Julio Caro Baroja, 6-BERA · jaurenabera@gmail.com

Advertisement for Jaurena featuring various household appliances and electronics including a shaver, headphones, a tablet, a hair dryer, a coffee machine, a washing machine, a smartphone, a vacuum cleaner, a blender, a toaster, a hair straightener, and a facial treatment device.



Baratzondoko partxis eta mus txapelketako saridunak beraien sariekin. OSKAR TXOPERENA

Mahai-jokoen sariak banatu dituzte Baratzondon

Partxis eta mus txapelketakoak eman dituzte hilaren 3an

TTIPI-TTAPA

San Frantzisko Eeguneko besata aprobetxatuz bazkari eder

baten ondotikegin zuten mahai jokoen txapelketako sari banaketa Baratzondon.

Partxisean Kontxi Vicente eta Tere Txoperena izan dira aurtengo txapelkunak Salba Etxarte eta Alicia Txoperenaren aitzinetik. Musean, berriz, Joxe Mari Urbistondok eta Gerardo Seinek eraman dute lehenbiziko saria, Joxe Jabier Urtxegi eta Joxe Mari Almandoz izan direlarik txapelkuntza. Uzdaipazpikoak, txuletak, botila ardoak eta bertze opari ederrak izan dira saritu guzientzat.

Itziar Sistiaga idazle irundarrak piztu du Irrisarriko txondorra aurten

TTIPI-TTAPA IGANTZI

Seigarren aldiz txondorra piztu dute IrriSarli Landen. Urtero bezala pertsona bat omen du dute eta aurten Itziar Sistiaga idazle irundarra izan da. Bera arduratu zen ikaztegiko onborean bere arrasto bat uzteaz, aitzineko bortz urteetan Iñaki Perurenak, Xabier Euzkitzek, Xabier Agotek, Toti Martínez de Lezeak eta Aizpea Goenagak egin duten bezala. Irisarritarren eguna ere ospatu zuten egun berean. Abenduaren 30era bitartean ikaztegia bisitatu ahal izanen da, bertan dagoen museoarekin batera. Abenduaren 21ean Olentzero IrriSarli Landera etorriko da, 15:00etan Ikaztegia eta 17:00etan Jolastokira.

ALTZARIAK ETA DEKORAZIOA

AMETS

Zure beharretara egokitzen gara

			
Egongelak	Logelak	Sukaldeak	Bainuak
			
Gazteentzako logelak	Sofak	Armairuak	Koltxoak

948 630 537 mueblesamets.com

Antzerkiak eta Eguberriak tarteko agenda betea

Abenduaren 19an eskolako lagunek antzerkiak egingen dituzte eta 24an Olentzero eta Mari Domingi herrian izanen dira

NEREA ALZURI

Bateko eta bertzeko ekitaldiekin, ez da aspertzeko tarterik izanen hilabete honetan. Has-teko, antzerkien txanda izanen da. Abenduaren 18an, eskolako ikasleek antzezlanak taularatuko dituzte eta Etxalarko eta Igantziko eskolako lagunak etorriko dira ikustera. Biharamunean, hilak 19, herritarren aitzinean ariko dira. Hiru antzerki egingen dituzte: Haur Hezkuntzakoek *Txinurriak eta kilkerak* aurkeztuko dute, lehenbiziko ziklokoek *Piratak haserre!* eta 2. eta 3. ziklokoek

Afrikara goaz! Egun berean egingen dute zareen zozketa eta eta abenduaren 20an Mari Domingik urteroko bisita egingen du eskolara.

Abenduaren 24an, herritarrek Eguberrietako kantak kantatuz ibiliko dira eta ondotik, Olentzero eta Mari Domingiren bisita izanen dute. Abenduaren 27an, Burlada jatetxean afaria antolatu dute Beñat eta Fer-nandorekin eta urtea borobiltzeko, hilaren 31n, elkartasun kalejira eta bertako produktuen eta bildots baten zozketa egingen dute, 20:00etan.



Paris 365 fundazioko jantoki atarian kamioia deskargatu ondotik. MARTIN LEGARRA

3.500 kilo elikagai bildu dituzte Paris 365 fundazioarentzat

NEREA ALZURI

Urtero bezala, joan den azaroaren 22an, Arantza eta Igantz-zin, Paris 365 fundazioarentzat janari bilketa egin zuten. Bi herrietan guztira 3.500 kilo elikagai bildu zituzten eta Paris 365 taldeak eskerrak eman nahi dizkie laguntza eman duten herritarrei.


Bi herrietan boluntarioei esker jatekoa bildu ondotik, fundazioak Iruñean duen egoitzara eraman zituzten, zehazki, fundazioko jantoki atarian hustu zuten janariz hornitutako kamioia. Boluntario talde bat aritu zen garraio lane-tan, eta horien artean, herritar-rak.

Genero indarkeriari ezezeko argia

Haur, gazte eta heldu bildu ziren azaroaren 25ean plazan Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Eguna gogoan, Udalak deituta egindako elkarretaratzean. Ezetza beti ez dela nabarmendu zuten.



ARANTZAKO HERRI ESKOLA


T. 948 634 179 | ARANTZA
www.arantza.net

aterpe
albergea jatetxea ostatua


Bertako produktuak
ERROTAZAR HARATEGIA
Eguberri On!
Eztegara, 3 - BERA | T. 948 63 04 39 | errotazar.harategia@gmail.com


TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Andueza e Iriarte, SL
Zalain Industrialdea, 42B-4.pab BERA
T. 948 631 452 | 639 608 034 | 639 125 046


INDUSTRIA GARBITASUNERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTOAK

DESINSEKTAZIOAK • ARRATOI-HILTZEAK • EGUR TRATAMEDUAK
T. 948 625 597 • Zalain, 42 B • BERA

Haur Txokoan izena emateko hondar egunak Bortzirietan

Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak bultzatuta, abenduaren 23tik urtarrilaren 7ra eskainiko dute

TTIPI-TTAPA BORTZIRIAK

Eguberrietan, familiei kontziliazioa errazteko asmoarekin, Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen bidez, 3 eta 12 urte arteko neska-mutikoei zuzendutako haur txoko edo ludoteka zerbitzua eskainiko dute Arantzian, Beran, Etxalarren, Igantzian eta Lesakan abenduaren 23tik urtarrilaren 7ra (biak barne). Izen-ematea abenduaren 19ra arte egin daiteke, 20 euroko kuota ordainduz. Guttienez hamar pertsonak eman behar dute izena taldea egiteko.



Aurtengo kartela.

Arantza, Igantzi eta Lesakan abenduaren 24an izanen dute besta eguna eta Etxalarren eta Beran abenduaren 31n. Arantzako eskolan, Etxalarko eskola ttikian, Igantziko Bara-

zarrean, Lesakako erabilera anitzeko aretoan (Koskontako bidea 7-2) eta Berako Beralandetan eskainiko dute Haur Txokoa, 10:00etatik 13:00etara. Izena Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko 948 635036 telefonora deituz edo info@bortziriakgz.eus helbide elektronikora idatziz eman daiteke.

Zer da haur txokoa edo ludoteka?

Haur Txokoa haurrek beren denbora librean kulturarekin eta harreman afektiboekin jostatzen eta gozaten ikasteko gune bat da, solidaritatean eta berdintasunean oinarritzen dena eta koedukazioan ikasteko eta elkartzeko gunea bat izan nahi du.

Bidenabar, zerbitzu honen bitartez, gurasoei aukera bat ematen diete seme-alaben heziketa euren lanarekin edo denbora librearekin bateratu ahal izateko.

Bortzirietako taldekako XXI. bertso lehiaketa ilbeltzaren 4ean

TTIPI-TTAPA BORTZIRIAK

Bortzirietako bertso eskolak hogeita batgarren aldiz antolatutako taldekako lehiaketa jokatu da ilbeltzaren 4an. Aurten ere, Berako Xugan jokatuko den lehen fase irekiaren ondotik, sailkatzen diren lehen hamabi bertsolariekin, hiruna bertsolariko lau talde osatuko dituzte.

Finalerdietan nagusitzen diren bi hirukoteek finala Lesakako Arrano ostatuan jokatuko dute. 21:00etan afaria egingen dute eta ondotik finala. Afarirako txartelak 15 eurotan eros daitezke. Izena emateko bortzibertso@gmail.com helbide elektronikora idatzi edo 618 96 30 11 telefonora deitu behar da.



PROMOCIONES MALERREKA

Informazioa: 629 951 170 (Aitziber)



AUKERA BIKAINA Sunbillan!

9 ETXEBIZITZA:

115m² arteko etxeak

3 atiko

3 edo 2 logelakoak, sukaldea, egongela, 2 bainu, trastelekuak eta lurpeko garajeak

Lokal komertzialak



EZKAIN ERAIKUNTZAK-ek eraikiak



✓ Zure beharren araberako finantziazioa, Rural Kutxaren babes eta abalarekin

61 urtez apezan izan den Basilio Sarobe hilaren 1ean hil da

2013ko bestetako suziria bota zuen eta omenaldia egin zioten eta Euskaltzaindiari egin zion liburu-dohaintza aipagarri da

MAIDER PETRIRENA

61 urtez herriko apezan izan zen Basilio Sarobe Aldabe abenduaren 1ean hil zen, 90 urte zituela. Azken agurra bihar-munean eman zioten herritarrek elizan.

Aipatzekoa da 50. urteurrenean omenaldia egiteaz gain, 2013an herriko bestetako suziria bota baino lehen ere omenaldi tiki eta hunkigarria egin ziotela. Urte berean San Tiburtzio Eguneko meza nagusia berezia izan zen. Herriko abesbatzak eta txistulariek irakasle izandakoari detaile



Basilio Sarobe, 2006ko argazkian.

pare bat egin zizkioten. Txistulariek kanta bat eskaini zioten, eta lau bertso kantatu zizkioten. 2012an liburu dohaintza garrantzitsua egin zion Euskaltzaindiari.

Bi taldetan banatuko dira Olentzero egunean

Urtero bezala, bi taldetan aterako dira herriko haur eta gazteak Olentzerorekin, 16:00etan abiatuta. Haurrak behe-itiko eskolan elkartuko dira eta gazteak, berriz, eliz ataritik aterako dira. Denak frontoian elkartu eta han egingen dute ekitaldia.

Ariztigain kanpinean denboraldi bukaera

Ariztigain kanpinean denboraldi bukaerako besta egingen dute abenduaren 14an. Larunbat arratsaldean haurrendako jokoak, mus tximista, txokolate jatea eta bingoa izanen dituzte eta 21:00etan afaria. Ondotik, Tierra de oro mariatxiek joko dute.



IZASKUN ZUBIALDE

Azaroaren 25a ekintzaz betea eskolan

Azaroaren 25a ekintzaz beterik izan zuten eskolan. Ipuinen eta adibideen bidez, emakumeek jasaten dituzten erasoei buruzko hausnarketa egin zuten geletan. Mural bat ere osatu zuten. Eskuak morez margotu eta bizirik dagoen zuhaitz baten hostoak marraztu zituzten.



MAIDER PETRIRENA

'Nafarroa dastatu' ekimen gozoa

Nafarroako Gobernuak eta Udalak antolatuta, *Nafarroa Dastatu* ekimena egin zuten abenduaren 1ean. Goizean udaletxetik abiatuta *Bidasoarekin hizketan* interpretazio-paseoa egin zuten. Eguerdian akitu zuten Ulilbeltzak elkartean eta bertan, dastatzea-foroa-ikuskitzuna izan zuten.

SMAZIZIOR
edariak

ESKAERA EGITEKO:

T./F. 948 631 557
T. 676 051 660
Ordutegia: 10:00-13:00 eta 16:00-18:00
Helbidea: Ziobi, 3 ALKAIAGA
eposta: maziziorsenper@gmail.com

Nafarroako kontserba ekologikoak

Txakolina · Patarrak
Segardoa · Ardoak · Kabak
Turrroiak · Pateak · Polborroiak

Zure neurrina
prestaturako ditugu opariak!

ENPRESA ETA PARTIKULARRENTZAT

15€ tik gora

**OPARI BAKOITZAK
BERE KUTXA DAUKA**



Firin-Farandula taldeak hiru lan taularatuko ditu abenduaren 23an.

Santa Luzia Eguneko azoka eta Mendiaren Eguna igandean

Hilabete honetan Eguberrietako kontzertua, ipuin-kontakteta eta tailerra, antzerkia eta kirol hitzorduak izanen dira

TTIPI-TTAPA

Bateko eta bertzeko hitzorduekin, ekitaldiz ongi hornitutako hilabetea izanen da abendua. Santa Luzia Egunarekin bat eginez, ortziralean, abenduak 13, Eguberrietako kontzertua eskainiko dute Mendi eta Mendi Tiki abesbatzek, Donostia-ko Udalaren Txistulari Taldeak eta Agorreta Musika Eskolako ikasleek elizan, 20:00etan.

Larunbatean, berriz, Dani Martirenarekin, ipuin-kontakteta eta tailerra izanen dira Herriko Ostatuan, 17:00etan.

Igandean hitzordu bikoitza

Igandean, Santa Luzia Egune-ko ospakizunekin segituz, 10:00etatik 13:30era merkatua egingen da; eguraldi onarekin Santa Luzia plazan eta txarra bada frontoian.

Ez da eguneko hitzordu bakarra izanen, Erreka Kirol Elkartek Mendiaren Eguna antolatu baitu. 07:30ean autobus geltokitik abiatuta mendirteera egingen dute. 12:30ean poteoa egiteko bilduko dira eta 14:30ean bazkaltzeko. 18:00etan, Patricia Viscarret mendizale nafarraren eskutik

solasaldia eta proiektzioa antolatu dute zine aretoan. 6.812 metroko garaiera duen Ama Dablam gailurrera egindako emakumezkoen espedizioaren inguruko *Ama Dablam, alma de mujer* ikusgai izanen da.

Firin-Farandularen emanaldia

Eguberrietako ospakizunen atariko, hilaren 23an, antzerkiaz gozatzeko aukera izanen da Firin-Farandula taldearekin. 18:00etan hasita, *El grinch*, *Olentzero made in china* eta *La cena de Navidad* eskainiko dituzte zine aretoan.

Biharamunean, berriz, 17:30ean iritsiko dira herrira Olentzero eta Mari Domingi.

Urtezahar eguna kirola egiteko

Erreka Elkartek ohiko ekitaldiekin akituko du urtea. Abenduaren 31n, 07:30ean geltokitik aterata Mendaurrera igoko dira eta 10:30ean argazkia aterako dute tontorrean. Arratsaldean, 18:00etan hasita, 14. San Silvestre lasterketa antolatu dute haur, gazte eta helduendako. Izen-ematean bildutako diruaren zati bat ANELA elkarteari emango izanen da.

Eguberrietako Areto Futbol Txapelketa antolatu du Futbol Taldeak

TTIPI-TTAPA

Aitzineko urteetako arrakasta errepikatzeko gogoz, aurten bederatzigarren urtez Eguberrietako Areto Futbol Txapelketa antolatu du Doneztebe Futbol Taldeak. Partidak abenduaren 20tik 31ra jokatu dituzte eta finala hondarreko

egunean jokatu dute. Lehenbiziko lau sailkatuek saria jasoko dute: trofeoa eta 500 euro, txuletak eta ardoa, urdaiazpikoa eta ardoa eta botila ardoak, hurrenez hurren. Horrez gain, atezain eta jokalaririk onenek, pitxitxiak eta finaleko onenak ere oroigarriak jasoko dituzte.



GIZARTE ZERBITZUAK

Indarkeria matxistarekin aski da

«Oraindik ere milaka emakume indarkeria matxistaren biktima» direla salatu zuten azaroaren 25ean biribilgunean egindako elkarretaratzean. «Egunerokotasunean ia oharkabe pasatzen diren eta normaltasunez ikusten diren hainbat aztarna» badirela ere ohartarazi zuten.

JOSTA MENDI TIKIA

Letxunborro hirib. 86, IRUN · (bezeroentzako parking estalia)

JOLASAREN MAGIA

Toy Planet



Txaruta Pilota Elkarteko entrenatzailea Baikoko talde teknikoko kide da orain.

Unai Apeztegia Baiko taldeko entrenatzaile izendatu dute

1996 eta 2009 bitartean pilotari profesionala izan zenak Ruben Belokiren postua beteko du

ARKAITZ MINDEGIA

Unai Apeztegia herritarra Baiko enpresako talde teknikoan sartu da, Ruben Belokik urte bukaeran utziko duen postua betetzeko. Orain artean Baztango Txaruta Pilota Elkartean ari zen. Hemendik aitzinera, berriz, Baikoko jokalarien entrenamenduez arduratuko da.

1996 eta 2009 artean pilotari profesionala izan zen Apeztegia. Atzelari aurtiztarrak hainbat garaipen lortu zituen: 1993an Nafarroako txapelketa irabazi zuen; 1995ean Munduko Kopa; 1996an ETBko binakako torneoa; eta 1999an estatuko bigarren mailako binakako txapelketa.



IZASKUN REKARTE

Inauteriak eta emakumeak solasgai

Inauterien bilakaera emakumezkoen parte-hartzearen lekuko hitzaldia eskaini zuen azaroaren 23an Aitzpea Leizaolak, hizkuntzalaritzan lizentziatua den EHUko irakasleak. Hitzaldiarekin batera haurrentako tailerra izan zuten. Gaztetxo eta helduek arratsalde polita pasatu zuten.

Udal taldea dagoeneko lanean hasia da

Joan den larunbatean, abenduaren 7an, hartu zuen kargua udal taldeak eta dagoeneko martxan da. Jabier Bereau alkateak Joxe Mari Altzuri, Jone Altxu, Miren Ilarregi, Pello Ariztegi, Maria Larretxea eta Ainhoa Bereau Altxu izanen ditu laguntzaile.

Zozketak, afariak eta joaldunak Eguberrien bueltan

Abendua ailegatzearekin batera, etxeetako balkoi eta bazterrakapaingarriz bete dituzte herritarrek. Gaztetxoak Eguberrietan eskolan egiten duten jaialdia prestatzen ari dira. Egun handian lehenagotik Guraso Elkartek saltzen dituen boletoen zozketak egiten dituzte eta egutegiak saltzeaz gain, ikuskizun politak eskainiko dituzte.

Eguberri bezperan herriko gaztetxoak herrian barna ibiliko dira. Baserritar jantziak soinean eta kantak kantatuz Olentzeroren etorrera ospatuko dute. Hurrengo hitzordua urteko hondarreko gosari, afari eta besta dute.

Zalantzarikgabe, ospakizun handiena Errege bezperan izanen dute. Horrekin, inauteri usaina hedatuko da herrian. Bai Aurtitzen baita Iturenen ere herri afaria egiten dute. Ondotik, animatzen diren guztiek joareak paratu eta ondoko herriak bisitatuko dituzte. Joaldunek aitzinetik ere badute hitzordurik: abenduaren 22an Arrasaten eta 23an Oreretan.



ARANTXI DIEZ

Pulunpariak ere eraso sexisten aurka

Pulunpa eskolako ikasle eta irakasleek azaroaren 25ean emakumeenganako indarkeria salatzen bat egin zuten. Zapiak soinean eta globoak eskuan, mezu more eta argia zabaldu zuten: *Emakume guztiek eskubide guztiak beti.*



Abenduaren 20an gutunak jasoko ditu Mari Domingi. ARTXIBOKO ARGAZKIA

Olentzeroren eta Mari Domingiren bisita izanen dute

Aurten, Guraso Elkartearen eskutik, zozketak ere izanen dituzte

FERMIN ETXEKOLONEA

Heldu den astean, abenduaren 20an, Mari Domingiren bisita izanen dute. 18:00 aldera iritsiko da eta herriko gaztetxoek gutunak bilduko ditu. Etxez etxeko bueltan, herriko musikariek lagun egingen diote. Abenduaren 24an, berriz, iluntzean, Olentzero

eta Mari Domingi bertaratuko dira eta haur bakoitzarekin egoteko tartetxoak izanen dute. Aurretik, gaztetxoak herrian barna etxez etxe kantari eta eskean ibiliko dira. 17:00etan ludotekatik abiatuko dira. Egun horretan bertan, Guraso Elkartek egutegiak eta zozketa txartelak salduko ditu.



UTZITAKOIA

Herritar saila kantu zaharrak kantari

Herritarren joare doinuek eta ahotsek bat egin zuten azaroaren 30ean Dantxarineko kantu zaharren bazkarian. Mantenu bikaina dastatu bitartean, kontu kontari aritu ziren gazte eta helduak. Izandako giro bikainaren lekuko da argazkia.

Naroa Elizalde ez du aurrera egiterik izan

Naroa Elizalde lau eta erdiko Master Cup txapelketako finalerdietan ez du aurrera egiterik izan. Amaia Jaka sakan-darra nagusitu zitzaion. Azken hori izan da hain zuzen promozio mailako txapelketa irabazi duena, Ainhoa Ruiz de Infanteri 22-8 irabazita.

Musikarien hitzorduaren ondotik jubilotekakoena

Azaroaren 30ean musikariek eskainitako Piz&LohiPest jaialdia arrot arrakastatsua izan zen. Hori bezain arrakastatsua izan dadila abenduaren 17an (16:00etan) jubilotekakoek ludotekan egingen duten sorosten ikastaroa (ikus. 747. zk.).



Enkarguak hartzen dira



K. Nagusia 2 · DONEZTEBE · T. 948 450 589



Parrokia 17 | DONEZTEBE
Tel-Faxa: 948 450 289
imprimircasaostiz@gmail.com

ZAPATA-DENDA
LIBURU-DENDA
PAPERTEGIA





ZORIONAK

2020

* EL BAÚL DE *

Mari Cruz

Urrozen, Elgorriagan eta Oizen ere alkateak izendatuak

Elgorriagan Ane Otxandorena izanen da alkate, Oizen Ugutz Zelaieta eta Urrozen Josu Zozaia

TTIPI-TTAPA

Abenduaren 7az geroztik alkate berriak dituzte Iturenen, Ezkurran, Eratsunen, Urrozen, Elgorriagan, Oizen eta Legasan.

Aitzinetik iragarri bezala, Iturenen Jabier Bereauk hartu du kargua, Ezkurran Jaione Zabalok, Eratsunen Iñaki Estangak eta Legasan Jesus Mari Etxartek. Baina horiekin batera, Urrozen, Elgorriagan eta Oizen ere ordezkariak izendatu dituzte.

Oizen Ugutz Zelaieta Fernandezek hartu du azken lau urteotan alkate izan den Jaime Urroz Telletxearen lekukoa; Urrozen Josu Zozaia Ubiria izanen da alkate, Iñaki Juarena Santestebanen lekukoa hartuz eta Elgorriagan Jose Ignacio Olazar Apeztegiaren ordezkari Ane Otxandorena Juarenaren esku gelditu da agin-



Ugutz Zelaieta Oizko alkatea.



Jesus Mari Etxart Legasako alkatea.

te-makila. Alkate berri guztiak joan den azaroaren 17an egindako udal hauteskundeetan, herritarren aldetik boto gehien eskuratu zituzten zerrendako hautagaiak dira.



OLATZ MUTUBERRIA

Sanandresak ospatu dituzte Narbarten

Santuaren aitzakian, giro ederrean pasatu zuten azaroaren 30a Narbarten. Hasieran bazkaria trinketean egitekoa bazuten ere, hondarrean ostatuan bildu ziren; arratsaldean, berriz, haurrek ipuin-kontalaria izan zuten eta nahi zuenak Agerralderekin dantzan aritzeko aukera izan zuten.

Doneztebe eta Irurtzun lotuko dituen bizikletentzako ibilbidea seinaleztatzen

TTIPI-TTAPA

Ederbidea proiektuaren barne, Doneztebe eta Irurtzun lotuko dituen bizikletentzako ibilbidea egokitzen segitzen dute. Duela aste pare bat, adibidez, Malerreka aldeko errepide eta pistetan seinaleak paratzen ari ziren.

Ibilbideak 52 kilometro izanen ditu eta tartean Malerreka hainbat herri zeharkatuko ditu. Doneztebetik Gaztelura pistaz sartuko da eta Gaztelutik Donamariako Bentetaraino bidea errepidez egiten du. Hortik Oizerako bidea

hartuko du, eta handik aitzinera, Urroz, Beintza-Labaien, Saldias, Basaburua, Imotz eta Arakiletik pasatu ondok, Irurtzunera ailegatuko da.

Ederbidearen helburua Iruñea, Donostia eta Baiona lotzea da eta horretarako txirrindularientzako 240 kilometroko bidea egokitu nahi dute Pirinio Atlantikoetako Departamentuak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Nafarroako Gobernuak elkarlanean. Turismorako eta aisialdirako ez ezik, egunero joan-etorrietarako ere bizikletaren erabilera sustatu



Gaztelura sartzeko bidean ere seinalea paratu dute. UTZITAKOIA

nahi dute. Baina aldi berean, proiektuak Bidasoko eta Plazaolako bide berdeak elkartzeko balioko du. Ez hori bakarrik. Eurovelo sarearen zati bat Nafarroan osatzea lortuko li-

tzateke, Enderlatsatik Iruñera. Eurovelo Europako Txirrindularien Federazioaren egitasmoa da eta Europa konektatuko lukeen txirrindularitza-ibilbideen sarea osatu nahi du.



BIRZIKLATZEN DUZUNEAN AIREA GARBI MANTENTZEN LAGUNTZEN DUZU
BIRIKEKIN PENTSATU



BIRZIKLATU



BIRZIKLATZEN DUZUN
PLASTIKOZKO
BOTILA BAKOITZEKO
10 MINUTUKO
KUTSADURA
ARINDUKO DUZU 



Urteko azken mendi buelta Beran abenduaren 17an

Berako mendietan barrena ibili ondotik Zalain jatetxean bazkalduko dute

PABLO IRASTORTZA

Elkarteko mendizale kementsuek, 2019a behar bezala agurtzeko, mendi buelta eginen dute abenduan. Hilaren 17an, heldu den asteartean, dute hitzordua eta Berako mendietan barna ibiliko dira. 08:30ean abiatuko dira, esko-

lako ataritik. Buelta egin ondotik, bazkaltzeko bilduko dira, Zalain jatetxean. Ea mendiaz gozatzeko moduko eguraldia izaten duten! 2020ko lehenengo zenbakian izanen da Beran egindako txango horren berri. Animo eta me-rezi bezala bukatu urtea!

2020ko lehendabiziko seihilekorako irteerak biltzen dituen buletina prest

PABLO IRASTORTZA

Heldu den urteko lehenengo seihilabeterako egitaraua azaltzen duen buletina prest dute dagoeneko. Liburuxkan bakoitzak aukeratu dezakeen ekimen, kirol, ikastaro, txango, egonaldi eta abarren zerrenda bildu dute, guztiei buruzko

informazio zehatza eta izena emateko epeak gehituz. Herri bakoitzeko ordezkariak bileran jasoko dute eta laster zabalduko dituzte. Elkarteko kideen bizilekuei protagonismoa eman nahirik, 21. buletinaren azala Almandoz herriari eskainia izanen da.

Bidaietarako izena emateko epeak laster irekiko dituzte

PABLO IRASTORTZA

Elkarteko kideek jakinarazi dutenez, bidai batzuetarako izena emateko egunak urte hasiera-hasieran irekiko dituzte. Hortaz, lerro hauen bidez, interesa dutenei erne ibiltzeko deia egin nahi izan diete.



Joan den urteko ateraldi batean.



ARTXIBOKOA

Ordezkarien bilera abendu erdialdean

Abendu erdialdean, urtero herri bakoitzeko arduradunek egindako lana eskertzeko, bilera egingen du elkarteak. Aurten herrietako ordezkari izendatutakoak aurkezteko ez ezik, hurrengo urteko kontuak biltzen dituen buletina jasotzeko eta bertze hainbat aferetarako baliatuko dute hitzordua.



PABLO IRASTORTZA

Mendizaleak Ainhoako lurretan barrena

Azaroaren 19an 58 mendizale Urdazubin bildu ziren. Eguraldi ederra lagun, Ainhoako lurretan barrena ibili ziren. Are gehiago, nahi zuenak herria ezagutu ahal izan zuen. Lau orduko ibilbidea eginda, abiapuntura itzuli eta mahaiaren bueltan akitu zuten zita. Lerro hauen bidez, eskerrik asko antolatzaile izan ziren Juanjo eta Pakito urdazubiarrei!

Eguberri on!



Oroitzapenak eta usadio zaharrak berritzeko garaia

Giro berezia sortu ohi da urte sasoi honetan. Familia giroan biltzeko egunak izaten dira eta halakoetan garai bateko kontuak berritzeko aprobetxatzen dituzte hainbatek mahaiaren bueltako egonaldiak. TTIPI-TTAPAK Eguberriei aitzin hartu eta eskualdeko hiru familirekin egin du hitzordua. Hainbat belaunalditako kideak elkartuta, umetan Eguberriak nola bizi zituzten, zein oroitzapen dituzten... galdegin diegu. Bildutako kontu guztiak sartzeko gehigarri honetan tokia eskas gelditu zaigunez, Eguberrien bueltan, elkarrizketak osorik izanen dituzue eskuragarri erran.eus atarian.

Usadio zaharrak berritzeko garaia ere bada Eguberria eta horietako bat da Orantzaroa. Badakizue zer erranahi ezkututzen den hitz horren gibelean?



KULTURKARI

Diseinu grafikoa | Publizitatea

Zure jatetxeko
diseinuarekin menuak, kartak,
mahai-oihalak, musuzapiak,
baso-azpikoak, etab.
pertsonalizatzen ditugu

kulturkari.com

Mendaur Motor

Autoen konponketa eta salmenta | Txapa eta pintura



Zorionak eta Eguberri On!!

Malkorra



Santiago, 15 · Tel. 948 580 061 · ELIZONDO
www.malkorra.com




Tratamendu berriak

- Crema naturalak, ekologikoak eta pertsonalizatuak.
- Larru azala gaztetzeko tratamenduak.

Oparitu goxotasuna!

Altzate 33 BERA · Tel.: 948 63 09 04



Zorionak eta Eguberri On!

Moda Estiloa Joerak



Ituren eta Elizondo



Hilaria MUTUBERRIA

Aitor BAZTERRIKA



Garai bateko eskasia, gaur egungo gehiegikeria

Bizimodu aldaketaren adierazle dira Eguberriak Bazterrika-Mutuberrria familiarentzat. Hilaria Mutuberrria (Ituren, 1927) haurtzaroan «Baztan zopak eta gisatua janez» baserrian bertan ospatu izan ditu: «hori zen usadioa, ez genuen bertzerik».

Elkartasuna eta estimua

Familia izatearekin batera hasi ziren opariak: «Erregeetan horiek erosteko txerrikumeak saltzen nituen, hasieran hiru duro hartzen nituen ordainetan, gero borts. Diru horrekin, hala honela, moldatzen nintzen». Beharrezkoak zizutuzten «arropa edo zapatak» erosteko, «astoa hartu eta Doneztebera joaten ginen, senarra zena eta biok». Guztien-dako erostea «zaila» izaten bazen ere, «seinalea» egiten omen zuten: «txokolatzeko duroak botatzen genituen etxean, hurrek Erregeek galduak zizutuztela sinesteko. Hori eta bertze detaileren bat ziren opariak». Keinu txikiak estimu handia zuen Zubialdeko base-rrian: «lehen gutxi hura gehiago estimatzen zuten eta haurrak arront inozenteak ziren. Gaur gehiago ohartzten dira, baina ez dute erratan. Erranez gero ez baitute izanen...». Otorduetako jaki eta edariak, berriz, «barrideek bisitan etortzen zirenean ekartzen zizkigutenak bilduz» osatzen zituzten: «egun handi horietarako gordetzen genituen azukrea, anisa...». Zegoena banatzen

zuten, guztien artean: «haurrei ere goizetan Marie Brizard anisa ematen genien, gaileta batzuekin».

Eskasiarik ez, gehiegikeriarik ere ez du ezagutu Aitor Bazterrikak (1979): «egunerokoan ez genituen freskagariak akituko balira edaten genituen Eguberrietan eta jasotzen nuen opariak urte guztia irauten zidan. Horiek hautsiz gero, bertzerik ez zegoenez zaindu egiten genituen».

Momentuak eta sentimenduak

Gaurko gurasoek «informazio anitz izanagatik, ez duela hori irudi» nabarmendu du: «isilik egotearen dena uzten edo ematen diegu, telebistan ikusten duten zabor guztiaren erantzule gara... Akats horretan sartuak gaude eta ez gara horrek eragin dezakeen kalteaz konturatzen...». Materiala ez dena, sentiarazten duena, lehenesteko ahalegina egin nahi du Bazterrikak. Hain zuzen, Olentzero eta Errege Kabalgatak berak eguneko opariak baino gozamen handiagoa eskaintzen dutelako «urte andana» daramatza bertze batzuekin batera hori antolatzen: «haurren aurpegiak ikustea bertzerik ez dago». Azken batean, «momentuak eta bizipenak dira hurrek beti oroituko dituztenak. Mendira joan eta gaztainak biltzen pasatutako arratsaldeak luzaroan gordeko ditu, opariak, berriz, berehala zokoan utziko ditu».



%50

BIGARREN ALEAN



FIDELTASUN TXARTELAREKIN

*Deskontua ale merkeenean lurrin, makillaje eta kosmetika produktuetan. Eskaintza hau ez da bateragarria beste promozioekin ezta Chanel produktuekin ere. Abenduaren 13tik 29ra.



LURRINDEGIA

Arantza

Belaunaldiz belaunaldi mantendu den ilusioa



ARKUPE
Chokolaterak
1984

IRURITA
Dukesa plaza
T 948580059
T 948452021
(Obradorea)

ELIZONDO
Santiago kalea 19
T 948452393

www.arkupegozotegia.com



Lucia IPARRAGIRRE

Loreto TABERNA

Aintzane ITURRIA

KASINO
OSTATUA - RESTAURANTE



BERTAKO PRODUKTUAK
EGUNEKO MENUA
KARTA AUKERA ZABALA
KROKETA GOXO-GOXOAK



Plaza Zaharra • LESAKA • 948 63 72 87



EGUBERRIETAN ERE
ZAINDU ZURE OSASUNA

Kimetz
Belardenda

lorea
nutzioa dietetikoa

Eguberri eta Urteberri on!

Leitzako errep. 3 behea
DONEZTEBE · Tel. 948 451 473

650 77 91 28

www.kimetzbelardenda.com

Zer ikusi, hura ikasi erran ohi da eta hala gertatu da Arantzako Urdin-gonbordan ere. Loreto Tabernak piztutako ilusioa, bere alaba Lucia Iparragirrek bizitu eta Aintzane Iturria bilobarenganaino heldu baita.

1932.urtean Arantzako Lutzinekobor-da baserrian jaio zen Loreto eta jaiote-txea herritik urruti zegoenez, herrira gehiegi ez zirela jaisten aipatu du: «Eguberrietan, hala ere, mezetara beti joaten ginen». Otorduak gogoan ditu: «bazkal-tzeko zopa ona eta oiloa saltsan pres-tatzen zuen amak. Postretarako turroia eta mazapanak izaten genituen». Urte-zaharreko afaria ere berezia zen, «afaldu ondotik auzoko mutilak *Santaktan* noiz etorriko ziren esperoan egoten ginen. Baserriko ate ondoan *Urte salbe* kanta-tu ondotik, sukaldera sartzen ziren eta txartanan erretako gaztainak eta patta-rra eskaintzen genizkien». Urte berriari besta giroan ongietorria egiteko modua izaten zen: «akordeolariarekin ibiltzen ziren, bertsoak botaz eta musika joz eta dantzan. Hagitz ongi pasatzen genuen».

Lucia Iparragirrerri eskola garaitik heldu zaizkio Eguberrietako lehenbizi-ko oroitzapenak: «maestrak goroldioa biltzera bidaltzen gintuen gero Jaiotza paratzeko eta kantak entseatzera elizara joaten ginen». Etxea ere apaintzen zuen: «jaiotza tiki bat erosi zuen amak eta attack pinu adar bat ekartzen zuen adornatzeko. Izugarrizko ilusioarekin egoten ginen». Eguberri bezperako ohitura ere ilusioz aipatu du: «bazkal ondotik, hau-rrak bakarrik, herrira joaten ginen base-rritar eta artzainez jantziak, kantari ibil-tzera. Arropak amak etxean josiak izaten

genituen». Kantuak ere ailegatzen ziren Urdin-gonbordara, «urte zahar arra-tsean, *Santaktan* ibiltzen ziren auzoko mutilak eta gure etxera goiz aldera aile-gatu eta sukaldean kafea hartzen zuten kantatuaz».

Erregeetan, berriz, herrira joaten zi-ren amarekin: «kabalgata ikusten genuen eta herrian bizi ziren haurrei opa-riak bat banaka nola banatzen zizkieten. Batzuei, leihora igo eta eskura ematen zizkieten. Ikusgarria zen». Atzera, oinez egiten zuten etxerako bidea, «farolaren argiarekin eta gu ailegatu orduko Erre-geak ere ailegatuak izaten ziren, hantxe izaten genituen opariak leiho bazte-rraan, zapata garbien gainean: lapitzen bat, pinturak, galtzerdiak edo ilerako apaingarriren bat... jostailurik harturik ez naiz oroitzen».

Jostailurik ez du falta izan Aintzane Iturriak. Ez dira, ordea, horiei lotuak il-tzatuak gelditu zaizkion oroitzapenak: «herrian bizi baginen ere, baserrian denbora aunitz egoten ginen eta hau-rtzaroko oroitzapen gehienak hangoak ditut. Eguberriak ilusio handiz presta-tzen genituen. Atautxik pinu adarra jar-tzen zuen baserrian eta hura apaintzen aritzen ginen». Eskolan ere, «abestiak prestatzen genituen eta gela bakoitzak gure Olentzeroa egiten genuen, lagun bakoitzak zerbait eskolara eramanda». Familia giroan bizi izan ditu beti Egu-berriak: «gaur egun ere hala bizi ditugu eta polita da semeekin eta herriko hau-rrerik ilusio eta magia hori bizitzea». Ilusioa hitza darabil hitzetik hortzera; ea berak ere aitzinekoek bezain ongi eus-ten dion ilusioaren sokari.



Eguberrietako menua

25€

LAPITXURI

Dantxarinea

Tel. +34 948 599 093

OTXONDO

Dantxarinea

Tel. +34 848 478 879

OIHANA

Dantxarinea

Tel. +34 848 478 882

ADUR

Ibardin, Bera

Tel. +34 948 631 394

MIRENTXU

Ibardin, Bera

Tel. +34 948 630 717

XABI

Arnegi

Tel. +34 948 790 179

BIOK



HOTEL - VENTA - RESTAURANTE

*Eguberri eta Urteberri on
lagun eta bezero izan zaituztegunoi!*

**Abenduaren 15 arratsaldetik
urtarrilaren 18ra arte ITXITA**

Iruñea - Irun errep. 60km · 31760 ETXALAR
T. 948 635 000 · F. 948 635 263
info@etxalar.com · www.etxalar.com



*Ezkontzak, jaunartzeak,
lagunartek, kinto bestak,
familia ospakizunak...*

zure ospakizunak Etxalarko Bentan



Beola Etxea

VENTA

Ibardin gaina, 30 BERA | T. 948 630 709
www.beolaetxea.com



*Eguberri
eta urte berri on!!
Bezero
eta lagun guztioi!!*



Xti.

BLEND b.young

TIFFOSI

TIFFOSI KIDS

Zentzumenei lotutako oroitzapenak



Aresoko Otxon txikian egin dugu hitzordua Teresa Telletxea, Juana Mari Saizar eta Zuriñe Goikoetxearekin. Familia bereko hiru belaunaldi dira; bizimodua aldatu denaren erakusle.

Dastatu

Eratsunen, Joanean jaio zen Teresa sei senideko familia batean eta Eguberriak «famiarekin egoteko eta elizarako garaia izaten ziren». Ardia hiltzeko ohi-tura izaten omen zuten, «tripotxak eta gero Baztan zopak egiteko». Ez zen izaten hura jateko berezi bakarra: «anaia bat Pasaian bizi zen eta hark bi bisigu ekartzen zituen beti Eguberri egunerako». Gozorik ere ez zen falta izaten: «Donezteben Santa Luzia Egunean turroi pixka bat erosi eta gorde egiten genuen. Anaiak joaten ziren erostera eta nire lehenbiziko lana izaten zen ekarri ote zuten begiratzea». Gozozalea izaki, aitortu du: «tarte-tarte puxketaren bat ere kentzen nion ezkutuan».

Erregeek edo Olentzerok ez omen zuten egiten herrira bisita: «baina, Errege egunean zapatan izaten genuen oparia. Kasualitatea, herriko dendan, Iriartean, saltzen zuten zerbait».

Ikusi

Juana Mariri, berriz, kolorez jantzitako etxea datorkio burura oroitzapenak astintzean: «Sarrion lan egiten zuen aita eta handik *estraz*a ekartzen zuen etxera. Zilar eta urre kolorekoak, gorriak, horiak... izaten ziren eta horiek erabilia kateak osatu eta bi koloretako bolak egiten genituen etxea apaintzeko.

Hamabost bat egun lehenago hasten ginen prestaketekin». Etxe barruan jartzen zuten pinua ere gogoan du, baita herrian jartzen zutena ere: «pinu handi bat izaten zen, komeriak izaten zituzten askotan altxatzeko. Oraingo autobus-geltokian jartzen zuten, lurrean sartuta. Bolak, koloretako argiak... jartzen genizkion eta pizten zituzten momentua berezia izaten zen, orduan ez zelako argi askorik izaten. Pinuarentzako izarra ere gure etxean egin izan da urtetan».

Urtero, idazten omen zien gutuna erregeei, «mazapanarekin egindako aingira bat eskatzen nuen urtero eta ez zitzaidan behin ere ailegatu». Errege bakarra ibiltzen zela ere aipatu du, paje batekin, eta Olentzerorik ez: «alabekin ezagutu dut».

Entzun

Hogeita zazpi urte ditu Zuriñek eta gaur egungo Eguberrien oso antzekoak omen ziren umetan bizitakoak: «abenduan sartzearekin batera, etxeak apaindu eta gabon-kantak ikasten genituen eskolan». Sei bat urte zituenean etorri omen zen lehenengoz abenduaren 24an ikazkina herrira: «orduan sortu zen herrian etxez etxe kantuan aritu eta iluntzean Mañeneko atarira Olentzeroren bila joateko ohi-tura». Oparirik ez zen falta izaten eta batzuk irekitzerako heltzen ziren besteak: «zintzarri hotsak esaten zigun hiru erregeak bidean zirela. Etxez etxe banatzen zituzten opariak, orain bezala». Urduri bizi zuen momentua: «barrenak mugitzen zitzaizkidan zintzarri soinuak entzuten nituenean. Soinu hori ongi barrenean dut oraindik ere».

ELIZONDOko plazan
EROSKI CITY



Eguberri eta
Urteberri on!

BEA ARRAINDEGIA esarte

Astelehenerik Larunbatera

09:00 - 21:00

Foruen Plaza, 3 · ELIZONDO · T. 948 580 005

EROSKI city

TXALUPA, S.I. ARRAINDEGIA
Arrain eta
marisko freskua
aste osoan
Zorionak eta Urteberri on!

ENKARGUAK HARTZEN DITUGU



Kanttonberri, 3 behea · BERA
T. 670 321 202 · 948 631 575

Aliprox

Zure eguneroko supermerkatua
Harategia, urdaitegia, arraindegia
frutategia eta behar duzun guztia!

Eltzeta 16 behea. LESAKA. T. 948 637 264

Kantauri
ARRAINDEGIA
LONJAKO
ARRAINA
Eltzeta, 16 · LESAKA · T. 948 637 264 M. 666 212 099



Eltzeta 16 behea
LESAKA
T. 948 637 264
M. 609 068 520

Orantzaroa

Hitz batek hainbat esanahi izan ditzake. Zenbaitetan, antzeko hitzekin nahasi eta gaizki ere erabiltzen ditugu. Hala gertatu izan da, hainbatetan, Orantzaro esapidearekin. Hitzaren atzean dauden esanahi guztiak aletzeko, Leitzako Altzadi Kultur Taldeko Fernando Oiartzunekin bildu gara.

Azaldu digu Orantzarak aro bati egiten diola erreferentzia: «eguzkia ahulena dagoen garaia. Orduan lehengo euskaldunek hura indartzeko erritual eta festa pagano bereziak egiten zituzten, batez ere sua erabiliz. Orantzaro da Egube-

ria, eguzki berri garaia». Kristautasunak eguberriak finkatu aurretik, euskal tribuak egiten zuten eguzki edo solstizio festan du oinarria: «gurean ederki jaso dugu horren aztarna baserrietan, suaren inguruan egiten ziren erritual guztietan».

Bizirik dirauten usadioak

Oraindik orain, bizirik dirauten ohiturak dira: «Sorobarrenen, konparaziora, su berria egiten dute Orantzaro egunean. Su zaharra baztertu, eta zahar horren brasak erabilia berria sortzen dute. Berria egin ondoren, arrail edo egur puska bana jartzen dute senide edo etxe-ko bakoitzarentzat bat, izenez esanda. Pobreentzat beste bat eta Jainkoarentzat beste bat». Familiako kide guztiak biltzeko aitzakia izaten zen: «egun eta erritual sakratua zen. Migel, nagusi zaharra, gaztea zenean artzain egon zen Leitzalarren eta negua han igarotzen zuen, baina egun horretan etxera itzultzen zen menditik oinez, su berria egin eta aparti berezia egiteko».

«Abenduaren 23an leiho, balkoi edo tximinietan paratzen ziren panpinak ziren; nahierara eginak»

Leitzarrek Orantzaro eguna deitu izan diote abenduaren 24ari: «jateko egun edo garai aberatsa; orantza, gure hizkeran legamia, ogia, janaria eta abar erruz jateko garaia baita». Horrekin lotuta, beste hainbat esanahi ere sortu direla azaldu digu Oiartzunek: «Egun horretan suan erretzen zuten enbor kozkor bereziari Orantzaro enborra esaten zioten. Beste zenbait baserrietan erre beharrean salan paratzen zuten enbor handi eta berezia, eta apaindu egiten zuten gorostiarekin eta beste belar eta lore batzuekin». Pertsonai magikoa ere ba omen zen Orantzaro: «baserri eremuan batez ere. Erasoten



saroha[®]
okindegia gozotegia

Eztegara 25, Bera
31780 Nafarroa
Tel.: 948 630 899
www.sarobe.net



eguberri eta urteberri on!

- Turroiak - Bonboiak - Polboroiak - Panetoneak - Pastak - Errege erroskoak...
guk eginak



**ROSKOAK ETA
EGUBERRIETAKO
PRODUKTUAK**



Eguberri on!!

Boxune Kafetegia



Sara Kafetegia

IREKIA abenduak 25
eta urtarrilak 1 10:00-13:00
Errege eguna **IREKIA** 10:00-13:00

ITXITA
abenduak 25 eta urtarrilak 1
Errege eguna **IREKIA** 10:00-13:00

Sara karrika, 7 BERA · 948 630 235

Hurlandeta, 6 BERA · 948 625 673

tximinitik sartu, eta haurrak lotara joanak ez baziren, edozein astakeria egin zezakeen mamua zen. Auzmendi baserriko mutilei aizkora kendu zien mamua...». Sakulu auzoan Orantzaroko egunean haurrak izutzen ibiltzen zen gizaki beldurgarria ere bazen, soinean maindiera eta buruan kalabaza argitsua zeramana. Haurrek sekulako biraoak esaten zizkioten eta Leitzako Orantzaroko abestia kantatu. Begia galtzen zuen jentilla ere bazen, «Erasote auzoan Orantzaroko egunean zerbait estreinatu edo oparitzuz gero, Orantzarok begia galtzen omen zuen...».

Panpina desberdinak, guztiak balekoak

Panpina da, ordea, gaur egun hitz horrekin zabalduen dagoen ohitura: «Orantzarokoak, panpinak dira, abenduaren 23 gauean herrian eta baserrietan leiho, balkoi edo tximinietan paratzen ziren panpinak».

Panpin guztiak desberdinak zirela azpimarratu nahi izan du «eta denak ziren orantzarokoak: leihotik zintzilik zegoen amona xaharra, dotore jantzirik zegoen alkate itxurako irudikapena, tximiniaren puntan zegoen segalaria, balkoian josten ari zen emakumezkoa, sorgin itxuran kalabaza buruarekin eginitako panpin beldurgarria...». Urtero egiten zen panpina berri bat: «mutil edo gizon itxuran batzuk, baina baita beste itxura askotakoak ere: neska, amona, sorgina eta generorik zehaztu gabekoa».

Emakumeen kexua

Dena den, denborarekin aldatu egin zen panpina nahieran osatzeko ohitura hori: «Kultur taldean gai horretaz galdetza ibili garenean, emakume frankok egin izan digu kexua, gai horrekin gertaturikoa salatzeke asmoan, edo emakume irudiaren bazterketa aldarrikatzeko behintzat. Batek edo



bestek lotsa ere aipatzen zuten emakume irudia jarri izanagatik: 'guk horrela ezagutu genuen, eta horrela egiten zuten gure aurrekoak. Baina orain gure lotsa ematen du esate hutsak' entzun izan dugu maiz». Aliñeko Inaxik ere hala kontatu izan omen zien: «halaxe esan zigun. Nahi zuenak nahi zuen bezalakoa paratzen zuela. Baina, ondoren hasi ziren esaten,

ezetz. Ez zuela horrela behar eta akabo». Adinekoak ez ziren izan kritikak jaso zituzten bakarrak: «Itziar Sagastibeltzak ere, 2.000. urtean edo, Euskal Telebistako Eguberrien gaineko programa batean esan zuen hemengo ohitura nolakoa zen. Orantzaroko berdina izan zitekeela emakumezkoa nola gizonetzkoa. Zenbait lagunek kargu hartu zioten hori esateagatik».

Eguberrietako karta

948
631
017

Arrainak

- Zapoa saltsa berdean
- Legatza itsaskiz beteta
- Legatza koxkera erara
- Bakailaoa drunguru erara otarrainskekin
- Bakailaoa saltsa berdean
- Izokin biribilkiak itsaskiz beteak

Haragiak

- Txahal biribilkia saltsan
- Txerri azpizuna onddo saltsarekin
- Ahate azpizuna foie eta mahats saltsarekin
- Txerri masailak saltsan
- Txahal masaiak ardo beltzetan
- Bildots erdia errea (3 kg. ingurukoa)
- Zerrikume errea (5 kg. ingurukoa)
- Ahate confit-a laranja saltsarekin
- Tenperatura baxuan eta hezurrik gabeko bildots errea

Enkarguak hartzen dira abenduaren 21a arte

Sara karrika, 7 - BERA (Agerran) Dendako ordutegia: 10:00-13:30 eta 17:30-20:00

Abenduaren 24ean
10:00-13:30

Zorionak eta eguberri on!

M
Merche Moda Novios
 Serapio Múgica, 11
 20302 IRUN
 943 612 626

www.capelettimercheirun.com

Amaya Picabea
 CENTRO DE ESTILISMO E IMAGEN

Amezitia DONEZTEBE
 T. 948 450 163
 @amayacentro

LOKAL TXARTELA
 Zure esku

Kalash
 JOYEROS
 20etik aitzinera

Ekarri erabiltzen ez duzun urrea eta nahi duzun bitxia egingo dugu

VICEROY CASIO SANDOZ CITIZEN ECO-DRIVE

Kanttonberri, 6 BERA | 948 630 751
 Merkatarien Karrika, 7 DONEZTEBE | 948 451 519

Ehun urte baino gehiago dituen ohitura

Historiako erreferentziak hor daude, ordea, ez jakinak isilarazteko: «topatu dugun erreferentziarik zaharrena 1914. urtekoa da eta harritzekoa bada ere, lehen Orantzaro hura emakumezkoa zen. Plazaolako tren txikia jarri omen zuten martxan eta abenduaren 24an, Donostiatik heldu ziren bidaiariak harriturik gelditu omen ziren Garagartza baserrian emakume bat balkoian barandaren kontra jarrita ikusitakoan. Elurra ari zuen eta hura han polit antzean jantzita. Panpina zen, han paratua propio egunaren tradizioari segituz. Maria Luisa Dendarinekoak aipatu zigun hori 92 urte edo zituela».

Irudimena dantzan

Irudimena dantzan jartzen zuten eta emaitza bitxiak izaten omen ziren askotan: «Asuntzion Lasartek aipatu digunez behin baino gehiagotan, Katalinxonean Orantzaro izugarri xelebreak paratzen zituzten: gizaseme bat eskutan bi txapa hartuta paratzen zuten, eta norbait hurbilduz gero, txapak, kax-kax-kax, jotzen zituen. 1.920 urteko erreferentzia da».

Eskura zutenarekin osatuak

Orantzaroa osatzeko etxean eskura zituzten gauzak erabiltzen zituzten: «politik, dotoreak eta bereziak izan behar zuten». Hala, «gorputza osatzeko makilak eta barrena osatzeko lastoa edo txurikina erabiltzen zuten. Herrian batzuek manikia ere bai. Burua egiteko, berriz, kalabaza barrendik hustu, pan-



pinen buruak erabili edo oihal batekin barnean lastoa jarrita osatzen zituzten». Jantzi ere egin behar izaten ziren, «batzuek arropa zaharrak baina beste batzuek arropa dotorea erabiltzen zuten. Burua apaintzeko askok botoiak, tela puxka txikiak erabiltzen zituzten».

Testigantzak

Ohitura hau memoria kolektiboan gelditu eta etorkizunean eskura izateko, testigantzak biltzen aritu dira Altzadi Kultur Elkarteko kideak: «orain bideo bat osatzen ari gara, testigantzen bidez jaso duguna herriari erakutsi eta ongi bildurik izateko». Helburua garbi dute: «hemengo jendeak, behinik behin, bertako ohitura nolakoa zen jakitea eta ezagutzea nahi genuke. Eta bidenabar nahi duenak horri eutsi eta usadioa berritzeko aukera izatea».

amura
 ILEAPAINDEGIA

f @amuralesaka

Zuretzako astia hartu nahi duzunerako edo bertzeei denbora **oparitzeko**

Etorri Amurara eta probatu **Secretos del Aguarekin** egiten ditugun tratamendu eta koloreak

948 637 797 | Bittiriako plaza, 1 LESAKA

«Bideo bat osatzen ari gara, testigantzen bidez jaso duguna herriari erakutsi eta ongi bildurik izateko»

«Ohitura nolakoa zen jakitea eta ezagutzea nahi genuke. Horri eutsi eta usadioa berritzeko aukera izatea».

Eguberriak ailegatu dira!

*Ongi etorri Venta Peio
merkatal zentroetara*

Eguberri on



ABENDUAREN 3TIK URTARRILAREN 6RA

Ttipi Txartelarekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

MUSUTRUK

-%80ko DESGRABAZIOA

ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

747

aleko
irabazleak



Irrisarri Land - 2 sarrera

Pello Gamio Gaztelu | BERROETA

Baztan Escape Room - Sarrerak

Miren Elorza Juanikorena | DONEZTEBE

Donostiako aquariuma - 2 sarrera

Teresa Telletxea Hernandezorena | ARESO

Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera

Santi Juanikotena Oskariz | ELBETE

Onddo ta Punto - Kamiseta bat

Josune Oteiza Sarratea | NARBARTE

Arkupe gozotegia - Lote bat

Nuria Ubiria Maritorena | LESAKA

Elkar - Liburu bat

Angela Irisarri Elizagoien | ETXALAR

Elkar - Liburu bat

Maite Agirre Barandain | LEITZA

Gabonetako zozketak

1. lotea

Martiko lote bat, Buatxabaleko poltsa bat,
liburuak eta musika sorta bat.

2. lotea

Donostiako aquariumerako 2 sarrera,
Zugarramurdi Lezerako 2 sarrera,
liburuak eta musika sorta bat.

3. lotea

Eureka! Zientzia museorako 2 sarrera,
BKZ abenturarako 2 sarrera,
liburuak eta musika sorta bat.

Eskualdeko ikasleak kontent grebak izan duen erantzunarekin

Greba eginez eta Iruñeko mobilizazioetan parte hartuz hezkuntzan jasaten dituzten zapalkuntzak salatu dituzte

TTIPI-TTAPA

«Hagitz gustura eta kontent». Halaxe gelditu ziren antolakuntzan ibili ziren eskualdeko ikasleak azaroaren 28ko ikasleen grebakeskualdeko gazteen artean izan zuen erantzuna ikusita. Are gehiago, «espero baino dezente erantzun hobe» jaso zutela azaldu zuten: «hilabete osoan egindako lanaren fruitu izan zen eta denen artean lan eginez lortu genuela ikustea arras hunkigarria izan zen».

Indarra izan eta eman gure hezkuntzari lelopean hainbat ikasle greba egin zuten aza-

roaren 28an. Hezkuntzaren eremuan ikasleek jasaten dituzten zapalkuntzak salatu eta euskal hezkuntza sistema propioa aldarrikatu nahi izan zuten. Eskualdean ere anitz izan ziren grebarekin bat egin zuten ikasleak, bai Leitzako Amazabal institutuan, bai Berako Toki Ona institutuan, bai Lekarozko institutuan baita Doneztebeko San Miguel institutuan ere. Iruñera joan eta hango mobilizazioetan parte hartu zuten. Grebaren ondortik lanean segituko dutela adierazi dute.



Ez zen aldarrikapenik falta izan Iruñean.



'Indarra izan eta eman gure hezkuntzari' lelopean Iruñeko karririk hartu zituzten.



Azaroaren 28ko grebarekin bat eginez, hainbat izan ziren Iruñera joan ziren eskualdeko ikasleak.




Oporrengatik itxia:
Urtarrilaren 7tik otsailaren 7ra (biak barne)

2019ko Urte Zahar Gaueko Menua

Guijuelo JD urdaiarpiko iberikoa kristal ogiarekin.
Etxeko mi-cuita sagar-konpotarekin.
Ganboiak plantxan.

Itsaskiz betetako legatza amerikar saltsarekin.

Idi-azpizuna, ahate-kurruskaria, lasto-patata habia eta foie-saltsarekin.

Etxeko kremazko tututxoak, txokolate bero eta praline-izozkiarekin.
Eguberrietako gozoak, mahatsak, kotiloi poltsa.

Alkorta ardo beltz ondua (Errioxa), Las Campanas ardo gorria (Garnatxa), Las Campanas ardo zuria (Chardonnay), Codorniu Brut Cava, Kafea eta likore kopa.

Prezioa: 78€ BEZ barne

Foruen plaza · BERA · T. 948 625 542 · T. 948 62 55 40 · www.hotelchurrut.com



IBARBURO
GASOLIOA ETXERA

KALEFAKZIOA · NEKAZARITZA · AUTOMOBILGINTZA

T. 610 258 595 Vicente Arocena Andueza

Iruña-Irun Errep. 48,5 km. 31740 DONEZTEBE



F. LANCHAS

Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailera jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

Urtea bukatu aurretik hainbat hitzordu aukeran

Abenduaren 15ean Gabonetako kontzertua eskainiko dute herriko haurrek eta Umore Ona abesbatzako kideek

TTIPI-TTAPA

Musika, sukaldaritza, zinema, literatura... denetarik biltzen du abendurako osatu duten programazioak.

Abenduaren 14an, urtebetez tartak egiteko ikastaroa izanen dute eskolako jangelan. Hiru orduz, 10:00etatik 13:00etara, bizkotxo oreak, betegarriak, estaltzeko txokolateak eta dekorazioko elementuak egiten ikasteko aukera izanen dute hamar bat lagunek.

Abenduaren 15ean, herriko haurrek eta Umore Ona abesbatzako kideek Gabonetako kontzertua eskainiko dute 12:30ean elizan. Haurrak Ainarra Narbartek zuzenduta ariko dira eta Umore Ona Abesbatzak eta Hernaniko Imanol Kamioren Akordeoi Bandak elkarrekin eskainiko



Gabonetako kontzertua. ARTXIBOA

dituzte kanta batzuk Eneko Amundarainek zuzenduta.

Zinemarako tarte ere izanen da. Abenduaren 22an helduentzako *Oreina* filma eskainiko dute. Abenduaren 30ean, berriaz, umeentzako *Supertramp* pelikula. Bi emanaldiak 18:00etan izanen dira jangelan.

Bukatzeko, abenduaren 27an, *Amatxiren istorioak* aditzeko aukera izanen dute Amaia Elizagoienen eskutik, 17:00etan eskolako jangelan.



ARALAR-URBASA LANDETXEEN ELKARTEA

Bi herritarren argazkiak saritu dituzte

Mendialdea zoragarria lelopean, argazki lehiaketa egin du Aralar-Urbasa Landetxeen Elkarteak eta herrian gelditu dira sarietako bi: Eli Apezetxea izan da irabazlea (argazkian) *Goizuetako zubia, ur ttantatz bizia* lanarekin eta Alaitz Eskudero hirugarren, *Goizuetako Inauteriak* argazkiarekin.



F. LOIARTE

Hamaseigarrena ere, beti bezain handi

Azienda, artisau eta nekazaritza feriarren aitzakiapean jende dezente bildu zen herrian azaroaren 30ean. Euriaren beldur, postuak eskolako pilota plazan paratu zituzten; aziendak, berriez, plazan. Herri kirol desafioa, bazkaria eta musika izan zituzten guztien gozagarri.



F. GOIA

Kaleak morez jantzita

Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira, azaroaren 25ean herriko txokoak morez bete zituzten. Emakume talde bat elkartzen hasia da berriki eta erreibindikazio egunaren bueltan, mobilizazio polita prestatua zuten.

Bosgarren Panpanoziri aldizkaria prest dute

Iragana eta oraina, etorkizuna josteko hariak izenburua eman diote herritarren artean osatu duten aldizkariari

TTIPI-TTAPA

Bi urtetik behin ikusten du argia Panpanoziri aldizkariak eta aurtengoarekin bosgarren zenbakia osatu dute. *Iragana eta oraina, etorkizuna josteko hariak* izena eman diote eta ohikoa dutenez, garai bateko kontuak eta gaur-gaurkoak lotu nahi izan dituzte.

Herritarrak protagonista

Hainbat testigantza jaso dituzte, besteak beste, 100 urte bete dituen Engraxi Marzolek bere bizimoduari buruz konstatutakoak eta Adur Etxeza-

rreta eskiatzaile gazteak esandakoak. Beste hainbat herritar ere aritu dira hontaz eta hartaz kontu-kontari. Zuri-beltezko argazki zaharrei eta aurten ateratako argazki koloretsuei, denei egin diete tokia.

Eguberri aurretik etxeetan

Albiste hau idazterako orduan azken lanetan ari ziren eta datozen egunetan, Eguberrien aurretik, banatzeko asmoa zutela esan digute aldizkaria osatzen aritzen diren lantaldeko kideek.



E. IRAOLA

Eguberrien bueltan urteroko hitzorduak prest dituzte

TTIPI-TTAPA

Eguberriak ailegatu aurreko prestaketa lanetan hasiak dira herrian: kantzak entseatu, apaingarriak egin... eta laster osatuko dute plaza zaharrean, urtero bezalaxe, Olentzeroren txokoa ere: panpina, arbola, sua... txukun jarritz.

Abenduaren 24an, izango dute egun handia eta etxez etxe kantuan aritzeko gonbidapena egin dute Guraso Elkarteak. 10:30ean abiatuko dira udaletxetik eta biltzen duten dirua beharrean dauden haurrei laguntzeko izango da. Iluntze partean, berriz, Mañe-ne ondoan bilduko dira haur, gazte eta helduak, trikitilarien laguntzarekin Olentzerori harrera egiteko. Elkarrekin plazara joango dira eta bertan abestiak kantatu ondotik, plaza zaharrera joango dira



Olentzeroren etorrera iaz. ARTXIBOA

elkarrekin. Han, Olentzerok haurrei opari bana eta goxokiak emango dizkie eta arratsaldeko goxoa ere eskainiko du Udalak.

Hurrengo hitzordua, urtarilaren 5ean izango dute. 16:00etatik aurrera zintzarri hotsak iragarriko du Erregeen etorrera. 18:00 aldera hiru erregeak etalaguntzaileak etxez etxe joango dira opariak banatzera. Afaria ere izango dute Pake Toki Elkartearen.

Euskararen Eguna, pestarako eguna

Abenduaren 3an pesta egun handia izan zuten aresoarrek. Aspaldiko jolasak berrituz, herriko kaleak musikaz alaituz, mahaiaren bueltan kontu-kontari arituz, musean jokatu, baserritar jantziei hautsa kenduz eta euskal kantauak abestuz. Euskara bihotzean eta mingainean, gozatu ederra hartu zuten.



J. OLAZABAL

Azaroak 25: mezu argia elkarrekin

Indarkeria matxista gehiagorik ez! argi azaldu zuten Nazabal eskolako haur, guraso eta irakasleek beraien nahia. Azaroaren 25ean, Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Egunean, eskolako irteeran, 16:15 aldera bildu ziren eta elkarretaratze berezia egin zuten.

Hirigintza arloko hainbat lan egin dituzte 2019an

Udaletxeko eraikinaren kanpoaldea txukuntzeko mantentze lanak egiten ari dira

TTIPI-TTAPA

2019an hainbat hirigintza proiektu gauzatu dituzte herrian eta beste batzuk bukatzeko bidean daude. Hainbatetan aipatu dugun Leitzako Herri Aretoa da horietako bat eta azken lanetan sartuta, martxo aldera irekitzea espero dute.

Azken egunetan Udaletxe paretik pasa denak ikusiko zuen aurrekaldea konpontzeko lanetan ari direla. Mendealdeko paretaren eta karrapean mantentze lanak egiten ari da udala. Fatxadako harria bistara atera eta harria hondarra erabiliz garbituko dute.

Zoladura berritzeko lanak ere bukatu dituzte. Zehazki, Olaberriko biribilgunearan eta Amazabal auzoaren arteko errepidean, Elbarren kalean, Lopenetik hasi eta Inguruar-



Udaletxeko lanak. LEITZAKO UDALA

terainoko zatian eta Gorritzarango errepidean egin dituzte lanak.

Atekabeltz atzekaldeko lanak ere Eguberri aurretik bukatzea aurreikusi dute.

Urteroko hitzorduak izanen dituzte Eguberrietan

Abenduaren 24an Orantzaroa ospatuko da. Goizean base-rritarrez jantzita kantuan ibiliko dira 11:30ean plazatik abiatuta. 18:30 aldera plazan bilduko dira Orantzaro eta gaueko pertsonaiak, suaren bueltan ekitaldia egiteko. Orantzaro panpinak balkoi eta etxe atarietan jartzera ere animatu dituzte herritarrek.

Errege bezpera ere ospatuko da eta ohikoa den bezala, zintzarri jotzea egingen dute. Ilunabarrean hiru Erregeak eta laguntzaileak plazara joanen dira etxez etxe abiatu aurretik.



Orantzaroa 2018an. P. FEO

Eguberrietako tailerrak eskainiko dituzte Arano, Areso eta Goizuetan

TTIPI-TTAPA

Eguberrietako oporretan jostatzeko eta ongi pasatzeko tailerrak antolatuko dituzte Arano, Areso eta Goizuetan. Euskaraz Zerbitzuak eta hiru herrietako udalek elkarlanean antolatuko dituzte saioak eta Dindaia Fundazioko bi begiralek ematen dituzte.

Goizuetan, abenduaren 23an, 26an eta 30ean eskolan elkartuko dira; Areson, udaletxeko goiko aretoan, abenduaren 26an eta Aranon, Maisuenean, abenduaren 27an. Hiru orduko tailerrak izanen dira, 10:00etatik 13:00etara. Ume eta saio bakoitzeko hamar euro ordaindu beharko dituzte. Goizuetan eta Arano kasuan, egun baterako, bi egunetarako, hiru egunetarako edo lau egunetarako eman dezakete izena.

Izen-ematea abenduaren 16ra arte

Izena emateko orria eskolan banatu dute eta abenduaren 16a baino lehenago tutoreari eman beharko diote diruarekin batera gutunazal batean sartuta.

Jokoak, eskulanak... egiteko aukera izanen dute haur eta gaztetxoek, lagunartean euskaraz ongi pasatuz.

Diru faltsua atzeman dute Leitza

Leitzako Udalak jakinarazi duenez, diru faltsua atzeman dute azken boladan herrian. Hamar euroko billeteak izan dira harrapatutakoak. Urte sasoi honetan halako iruzurrak ugaritzen direnez, erne ibiltzeko deia egin diete komertziantze eta herritar guztiei.



A. IPARRAGIRRE, S. SAGASTIBELTZA ETA A. ARRAIZA

Erleta Eskolak 50. urteurrena ospatu du

Azaroaren 24an bete zituen Erleta Eskolak 50 urte eta bezperan egin zuten ospakizuna. Eskolako ateak parez pare ireki eta kantu, jolas, dantza eta konturako aukera izan zuten bertan bildu zirenek.

ONTZIAK EZ DIREN PLASTIKOAK

INOIZ EZ HORIRA



Beti errefusako
edukiontzira doa

Errefusa



Kaxkabeltzak 2.000 euro banatuko ditu Eguberrien bueltan

500, 300 eta 200 euroko erosketa-txartel bana eta 100 euroko 10 erosketa-txartel zozketatuko ditu

TTIPI-TTAPA

Leitzan erosi, denok irabazi! goiburupean, herrian erosketak egiten dituzten bezeroak saritzeko, Eguberrietako kanpaina berezia egingen du Kaxkabeltza Elkarteak. Abenduaren 20tik urtarrilaren 6ra arte erosketak egiten dituzten guztiak izanen dute saria irabazteko aukera. Denera, 2.000 euro banatuko dituzte elkarreko komertzioetan erabiltzeko erosketa-txartelen bidez: 500, 300 eta 200 euroko erosketa-txartel bana eta 100 euroko 10 erosketa-txartel zoz-

ketatuko dituzte. Parte hartzeko, erosketa tiketeen izena eta telefonoa idatzi eta komertzioetan jarriko dituzten kutxetan sartu beharko dituzte.

Zozketa urtarrilaren 7an egingen dute zuzenean, Karrape Irratian.

Txokolate jana abenduaren 20an

Kanpainari hasiera eman eta Eguberri giroan sartzeko, txokolate jana antolatu dute abenduaren 20an. 17:30ean plazan banatuko dute komertziantee txokolatea.

Gazitik eta gozotik izan du Agirrek azken partidetan

Azaroaren 30ean Bizkaia torneoko bigarren edizioa irabazi zuen Iera Agirrek Ainhoa Romerorekin bikote eginez. Abenduaren 1ean, aldiz, Emakumeen Master Cup txapelketatik kanpo gelditu zen partida galduta.



SASTRAKAK

Azaroaren 25ari lotuta, pesta eta borroka

Lagun arteko giro gozoa baliatuta, aldarrikapenerako tartea hartu zuten azaroaren 23an Sastrakak Leitzaldeko Feministek. Plazatik hasita poteo feminista egin zuten, Torrean bazkaltzeko bildu eta ipuin-kontalaria eta kontzertua izan zituzten gero. Azaroaren 25ean 40 lagun bildu ziren elkarretaratzean.



OSASUNA FUNDAZIOA

Osasunakoekin udaletxea gorritz jantzia

Osasunako lehen taldeko Oier Sanjurjo eta Jon Monkaiola jokalarien bisita izan zuten azaroaren 21ean udaletxean. Aretoa txiki gelditu zen haur ugari bertaratu ziren-eta. Udalak, hitzordua baliatuta, Osasuna Fundazioarekin duen hitzarmena berri-ri zuten beste urte betez.

AINART

ILEAPAINDEGIA

EGUBERRI
ETA
URTEBERRI ON!!

948 510 197

Elbarren, 67 behea
LEITZA


MUSUNZAR

LANDA
OSTATUA

Bertan jan,
zuk jaso edo
guk eramanen
dizugu otordua

948 51 06 07

Elbarren, 14 31880 LEITZA



Eskolako futbol zelai txikia estali nahiko luke Udalak, irudian proposamen bat. UDALA

Eskolan estalpea egiteko finantziario bila ari da Udala

Abenduaren 11n Nafarroako Parlamentuko lansaio batean herriko ordezkariak batek parte hartu behar zuen

TTIPI-TTAPA

Ez da berria Leitza estalpe koskor bat egiteko beharra. Erleta Eskolak eta Amazabal Institutuak, guraso elkarteek... behin baino gehiagotan egin duten eskaera izan da. Udalak ere, herri programan aipaturako gaia izan zela azaldu dio TTIPI-TTAPAri Mikel Zabaleta alkatea: «Amazabal pilotalekua, kiroldegia eta eskolako kiroldegi txikia dira herrian ditugun aterpe bakarrak. Hemen baldintza meteorologikoak, herritar kopurua... kontuan izanda, bistakoa da irtenbideren bat aurkitzeko

beharra dagoela. Horregatik hasi gara finantzaketa bila».

Hainbat aukera aztertu ondoren, aukera egokiena eskola eremuan estalpea egitea dela ondorioztatu dute; Erleta Eskola aurreko futbol zelai txikia tapatuz. Memoria bat egin dute eta tankerako proiektuek 350.000 euroko aurrekontua behar izaten dutela aurrekusi dute.

Nafarroako Gobernura jo zuten finantzaketa eske: «Hezkuntza Sailak beharra justifikatuta dagoela erantzun zigun, baina aurrekontuetan horretarako partida bat onartu behar

izaten da». EH Bilduren bidez sartu zuten eskaera eta Parlamentuko denek sinatu eta lansaio bat egitea adostu zuten. «Berriozarren, Tuteran... eman izan dute antzeko proiektuak egiteko laguntza eta berdina eskatzera goaz».

Abenduaren 11n Parlamentuko lansaio batean parte hartzekoak ziren alkatea, Erleta Eskolako eta Amazabal Institutuko zuzendariak, guraso elkarteetako ordezkariak, Kaxkabeltza Merkatarien Elkarteko kideak eta Altzadi Leitza Kultur Elkarteko kideak. Zabaletak gaineratu du: «herriko beste hainbat talde eta eragileren babesarekin ere badu proiektuak, baina aforo mugatuagatik denek ez dute joaterik izan».

350.000 EUROKO AURREKONTUA BEHARKO DUTELA AURREKUSI DUTE

Urtea lasterka bukatzeko aukera izanen da aurten ere

TTIPI-TTAPA

Joan den urtean bezalaxe, San Silbestre lasterketa antolatuko du abenduaren 31n Anikote enpresa publikoak. 16:30ean hasi eta adin tarte guztietakoek izanen dute lasterka egiteko aukera. Bederatzi urtera arteko haurrak izanen dira irteeratik ateratzen lehengoak eta 600 metro eginen dituzte lasterka. 16:45 aldera, hamar eta hamabost urte artekoak abiatuko dira eta bi kilometroko ibilbidea osatu beharko dute. Irteera gunetik ateratzen azkenak hamasei urtetik gorakoak izanen dira. Hauek lau kilometroko ibilbidea osatu beharko dute. Ibilbidea bakarrak taldeka, erreleboa emanda, osatu daitezke.

Izen-ematea abenduaren 30a baino lehenago egin beharko da kiroldegian bertan edo 948 51 07 19 telefonora deituta. Lasterketan parte hartzearen truke kopuru txiki bat ordaindu beharko dute: hamabost urtera artekoek euro bat ordaindu beharko dute eta hamasei urtetik gorakoek bi euro. Lasterkariak moztortuta joatera animatu nahi dituzte eta moztortuta xelebreena daramanak oparia izanen duela ere aipatu dute antolatzaileek.



PASSIVHAUSS ETXEA LEITZAN

- Babesturiko etxebizitzaren salmenta zuzena.
- Hiru logelako azkeneko bi etxebizitzak salgai.

Informazioa eta erreserbak: 609 130 555



AEK-k jasoko du dirulaguntzarik handiena Baztanen. ARTXIBOA

Euskara sustatzeko dirulaguntzak onartu ditu Udalak

Hizkuntza normalizazioaren plangintzarako 33.150 euro banatu ditu

TTIPI-TTAPA

Baztango Udaleko Tokiko Gobernu Batzordeak, urtero bezala, hizkuntza normalizazioaren plangintzaren barnean euskara sustatzeko dirulaguntzak banatzeko proposamena onartu zuen azaroaren 22ko bilkuran. Denera 33.150 euro banatuko dituzte.

AEK-k jasoko du laguntzarik handiena, 9.800 euro; Xorroxin Irratiak 7.500 euro eta Xaloa Telebistak bertze horrenbertze; TTIPI-TTAPAK 5.500 euro; Etxetik Plazarak 1.200 euro; Ikastolen Elkarteak eta Seaskak 600na euro; Eusko Ikaskuntzak 300 euro eta Arkupeak elkarteak 150 euro.

Elikadura burujabetza eta feminismoa hizpide Elizondon

TTIPI-TTAPA

Lurra sentituz, emakumeok elkarrekin ereiten lelopean, elikadura burujabetza, feminismoa eta lurralde defentsari buruzko foroa izanen dute asteburuan Iruñean eta Elizondon.

Abenduaren 15ean Arizkunenean

Abenduaren 15ean Elizondon dute hitzordua, Arizkunenea kultur etxean. Eguna 10:30ean duten ibilaldi tematikoarekin hasiko dute. Lurraldearen defentsa eta Baztango esperien-

tzia agroekologikoak izanen dituzte mintzagai. Eguerdian, 12:30ean, berriz, etorkizuneko proposamenak, manifestuaren lanketa, agurra eta itxiera izanen dituzte. Foroa bazkari agroekologiko eta barzokijalearekin borobilduko dute.

Autobusa Iruñetik

Iruñetik joan-etorria egiteko autobus zerbitzua eskainiko dute. Goizean 08:45ean Iruñeko autobus geltokitik abiatuko da eta 17:45ean egingen du buelta.

Boliviako «estatu kolpea» gogor salatu du Udalak

«Bolivian ematen ari den estatu kolpea» gogor salatu du Udalak. EH Bildu, Ezkerra eta Geroa Bairen aldeko bederatzirekin eta Navarra Sumaren kontrako hirurekin onartu zen mozioa. Balleko Etxeak babesa adierazi dio Evo Morales presidenteari.

Kirol merituari zilarrezko domina Mariano Iribarrenek

Nafarroako Gobernuak 2019ko Kirol Merituari urrezko eta zilarrezko dominak banatu ditu. Hauetako bat Mariano Iribarren Irigoienek eskuratu du, «Baztanen errugbia berreskuratzeko eta sustatzeko eginiko lanagatik, hainbat jardueratan arituz».

ferreteria Quevedo

TXERRI HILTZEAN
ERABILTZEKO TRESNAK



Santiago 31 · ELIZONDO · Tel.: 948 580 234 · www.ferreteriaquevedo.com

Garbiketa enpresa bat sortzeko aukera aztertuko du Udalak

Geroa Baiak EHBilduren proposamenaren alde bozkatu zuen; Baztango Ezkerrak eta Navarra Sumak, berriz, aurka

TTIPI-TTAPA

Udalak Baztan Ikastola, Elizondoko eskola, herrietako eskolak eta mediku kontsultategiak garbitzeko enpresa baten sorrera aztertuko du. EH Bildu eta Geroa Bairen aldeko bozkekin eta Baztango Ezkerra eta Navarra Sumakoen kontrakoekin, azterketa ekonomikoa egitea erabaki dute.

Egun, Udalaren eraikinak garbitzea kanpoko eragileen esku dago: Baztan Ikastolaren eta Elizondoko eskola publikoaren kasuan kontratu publikoen aitzineko legeak uzten zuen prozedura negoziatua-ekin; herrietako eskolen eta mediku kontsultategien kasuan deialdi irekiaren bidez; eta udaletxea, Arizkunenea eta Merkaturko Plazako komunaren kasuan kontratu erreserbatuarekin, inklusio sozialean



Azaroko bilkuran erabaki zuten. ONDIKOL

lana egiten duten enpresetara mugatua.

EH Bilduk garbiketa enpresa baten sorrera azpimarratu du: «aipatutako eraikinen garbiketa egiturazko beharra da eta, ikuspegi horretatik, bi, lau edo bortz urtetik zerbitzua emateko prozedura administratiboak egin behar izatea, horrek dakarren plegu, kontratazio mahai eta buruhautee-ekin, eta ekonomia ikuspegitik, zalantzarria da».



Dokumentalean Maayat'aa hizkuntzaren aldeko ekintzaileak ageri dira. GARABIDE

Mexikoko Yukatango maia hizkuntzaz dokumentala eta solasaldia ortzegunean

TTIPI-TTAPA

Euskararen esperientziatik abiatuta munduko hizkuntza gutxituen biziberritze prozesuak bultzatzen diharduen Garabide Elkartearen eskutik, *Wayé* dokumentala ikusteko aukera izanen da ortzegun honetan, abenduak 12, Arizkunenean. Proiektioarekin batera solasaldia antolatu du Garabide Elkartek Udalaren eta Baztandarren Biltzarra elkartearen laguntzarekin.

2018-2019 ikasturtean Irati Briñas Gastón, Egoitz Díaz Ibargoitia eta Andoni Marquinaez Otaegi ikasleek egindako

dokumentala da *Wayé* eta maia aktibistak protagonista ditu. Mexikoko Yukatango maia edo Maayat'aa hizkuntzaren alde lan egiten duten ekintzaileak hizkuntzaren egoeraz solasean ageri dira ikus-entzunezkoan, lanez eta ametsez, lehendabiziko aldiz maayat'aa hutsean eta euskaraz azpigitulatu.

Estreinaldia Miarrizten egingen urrian eta orain eskualdean egingen du geldialdia, Elizondon –ortzegunean, 18:30ean– eta Beran –abenduaren 13an, 18:30ean Beralandetan–. Proiektioarekin batera solasaldi bana egingen dute.

ANZABAL
inmobiliaria



- Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...
- Inmobiliaria
Baserri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria

Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

MARMOLES SOULE

www.marmolessoule.com

LAPIDAK
PANTEONAK
KANPOSANTUAK
HARRI LANAK
ESKULTURAK

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ
T. 948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com



EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU



BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE



Urte hasieran Anizen izan zuten hitzaldian. ARTXIBOA

Udala GoiEner Kooperatibako bazkide egin da

Energia oinarrizko ballabidea izanik, «herritarren esku egotea» du heburu GoiEnerrek

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak GoiEnerreko bazkide izatea eta horretarako 100 euroko ordainketa egitea onartu zuen azaroaren 28ko batzarrean. Bazkideztaren alde EH Bildu eta Ezkerrean zazpi boto izan ziren, Geroa Baiko bi zinegotziek abstentziora jo zuten eta Na-

varra Sumako hirurek kontra bozkatu zuten. GoiEner energia eraginkortasunean eta kontsumo arduratsuan lan egiten duen irabazi asmorik gabeko kooperatiba da. Bertzela erranda, lortutako etekinak taldean inbertituz, energia berriztagarri egitasmoak sustatzen ditu.



Zigako haurrek urtatsak bilduko dituzte. A. GAMIO

Zigatarrak San Andres ospakizunaren ondotik, Eguberrietakoei begira

TTIPI-TTAPA

San Andres Eguneko ospakizunarekin azaroari adio erran diote zigatarrek. Besta gogoa, ordea, bizi dute oraindik. Eguberrietan hainbat egunez baserritar jantziak soinean, urtatsak biltzen ariko dira ttipienak.

Olentzeroren bisita abenduaren 24an

Abenduaren 24an, ilunabarrean, Olentzerok sartu-atera bat egingen du herrian. Putxurini goiti joanen da, kandelak argitutako bideari jarraituz eta astoa lagun duela.

Eguberrietako kantak ikasteko entseguak

Aurten, harrera goxoagoa egiteko asmoz, aitzineko egunetan kanten entseguak egingen dituzte herriko frontoian. Hala, Olentzero herrira ailegatzean Eguberrietako kanta eder batzuk ozen eta garbi kantatu ahal izanen dizkiote.

Egun horietan, urteroko jatorduek ez dute hutsik egingen. Herritarrek, lerro hauen bidez, «osasunez eta maitasunez» betetako Eguberriak eta urte berria izatea opa nahi izan dizkiote eskualdeko herritarrei.




Carnes Sein Haragiak, S.L.
 Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
 T. 943 467 244 | 943 467 444 • carnessein@bordako.com

INDAUTO TAILERRAK ELITE

Mekanika
Elektrizitatea
Pneumatikoak
Ibilgailuen salerosketa

eguberri on!

Ind. Ordoki · Arizkun (NA)
 T. 948 453 488 · M. 675 324 960
 info@indauto.es




BEOLA

JATETXEA

Ezkontzak eta ospakizunak

Ospakizunaren araberako menu desberdinak eskaintzen ditugu



Nagusia, 1 | ALMANDOZ | T. 948 585 300
www.beola.com | 686 152 917



Lekarozen egitekoa duten proiektuaren itxura. UTZITAKOIA

Aroztegian urbanizazio lanak ezin dituztela hasi adierazi dute

Urbanizazio lanen esleipena baliogabetua da eta hotelaren proiektua gelditua dute

TTIPI-TTAPA

Lekarozko Aroztegia eremuan lanak hasiak direla eta hotelaren kasuan 2022 bukaerarako akituko dituztela adierazi zuten azaroaren 27an. Joseba Otondok, Baztango alkateak, hotelaren proiektua Principe de Viana erakundearen kontrako txosten batek gelditua zuela eta lanak hasteko, Udalarari jakinarazi beharra ziotela adierazi zuen. Era berean, Navarra Tex enpresa urbanizazio lanekin hasia zela ere azaldu zuten sustatzaileek. Horri erantzunez, Baztango alkateak Nafarroako Kontratu

Administratiboan Auzitegiak Aroztegi Jauregian egin nahi dituzten urbanizazio lanen esleipena baliogabetua zuela ohartarazi zuen.

Hilton hotel-kateko estatu-ko arduraduna den Carlos Mirok eta Salvador Urbistondo proiektua sustatu duen enpresariak prentsaurrekoa eman zuenetik, bolo-bolo dabil Lekarozko Aroztegia Jauregian egin nahi duten proiektuaren berria. Horren arabera, Aroztegi Jauregia Hilton hotel-katearen esku geldituko da eta 126 gela eta suite baino gehiago izanen ditu. Lanak

hasi direla ere adierazi dute eta 2022a akitu baino lehen hoteleko atak zabalduko dituztela. Horren harira, Joseba Otondo Baztango alkateak, zera adierazi zuen: «Nafarroako Gobernuak udalez gaindikoa den plan sektoriala onartu ondotik, banaketa eremu horretako birzatiketa plana eta urbanizazio proiektua onartu zituen, baina lanak hasi ahal izateko Udalarri legez jakinarazi behar zaio, behin urbanizazioa eginda Udalaren gain gelditzen delako. Ez dugu jakinarazpenik hartu oraino. (...) hotelaren proiektua Principe de Viana erakundearen kontrako txosten batek gelditua dauka».

Bertzalde, Navarra Tex enpresa urbanizazio lanekin hasia omen da eta urtarrilean, hotelaren, golf-zelaiaren eta urbanizazio proiektuaren zehaztasun gehiago emanen dituztela iragarri dute sustatzaileek. Horren harira, «urbanizazio lanak ezin dituztela hasi» oroitarazi du Otondok: «Nafarroako Kontratu Administratiboan Auzitegiak urbanizazio lanen esleipena baliogabetu zuen eta lanak ez dituzte hasten ahal. Baliogabetzea Administrazioarekiko Auzi Epaitegian errekurritu du enpresak eta oraino ez du argitu». Urbanizazio lanen esleipena LAB sindikatuak errekurritu zuela azaldu du alkateak, «pleguetan klausula sozialak ongi definiturik ez zetozelako».

Lan Gaua mendi ibilaldia abenduaren 14an

Beartzundik abiatu eta Berderiz eta Urruskan barrena, 10 kilometro inguruko ibilaldia eginez, abiapuntura bueltatuko dira. Tartean, kontrabandoan ibilia den Urruska baserriko Joxepa Miuraren testigantzak aditzeko aukera izanen dute (ikus. 747. zk.).

Artisau azokak hilaren 21ean eta 28an Elizondon

Baztango Artisauak eta Baztango Zaporeak antolatuta, abenduan azoka egunak izanen dituzte Elizondon. Joan den ortzirale eta larunbatean izan zituzten lehendabiziko egunak eta abenduaren 21ean eta 28an, berriz ere, postuak paratuko dituzte (10:00-14:00).

'Hartz eta otsoekin lotan' Elizondon abenduaren 29an

Itxusi argazki elkartearen eskutik, 2018an egile amateurrentzako film laburren lehiaketan saritua izan zen *Hartz eta otsoekin* lotan dokumentala eskainiko dute abenduaren 29an, Elizondon. Arizkunenean, 19:00etan zehaztu dute hitzordua.

TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN

facebook
www.facebook.com/ttipi.ttapa

Jarrai gaitzazu!

Bidegain
Mercado - Azoka
Jaime Urrutia, 1 behea ELIZONDO

Tel. 948 452 486 Tel. 948 580 496

Bidegain
Mercado - Azoka

Tel. 681 284 090

Helduendako antzerkia hilaren 22an Iruritan

Gizarte Bilgunean dute hitzordua, 19:00etan, eta ez da sarrerarik ordaindu behar

TTIPI-TTAPA

Willy Russellek, Begoña Bilbaoren zuzendaritzapean, egindako *Rita* antzezlanaren eskainiko dute Iruritan abenduaren 22an, igandean. Udaleko Kultura Batzordeak antolatutako hitzordua Damaso Zabalza Gizarte Bilgunean izanen da, 19:00etan, eta ez dute sarrerarik ordaindu behar.

'Rita' antzezlanaren

Xarma galdua duen Frank literatura irakaslea eta dena ikasi nahi duen Rita ikasle



Garmendia eta Apaolaza ditu aktore.

ile-apaintzaile gaztea ardatz dituen lana da. Antzezlaren ikusleek, beraz, bi pertsonaien bizipenetan barrena egindako bidaian murgiltzeko aukera izanen dute.

Eguberrietako kontzertua Elizondon abenduaren 17an

TTIPI-TTAPA

Udal Musika Eskolak antolatuta, Eguberrietako bi kontzertu izanen dituzte abenduan Baztanen. Lehendabizikoa hilaren 14an, larunbatean, izanen da eta Azpilkuetako elizan bilduko dira, 17:00etan. Bigarrena, berriz, abenduaren

17an, asteartean, eta Elizondoko zahar etxea izanen dute bilgune. 17:30ean hasiko da emanaldia.

Batean zein bertean, musika eskolako ikasleek ikasitakoa erakusteko eta entzuleen belarriak goxatzeko aukera ederra izanen dute.



Txokolatea hartu eta bingoan aritu ziren. AMAIA IRIONDO

Jubilotekako kideek topaketa egin dute Arizkun

TTIPI-TTAPA

Joan den azaroaren 13an, Elizondo, Arizkun, Erratzu, Urdazubi eta Zugarramurdiko jubilotekako 33 lagunek urteroko topaketa egin zuten Arizkun. Txokolatea hartu eta bingoan aritu ziren. Bingo txapelketa berezia izan zen, izan ere, txapelketako opariak

jubilotekako kideek eurek etxean birziklatutako materialekin egindakoak izan ziren. Harremana elkarteak antolatu zuen topaketa, eta adierazi dutenez, «aski arratsalde eder-rra» pasatu zuten. Horrekin batera, jubilotekako ateak nahi duen guztiarentzat zabalik daudela jakinarazi dute.

Udalak etxebizitza alokairuen egoera aztertu nahi du

TTIPI-TTAPA

Udalak etxebizitza alokairuen egoerari buruzko diagnostikoa egin nahi du. Horretarako, inkesta bat sortu eta www.baztan.eus atarian zintzilikatu du. Inkestan bildutako galderen helburua, Baztanen alokairuan dauden etxebizitzien

egoera zein den ezagutzeko eta horiek lortzeko zailtasunak identifikatzeko da. Etxebizitzari buruzko hainbat galdera biltzen ditu galdetegiak: azalera, gela kopurua, alokairuaren prezioa, arazoak... baita alokatzerako orduan izandako zailtasunak ere.

BRIKO BAZTAN, SL

Bainuontziaren lekuan dutxaontzia jartzea

Pinturak
Fatxadak
Pladurra

Egur lakadura eta bernizadura
Birgaitzeak eta obra berriak
Lur-mugimenduak

T. 608 016 052
San Andres, 66 · NARBATE
(Sarrera Legasatik)

asegi asesorías

Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

Eztegara pasealekua, 22-1
31780 BERA
T. 948 631 108

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304

Burrumba morea taldea sortu dute institutuko ikasleek

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3.mailatik goitiko edozein izan daiteke taldeko kide

TTIPI-TTAPA

Azaroaren 25ean, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunean, Leharoz institutuko neska talde bat elkartu zen. Talde horri Burrumba morea izena paratu zioten eta hemendik goiti hezikidetzatza, feminismoa, zalantzak,

eguneroko gertaerak... identifikatu eta horren kontu solastatzeko asmoa dute. Talde irekia da eta gaia jorratu nahi dutenak gonbidatu dituzte. Zehazki, DBHko 3. mailatik goitikoei deia luzatu diete.

Azaroaren 25ean ekimen gehiago izan zituzten. Pareta bat



Azaroaren 25ean Txoko morean bildutakoak. MAITANE MARITORENA

morez pintatu zuten etagainean arbola bat. Azaldu dutenez, «arbola gizartearen isla» da: «ikusten dena enborra, adarrak, hostoak... dira. Ikusezina, ordea, sustraiak. Handiagoak dira,

zuhaitza sustraiak atxikitzen dute zutik. Ikusten dugun indarkeria, hilketak, bortxaketak... agerian daude, baina ikusten ez dena, indarkeria sinbolikoa, handiagoa da».



ONDIKOL

Euskararen Egunean Euskaraldia gogoa

Abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Eguna izaki, ekitaldi sinbolikoa egin zuten Elizondoko plazan. Ekimena Euskaraldiarekin lotuz, iazko edizioan izandako bizipenak eta heldu den urtekoari begira dituzten desirak idatzi eta soketan zintzilikatu zituzten bildutakoek. Taldeko argazkia ateraz borobildu zuten ekitaldia.

INTZA TABERNA

Eguberri on!



BOKATAK
PINTXOAK

...

T. 948 580 417

Mendi ostatua eta jatetxea



Eguneko menua · Plater konbinatuk
Bokatak · Pintxoak · Razioak · Pizzak
Deitu eta egin erreserba!

Goizeko 8etatik gauerdirarte
T. 948 580 313



Araztegi berriak egunean 85 metro kubiko araztuko ditu, Ugarana ibaira isuri aitzinetik. NAFARROAKO GOBERNUA

Araztegi berriak 200 bizilaguni emanen dio zerbitzua

Instalazioak 664.000 euroko inbertsioa izan du eta herrigunea eta Hiribere eta Leorlas auzoak hornituko ditu

TTIPI-TTAPA

Herruguneak eta Hiribere eta Leorlas auzoetako 200 bizilaguni zerbitzua emanen dion araztegi inauguratu dute. Estazio berrirako 664.733 euroko inbertsioa egin dute, eta NILSA enpresa publikoak kudeatzen duen saneamendurako kanonaren bitartez oso-osorik finantzatu dute. Herritarrek uraren ordainagiriaren bidez ordaintzen dute kanona.

Instalazio berria abian jarri arte, herriguneak hobi septiko bat zuen, baina euri-ur anitz hartzen zuenez, batzuetan gainezka egiten zuen. Bertalde, Leorlasen zegoen hobi septikoa hondatuta zegoen.

Araztegi berria Komentuko Bordan dago. Puntu horretara bitarte Hiribereko eta Urdazubiko herriguneko isuriak ponpatu egiten dira. Leorlas, berriz, sifoi bidez konektatzen da. Behin ura araztuta, Uga-

rana errekarara isurtzen da. Banaz bertze eguneko aurreikusitako emaria segundoko 0,98 litrokoa da; 85 metro kubiko egunean. Hala ere, euri anitz egiten duenean, instalazioak 2,35 litro har ditzake segundoko, eta, eguraldi-aldaketa larriak gertatuz gero, berriz, gehienez 6,86 litro har ditzake segundoko.

Aurrekariak

Proiektu bateratua egiteko premia duela zortzi urte sortu zen. 2011ko abenduan, Hiribere auzoko saneamendu-obra egin zituzten. Urdazubiko herriguneko eta Leorlas auzoko isuriak ere ponpaketa horretara bideratzea planteatu zuten. Baina eraginkortasun tekniko handiagoaren bila, NILSAk bertze aukera batzuk aztertu zituen, eta, era horretan, 2015ean, isuri-puntu ho-

rietarako guztietarako araztegi oso bat eraikitzea erabaki zuten.

NILSAk instalazioek behar bezala funtzionatzeko arduraz izanen duenez, mantentze-lanetako teknikariek astean bitan berrikusi beharko dituzte egon daitezkeen buxadurak, lohi-mailak eta pilatutako flotatzaileak; gisa berean, isuri toxikorik edo instalazioaren ohiko funtzionamenduz kanpoko bertze hondakin-motarik ez dela bota egiaztatu beharko dute. Horrez gain, teknikariek bilduko dituzte instalaziora iritsitako zaborrak, materia organikoa, etabar...

Irteerako ura errekarara itzultzen dena da, eta horren kalitatearen laginak hilean behin hartuko dituzte. Bertzalde, hobietan pilatzen den lohiaren maila gutienez urtean behin berrikusiko dute, eta hori garbitzeko agindua emanen dute, dagoen kopuruaren arabera. Lohiak Arazuriko araztegiara eramanez dituzte tratatzera. Biztanleria-dentsitate guttiko guneei zerbitzua ematen dieten instalazio guztietako lohiak eremu geografikoaren arabera ezarritako bertze handiagoetara eramanez dituzte.

Hezkuntza-programa

Abian jarri denetik, Urdazubiko araztegia NILSAren hezkuntza-programan sartu da, eta, modu horretan, doako bisita gidatuak egin daitezke hiru hizkuntzatan: gaztelera, euskaraz eta ingelesez.



TINTALANAK
RAMUNTZO ERRANDONEA

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe!

Pintura-lanak kanpokoak eta barnekoak
Zolak, zatiketak eta beste lan txikiak jartzea
Denden diseinua eta dekorazioa

Zugarramurdi
(+33) 06 03 347 076
tintalanak@gmail.com
www.tintalanak.com



inelsa
ZENER
ascensores
igogailuak

Igogailuen instalazioak.
Multimarka mantentze-lanak eta erreformak.

T. 948 232 400
www.inelsazener.com


Olentzero eta Mari Domingi abenduaren 21ean etorriko dira

Pontx pailazoaren ikusgarriaren ondotik arribatuko dira bi protagonistak plazara

GANEX

Urtero bezala, bertze herrietan baino baino fiteago hartuko dute herritarrek Olentzero eta Mari Domingiren bisita. Hiru ikastetxeek elkarlanean, Herriko Etxearen eta merkatarien laguntzarekin, abenduaren 21erako prestatu dute ongie-

torria. Egun horretan, 17:00etan plazan geldituko dira eta 17:15ean Pontx pailazoarekin gozatzeko aukera izanen dute. Ondotik arribatuko dira eguneko bi protagonistak. Herriko Etxeak aperitifa ere eskainiko du eta kanta eta musika-rik ere ez da falta izanen.



Saint Joseph eskolan bizitegiak eraikiko dituzte. GANEX

Saint Joseph eskola bota aitzinetik ate irekien eguna eginen dute larunbatean

GANEX

Saint Joseph eskolaren orainoko eskolak azken egunak ditu, dena botako baitute bizitegiak egiteko. Orainokoaren ondoan, pixka bat beheraxea eginen dute berria, eta 2020ko buruilerako finitu nahi dute. Hala bada, sasoa ikastetxe berrian hasiko lukete.

Eskolatik jakinarazi dutenez, Eguberrietako oporrak baliatu nahi dituzte Larrun eraikinerat aldaira egiteko eta eraiki berria egin artean, parrokiak utzitako geletan eta herriak prestatuko dizkioten bertze batzuetan emanen dituzte

eskolak. Hori antolatzen ere izanen dute orai lana.

Goizez eta arratsaldez irekia


Baina egokitzapen lan horiekin hasi baino lehen, orainoko eskolaz ez ahanzteko, oroitzen gogoan atxikitze eguna antolatu dute Xabi zuzendariak eta bere lantaldeak. Larunbat honetan, abenduak 14, 11:00etatik 16:00etara eskolako ateak irekiak izanen dituzte eta nahi duten guztiek izanen dute bisitatzeko aukera: burasoek eta buraso ohiek, ikasleek eta ikasle ohiek, lagunek...

Jendearen kontatzea eta egur loteak

Urtarrilaren 8tik otsailaren 17ra iraganen da jendearen kontatzea. Lan hori egiteko aukera eskaini zuen Herriko Kontseiluak, baina abenduaren 6an finituzkoa zen izena emateko aukera. Bertzetik, sutarako egur loteak eskatzeko deialdia ere egin du. Behar duenak abenduaren 20a aitzin Herriko Etxean izena eman beharko du. Sutarako eguraren prezioa 65 eurotan zehaztu dute, bi metroan egina, eta bide bazterreara eramatea nahi duenak, berriz, 180 euro ordaindu beharko ditu.

Musika emanaldiak abenduaren 13an eta 22an

Ortzirale honetan, abenduak 13, Lanetik egina elkarteko ikasleek kontzertua eskainiko dute Lur Berri gelan. 19:00etan hasiko da emanaldia eta ondotik, jatekoa eta edatekoa ere eskainiko dute. Sartzea urririk izanen da. Abenduaren 22an, berriz, Delphine Labandibar biolinistak, Sophie Labandibar bere ahizpa pianistak eta Erlauntza abesbatzak musika emanaldia eskainiko dute elizan. Kontzertua 17:00etan hasiko da eta musikarien zein abesbatzen doinuak aditzeko ez da fitsik ordaindu beharko.



GANEX

Jende andana Eguberrietako merkatuan

Lur Berri gela ttipi gelditu zen iragan hazilaren 30ean, Saint Joseph eskolak antolatu merkatuan. Barrenean ez ezik, kanpoan ere hainbat postu paratu zituzten eta denetarik ikusi eta erosteko aukera izan zen, tartean, eskolako burasoek eta Larungo koloreak taldeko kideek egindako eskulanak.



JUANJO MIHURA
IGELTSERITZA-ALBAÑILERÍA-MAÇONNERIE

ERAIKUNTZA OROKORREAN

Urbide Etxea
31710 Zugarramurdi
Nafarroa

T. 0034 607 750 425
T. 0033 674 725 680
✉ j.mihura@hotmail.com

Euskara noiztik datorren jakiteko mintzaldia Larraldean

Abenduaren 13an 'Euskara noiztik? Euskara mendez mende' aurkeztuko du Céline Mounole ikerlariak, 19:00etan

PIERRE BASTRES

«Mila aurpegi ditu euskarak lurralde honetan». Hala zioten euskararen urtarok ekitaldia antolatu zutenek. Euskara noiztik erabilia den jakin nahian, Céline Mounole (euskaltzain urgazle, Paueko eta Aturrialdeko herrialdeetako unibertsitatean irakasle eta ikerlaria) gai horren sakontzera gomitatu du Lapurdi 1609 elkarteak, Larralderat abenduaren 13an, ortziralean, gaueko zazpi orenetan.

Lekukotasun batzuei esker frogatu digute gure hizkuntza

bederen bi mila urteko ondarea dugula. *Navarrorum* Nafarroako erregeen artxibo nagusien ildotik ibiliko dira entzuleak, euskarazko dokumentu idatziak aztertuz. Lehenbiziko aztarna Lergako hilarrian aurkitua izan den idatzizko hitzik zaharrena erromatarren garaikoa da, nahiz eta Nafarroan latinez baizik idazten zen orduan.

Hitzaldi honetan, denbora-bidaia egingen du Céline Mounolek, mendez mende, euskarari nork eman dion behar zuen *tornua* dute ai-



Larunbateko mintzaldiaren afitxa. UTZITAKO ARGAZKIA

patuko, baita euskara estandarraren berri emanen ere. Supazterrean bururatuko dute gualdia baso baten inguruan,

honenbertez nahi duena etorbedi gustuan.

Euskara ez dakitenei batbateko itzulpena egingen diete.

Elhande Abeberryren 'Arkaitzak' antzezlana Larrekon abenduaren 15ean

PIERRE BASTRES

Elhande Abeberryk sortutako *Arkaitzak* antzezlana emanen dute Izarrak Haizean elkarte-koek abenduaren 15ean, igandean, arratsaldeko bostz orenetan Larrekon. Sarrera 12 euro ordaindu beharko dute helduek eta bostz haurrek.

Erreserbatzeko 06 49 88 60 91 telefonora deitu behar da. Hiru pertsonaia bakean lo daude arroka baten gainean. Historiaurrea da, Euskal Herrian. Mamut bat hurbiltzen da... Eta abentura orduan hasten, lurralde horretan es-tralurtarrak espazio-ontziz



Zelitek lur hartuko dute historiaurreko Euskal Herrian. LARREKO

lurreratuko baitira: Zelitik dira. Naturari egin oda hori zibilizazioen gatazkak, efektu

ikusgarriek, egoera komikoe eta amodio istorioek gatz eta biper anitz ematen diote.

ARRETXE A ESTANKOA

ZIGARRO PURUEN CAVA

DANTXARINEA (Urdazubi) | T. 948 599 018 | F. 948 599 015 | estancoarrecea@yahoo.es



Errioxako proban izan zen eskualdeko ordezkaritza zabala sari banaketaren ondotik. UTZITAKOIA

Beola-Iratzokik irabazi dute Nafarroako rally txapelketa asfaltoan

Formula librean, Xabier Zubiri eta Miguel Elizalde lesakarrek irabazi dute Nafarroako txapelketa

TTIPI-TTAPA

Callahango X. Rallysprinta jokatu zen azaroaren 30ean Errioxan, Nafarroako asfalto gaineko rally txapelketarako

azken proba puntuagarria. Txapelketa honetan, emozioa izan zen azken lasterketa arte, sailkapen nagusia erabakitze-ko baitzegoen.

Joseba Beola etxalartarraren eta Joxelu Irazoki igantziarraren eta Iñaki Zozia eta Xabier Andueza lesakarraren artean puntu guttiko alde zegoen. Lasterketako lehen zatian, errepidetik atera zen Zozia eta Anduezaren Porsche 911 GT3 autoa eta bidea libre utzi zuten Beola eta Iratzokiren garaipenerako. Probako sailkapen orokorra ez ezik, Nafarroako txapelketa ere irabazi zuten, Mitsubishi EvoXR4 autoarekin.

Lurreko rally txapelketan Nafarroako txapelkun izan

ondotik, Iñaki Ubiria lesakarrak eta Gorka Biainek Callaghan-go rallysprint honetan ere parte hartu zuten. 4. klasean irabaztea lortu zuten Seat Ibiza autoarekin eta sailkapen orokorrean zazpigarren izan ziren.

Formula librean Zubiri eta Elizalde lesakarrak txapelkun Azkenik, Xabier Zubiri eta Miguel Elizalde lesakarrek, BMW E30ean, 10. klasean irabazi zuten eta, gainera, formula librean Nafarroako rally txapelketa irabaztea lortu zuten.

ANTZUZELAI
S.L.

BERA • T. 948 63 13 17
info@antzuzelai.com
www.antzuzelai.com

HARGINTZA
FATXADAK
TXIMINIAK
ZOLAK
TAILLA ARTISTIKOAK
OBRAK



ORBELA
SENDERISMOA
ATERRETXEA
BEINTZAKO OSTATUA

Idoia · Mikel
Tel. 948 450 014 · BEINTZA-LABAIEN
info@orbela-beintza.com
www.orbela-beintza.com

"TELLETXEA"
Lorazaintza

Kimaketak | Mantentze-lanak
Lorategiak Diseinatzea eta Sortzea
Ureztatze Sistema Automatikoak
Paisajismoa

T. 619 418 683 | LESAKA | johntelletxea@hotmail.com
www.telletxealozaintza.com

MARTIKO

**EGUBERRIETAKO
ORDUTEGIA**

Astelehenetik ostiralera: 9:00 – 18:00
Abenduak 14, 21 eta 28, larunbata:
9:00 – 14:00 Itxaroten zaituztegu.

Martiko. Zalain s/g. 31780 Bera. Nafarroa
Tel: 948 625 016 Fax: 948 625 036
www.martiko.com · martiko@martiko.com



Oier Larretxea eta Endika Goia aizkolari beratarak Lesakako ferietan egindako erakustaldiaren ondotik. AITOR AROTZENA

«Kirol gogorra da aizkora baina aldi berean aunitz ematen duena»

OIER LARRETXEAA ETA ENDIKA GOIA BERAKO AIZKOLARI GAZTEAK

Duela urtebete pasatxo hartu zuten aizkora eta harra sartu zitzairen hemeretzi urteko Berako gazte hauei. Gure Kirolen Klubean trebatu eta erakustaldietan parte hartzen hasiak dira

AITOR AROTZENA BERA

Hemeretzi urte dituzte biek. Biak 2000. urtean jaiotako Beran (maiatzaren 1ean Endika Goia Del Moral eta abuztuaren 26an Oier Larretxea Agirre). Ikasketekin eta lanarekin uztartuta, duela urtebete hasi ziren biak aizkoran eta oraingoz ikasten segitzeko gogoarekin sumatzen zaie. Lesakako ferietan egindako erakustaldian parte hartu zuten, Julen Alberdi *Txikia IV.a* eta Ugaitz Mugertza lagun zituztela. XXI. mendeko aizkolari beratarak. **Noiz hasi zineten herri kirolaren munduan murgiltzen? Lehendik ere ezagun zenuten?**

Oier Larretxea: Orain dela urte bat pasatxo hasi nintzen aiz-

koran. Betidanik gustatu izan zaikit herri kirolak, ttikitatik gustatu izan zaizkit! Etxean beti entzun izan ditut aizkolariaren kontuak, aitaren familiak afizio handia baitauka. Bereizgarri gisa, Donato Larretxeak eta Mikel Mindegiak 2009an Tolosan jokaturako apustuak jakinmin handia piztu zidan, bederatzi urte bertzerik ez banituen ere.

Endika Goia: Duela urte bete hasi nitzen, probatzeko, eta gustura aritzen gara bai.

Oraingoz, aizkora bakarrik edo bertze kirolen bat probatu duzue?

Endika Goia: Arpanean ere noizbait ibili gara, baina gehienbat aizkoran aritzen gara, hori gustatzen zaigu.

Oier Larretxea: Momentuan aizkora bakarrik probatu dut. **Zer du aizkorak zuentzat erakar-garri izateko?**

Endika Goia: Bertako kirol bat dela. Egia da gogorra dela, baina baita ederra ere.

Oier Larretxea: Soinua, mugimendua, egurraren berezitasunak, basoarekin daukan lotura, sortzen duen zirrara... Nire iritziz hagitz kirol bisuala da. Kirol osoa dela erraten

«GURE KIROLAK KLUBAK EMATEN DIGUN LAGUNTZA ESKERTZEKO DA»

ahal da, egiten duenarentzat eta ikusten duenarentzat polita delako, aunitz transmititzen duen kirola dela erran genezake. Kirol gogorra da, baina aunitz ematen duena.

Oraingoz erakustaldietan hasiak zarete... Txapelketetan ere hasiteko prest?

Oier Larretxea: Nahiz eta Nafarroako 3. mailako txapelketan ere parte hartu nuen, momentuan erakustaldietan ari naiz batez ere, aunitz disfrutatu dut herriz herri eman ditugun erakustaldietan, nahiz eta oraindik plazari neurria hartzen ari garen.

Endika Goia: Entrenatzen segituz gero bai, gustatuko litzaidake txapelketan ere nire burua ikustea, baina lana egin behar da horretarako.

Zein helburu dituzue aizkoran?

Oier Larretxea: Momentuan helburu nagusia aizkoran gozatzea da, pixkanaka-pixkanaka maila hartuz.

Endika Goia: Ez diot helbururik jarri nire buruari.

Aizkolariaren artean, baduzue idolorik?

Endika Goia: Neretzat eredu Donato Larretxea da.

Oier Larretxea: Aizkora munduan Donato Larretxea izan dut idolo. Irakasle gisa Patxi Larretxea dut gehienbat, baita Donato ere, nahiz eta inguruko guztien erranak aditzeko prest nagoen.

Aizkora kirol garestia dela diote. Nola moldatzen zarete?

Oier Larretxea: Egia da bai, kirol garestia dela. Alde horretatik, zorte handia dugu, Gure kirolen kluba herri kirol taldeko kide izanda. Talde honetatik kanpo ez gara deus: bertan lanabesa (aizkorak), egurra eta diruz eros ezin daitekeen jakinduria eskaintzen digute. Hagitz eskertua nago talde honekin eta etxean eman didaten laguntzarekin.

Endika Goia: Gure Kirolen Klubean aritzen gara, han beti laguntzeko prest daude eta beraiek erakusten dizkigute kirol honetako sekretuak, aizkorak utzi, egurra...

Jon Lekuberria munduko txapeldun laneko-zaldiketan

Zaldizko lesakarrak, Jaspe zaldiarekin, urrezko domina lortu du Sevillan egin den SICAB nazioarteko zaldi azokan

TTIPI-TTAPA LESAKA

Jon Lekuberria Ariztegi, 42 urteko lesakarrak, hamabi urte daramatza Talavera de la Reina (Toledo) bizitzen. 18 urte zituenetik, bere lan-bizitza, grinaz gain, zaldiekin lotuta egon da, eta, horren ondorioz, «Valentziara, Kataluniara, Extremadurara eta, orain, Gaztela-Mantxara joan naiz, Bertizko parke naturalean ibilbideak egiten aritu nintzen Nafarroa ahaztu gabe».

Azaroaren 19tik 24ra Sevillan (Espainia) egin zen SICAB zaldi azokan munduko txapelketa lortu zuen, lanerako-zaldiketan. «Tituluak handia dirudi –dio Lekuberriak–, baina ez da hain handia, areto batean egiten baita, eta bertara PRE zaldiak bakarrik sartzen baitira (arraza espainiar hutsa). Zaldi horiek edozein

herrialdetik etor daitezke ekitaldi horretarako sailkatzen badira. Iaz alemaniar batek irabazi zuen eta ni txapeldunorde izan nintzen».

Diziplina horrek lau proba ditu. Doma, maneigarritasuna, abiadura eta behiaren proba. Doma 40 x 20 metroko pista baten gainean egiten da, eta dagokion azterketa egiteko ariketak egin behar dira. Maneigarritasunak hainbat oztopo simulatzen ditu, eta horiek zelaian topa daitezke, jauzi bat egiteko zubi bat, adibidez. Epaimahaiak oztopo horiek gaintzeko ariketen kalitatea baloratzen du.

Abiadurako probak maneigarritasunaren oztopo berak ditu, baina oztopo guztiak egiteko denbora da garrantzitsuena. Lesakar zaldizkoaren arabera, «hau da probarik



Jon Lekuberria eta Jaspe, Sevillan Munduko txapeldun izan ondotik. UTZITAKOIA

zirrargarriena, musika bizia jartzen baitute eta jendea pizten baitu». Behiaren proba honetan datza: «pila batean zenbakiak dauden behiatatik, dagokizun zenbakia duen behia bereizi behar duzu. Hau lauko taldetan egiten dugu».

Lekuberriak onartu duenez, «diziplina honetan denbora

guti daramat, hiru urte, eta parte-hartzaile guttiago dituenetz, errazagoa da goian egotea, joera handiagoa duen eta gehiago korapilatzen den doma klasikoarekin alderatuta». Halere, lesakarraren ametsa «doma klasiko sari nagusi batean parte hartzea, oraindik ez baitut egin» da.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Euskal Herriko 4x4 sokatira txapelketan ere lehen txapelak Beti Gaztek lortu ditu

Nafarroako zortzinakako txapelketan lau txapeletatik hiru lortu ondotik, Euskal Herriko launakako txapelketari ekin dio Beti Gaztek. Ongi gainera, emakumeen 240 kiloko eta gizonezkoen 320 kiloko kategorietan txapeldun suertatu baitzen Ibarren. Orain, emakumeen pisu astunean (260) eta

gizonezkoen arinean (300) ari dira eta abenduaren 14an jokatuko dituzte finalak Berriozarren. Bukatzeko, txapelketa mistoa jokatu dute abenduaren 21en Artziniegan. Nafarroako eta Euskal Herriko txapelketan ondotik, Txinan jokatu den Munduko Txapelketara joanen dira lesakarrak.

ABENDUAK 12 - URTARRILAK 9

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

HITZALDIA

SEMPERE

'Euskara noiztik?' mintzaldia

Larraldean, abenduaren 13an, 19:00etan.

BERA

'Kontrako ezarririk' mahai ingurua

Alberdi eta Enbeitaren eskutik. Beralandetan, abenduaren 15ean, 17:00etan.

'Causas y efectos del Alzheimer'

Beralandetan, abenduaren 18an, 17:00etan.

IKUSKIZUNAK

ELIZONDO

'Esentziak' bideo-emanaldia

Arizkunenean, abenduaren 15ean, 19:00etan.

SEMPERE

'Arkaitzak' antzezlanak

Larrean, abenduaren 15ean, 17:00etan.

LESAKA

Uretako ipuinak

Arranon, abenduaren 15ean, 17:30ean.

'Oskara' emanaldia

Harriondoan, abenduaren 13an, 19:30ean (3 euro) eta 14an, 19:00etan (12 euro).

Olentzero eta jaiotzen lehiaketa

Plazan, abenduaren 24an, 12:00etan.

Zinema

Harriondoan, abenduaren 29an.

Hodei magoa

Harriondoan, abenduaren 28an, 18:00etan (3 euro).



ARTXIBOKOA

ELIZONDO-LESAKA Artisanu azoka

Abenduaren 21ean eta 28an Elizondon 10:00etatik 14:00etara eta abenduaren 22an Lesakan egun osoz.

ARANTZA

Eskolako haurren antzerkiak

Eskolan, abenduaren 19an, bazkalondoan.

GOIZUETA

'Oreina' filma

Jangelan, abenduaren 22an, 18:00etan.

'Amatxiren istorioak'

Jangelan, abenduaren 27an, 17:00etan.

'Supertramp' filma

Jangelan, abenduaren 30ean, 18:00etan.

TAILERRAK

LEITZA

'Zaindu zure dirua'

Abenduaren 13an eta 20an, 17:00etatik 19:00etara.

Emakume taldea

Udaletxeko Batzar Aretoan, urtarrilaren 14an, otsailaren 11n, martxoaren 10ean,

apirilaren 28an eta maiatzaren 26an, 17:00etatik 19:00etara.

ZUBIETA

Sorospen tailerra

Eskolan, abenduaren 17an, 16:00etan.

BERA ETA ETXALAR

Haur txokoa

Abenduaren 23an, 24an, 26an, 27an eta 30ean eta urtarrilaren 2an, 3an eta 7an.

ARANTZA, IGANTZI, LESAKA

Haur txokoa

Abenduaren 23an, 26an, 27an, 30ean eta 31n eta urtarrilaren 2an, 3an eta 7an. Izen-ematea: abenduaren 19ra arte.

IKASTAROA

LEITZA

Euskarazko jolas eta kantuen ikastaroa

Itzairer haur eskolan, abenduaren 12an, 17:00etatik 19:00etara.

GOIZUETA

Urtebetetze tartak egiteko ikastaroa

Jangelan, abenduaren 14an, 10:00etatik 13:00etara.

KONTZERTUA

SARA

Ikasleen kontzertua

Lur Berri gelan, abenduaren 13an, 19:00etan.

Labandibar ahizpak eta Erlauntza

Elizan, abenduaren 22an, 17:00etan.

LEKAROZ

ZaKill taldea

Apezenean, abenduaren 14an.

AZPILKUETA

Eguberrietako kontzertua

Elizan, abenduaren 14an, 17:00etan.

GOIZUETA

Gabonetako kontzertua

Elizan, abenduaren 15ean, 12:30ean.

LESAKA

Eguberrietako kontzertua

Harriondoan, abenduaren 18an, 18:00etan.

BERA

Kalejira herrikoia

Abenduaren 24an.

Eguberrietako kontzertua

Elizan, abenduaren 18an, 18:00etan.

ERAKUSKETA

BERA

'Plaketak'

Labiaga ikastolan, abenduaren 29ra arte, asteburu, 16:00etatik 20:00etara.



ARTXIBOKOA

DONEZTEBE-ELIZONDO-LEITZA-LESAKA San Silbestre lasterketak

Abenduaren 31n. Urtea izerdialdi on batekin bukatzeko lasterketak eginen dituzte zenbait herritan.

KIROLAK

BEARTZUN
Lan Gaua

Abenduaren 14an.

ELIZONDO
Bardakomendira

Plazatik abiatuta, abenduaren 15ean, 07:30ean.

Legatera

Plazatik abiatuta, abenduaren 22an, 07:30ean.

DONEZTEBE
Mendiaren Eguna

Abenduaren 15ean.

Areto futbol txapelketa

Abenduaren 20tik 31ra.

AZOKAK

BERA
Bertako ekoizleen merkatua

Arkupeetan, abenduaren 14an, 10:00etatik 13:30era.

LESAKA
Artisau azoka

Plazan, abenduaren 22an, egun osoz.

ELIZONDO
Artisau azoka

Abenduaren 21ean eta 28an, 10:00etatik 14:00etara.

OSPAKIZUNAK

DONEZTEBE
Santa Luzia Eguna

Abenduaren 13an meza eta azaroaren 15ean azoka.

SUNBILLA
Aritzigain kanpinaren denboraldi bukaerako besta

Haurrendako jokoak, mus tximista, txokolate jatea, bingoa...
Abenduaren 14an.

SARA
Saint Joseph eskolan ate irekien eguna

Abenduaren 14an, 11:00etatik 16:00etara.

Nire aukera

«Eguberrietako ohiturak eta argazkiak dokumentalean bilduta daude»

ANDREA APEZTEGIA LARRAINTZAR

«Bizitza intentsitate handiz, umorez eta alaitasunez bizi duen 27 urteko gaztea» da Andrea Apeztegia (Doneztebe, 1992). Ez da geldirik egoteko sortua eta ongi islatzen du hori bere egunerokoak: «goizean goiz, lanera joan aitzinetik, berriak ikusten ditut. 8-10 orduz lan egin eta gimnasia joaten naiz, etxeko lanak egiten ditut edo lagunei eta gurasoei deitzen diet». Hagitz bertzelakoa da Eguberrietan izaten duen martxa. Orain artean, Madrilen bizi zelarik, «etxean goxo egoteko» baliatu izan ditu; aurten, berriz, «lagunekin Suitzara» joanen da. Dena den, ez ditu alde batera utziko Eguberrietako egun handiak, ezta horiek eragiten dioten

zirrara ere:
«zoriontasuna, berrelkartzea, bonboiak, xanpaina... familia eta lagunaren konpainian edo trikiti hotsez eta amatxiren istorioez girotutako momentuak ederrak dira». Istorioak ez ezik historia ere maite duela argi islatzen du iaz egindako lanak. Izan ere, «amak Errege Kabalgatak 60 urte beteko zituela kontatu zidanean» horren



sorreraz eta historiaz gehiago jakiteko lanean hasi zen. Hasi bazen hasi, «Marianje Ganboaren zuzendaritzapean eta bertze hainbat profesionalekin» dokumental bat egin zuen. Tartean, «Eguberrietan zinean ospatzen ziren bestak, biztanleen ikuskizunak, Errege Kabalgatoko karrozen argazkiak...» bildu zituzten, orduan gazteek egiten zuten lanaren lekuko. Apeztegiak, komunikazio alorrean trebatua izaki, «informazioa bildu, elkarriketarako egin, gidoia sortu eta aurkeztu» zuen. Ez zen lan makala izan, baina merezitako harrera jaso zuten: «bi emanaldi eskaini genituen eta bietan zinema bete ikusle bertaratu zen. Ondotik, egun anitzez berreskuratutako historia bolo-bolo ibili zen». Eguberrien bueltan egindako lan guztiak, ordea, ez dira horren atseginak: «publizitate kontuetan ere aritzen naiz eta azarotik horretan aritzea luze egiten da». Bi hilabete inguruko lanak badu bere ordaina: «oporrak gehiago estimatzen dira». Txarrari ona ateratzen dio eta momentu xumeak zoriontasun une bihurtzen ditu doneztebarrak: «ohartzeko ez garen arren, zoriontasuna momentuak dira eta toki ederrenak hurbilen ditugunak».

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

BERA. Etxea salgai. 3.500m²ko partzelarekin. ☎616 24 35 20.



LESAKA. Etxe eder bat salgai. Eskaintzak onartuko dituzte. ☎609 47 72 77.

ERRENTAN EMATEKO

BERA. Pisua errentan emateko. 3 logela, egongela, komuna eta sukaldea, denak argi naturalarekin. Garajea ere bertan. ☎646 28 03 96.

IRUÑEA. Alde Zaharrean apartamentua errentan emateko. Logela bat, sukaldea, komuna eta egongela. ☎653 73 35 29.

LESAKA. Bittiria karrikan pisua errentan emateko, hiru logela, egongela, sukaldea eta komunarekin. ☎639 85 52 84 / 636 11 60 21.

ERRENTAN HARTZEKO

ELIZONDO. Elizondon pisu bat errentan hartu nahi du lanean ari den batek. ☎642 92 58 16.

GARAJEAK/LOKALAK

SALGAI

BERA. Zurgindegia salgai, dena muntatua, makinariarekin. ☎648 26 56 63.

ERRENTAN EMATEKO



BERA. Illekuetan garajea-lokala errentan emateko. ☎646 28 03 96.

LESAKA. Iturrizubiko plazan lur azpiko garajea errentan emateko. ☎647 81 01 47.

DONEZTEBE. Obra berriko bi garaje-lokal komertzial errentan emateko. Bat 160m²koa eta bertzea 24m²koa. ☎618 96 28 14

ERRENTAN HARTZEKO

LESAKA. Furgoneta gordetzeko garaje bila. ☎647 74 15 44.

IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 www.erran.eus

☎ 744 48 43 61

@ info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan

Ttipi-Ttapak ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik

LURRAK/ORUBEAK

SALGAI

OIZ. 10.783,50 m²ko lurra salgai. Errepide ondoan. ☎628 31 60 81.

LANA

ESKAINTZAK

HERNANI. Mk estudioa ile-apaindegiko partaide izan nahi duzu? Moda gustuko baduzu eta lanerako gogoz bazaude, deitu! ☎ 943 55 20 81.

ELIZONDO. Bidegain arraindegian langile bat behar dute egun osoz aritzeko. ☎ 948 58 04 96 / 650 39 03 94.

ESKARIAK

Neska arduratsua eta erreferentzia onak dituen lan bila, interna moduan

adinekoak zaintzen edo etxeko lanetan aritzeko prest. Lanbidez erizaina, esperientzia ona duena. ☎674 44 82 73.

Erizaina lan bila. Adinduan zaintzeko prest, orduka. ☎642 92 58 16.

BERA. Etxez etxe garbiketan aritzeko lan bila. Orduka aritzeko prest. ☎641 41 95 43.

DANTXARINEA. Maspormenos-en lan egiteko jendea behar dute asteburuetan lan egiteko. Kirol artikulu eta arropa teknikoak saltzen dituzte: goi-mendikoak, lasterketakoak, kanpoko jardueretarako... Interesatuek bidali curriculum: info@maspormenos.net helbidera. Frantsesa jakitea kontuan hartuko da. ☎687 73 92 40

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,14
- 1.koa 4,01
- 2.koa 3,87

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,25
- 1.koa 4,11
- 2.koa 3,97

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttiakiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 140,00
- Idixkoak 200,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 150,00
- Idixkoak 170,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 3,32/3,42
- Zaldi-behorrak 1,93/2,10

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 8,30/8,90
- 8-10 kilokoak: 7,00/7,50

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 63 €
Zerri gizona 1,454 €
Zerramak 0,830€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua (azararen 22tik 29ra bitarteko prezioak)

ZERBITZUAK

ZURGINDEGIAK

ARANTZA ZURGINDEGIA

Klase guzietako zurgin lanak
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandonea · ARANTZA
647 810 144 · 626 093 181

ANIMALIAK


OPARITZEKO



LEITZA. Hilabeteko ardi zakurrak oparitzeko. ☎948 51 02 24.

MOTORRAK

SALGAI



ARANTZA. Ford Focus Sportbreak 1.5 TDCI autoa salgai, 120 zaldikoa, 2017koa, 35.000 km. Berri-berria dago eta ongi ekipatua. ☎ 628 08 81 02 (deitu edo idatzi whatsapppe).

TAILERRAK



744 484 361

ttipi-ttapa

BERAKO UDALA

HIRI-JARDUKETARAKO PLAN BEREZIA HASIERA BATEZ ONESTEIA

Berako Udaleko Alkateak, azaroaren 8an emandako 310/2019 Ebazpenaren bitartez, erabaki zuen 4. poligonoko 168., 170., 208., 236., 243., 248., 249., 17., 189. eta 233. partzelen (Ibardin) Hiri-jarduketarako Plan Berezia hasiera batean onestea eta espedientea jendaurrean jartzea hilabete bateko epean, dagokien iragarkia NAO-n argitaratu ematen denetik hasita.

Bera, 2019-11-27
ALKATEA,
Aitor Elexpuru Egaña

Sampi Aragón



VOLKSWAGEN TIGUAN 2.0
TDI 150CV SPORT R-LINE!



VOLKSWAGEN AMAROK 3.0
TDI 4MOTION 163CV. KM0!



VOLKSWAGEN CARAVELLE 2.0
TDI BMT 114CV.

DONEZTEBE | 948 450 354
administracion@arincar.com - www.arincar.com

SORTZEAK

- **Enaut Ameztoi**, Sarakoa, azaroaren 6an.
- **Joshua Arian Arauz Polanco**, Arantzakoa, azaroaren 8an.



BAZTAN
BIDASOA

Ehorzketak Zerbitzua

BAZTAN: **ELIZONDO**n Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: **BERA**n San Jose Beilatokian
MALERREKA: **DONEZTEBE**n Aparan ind. 1-3

web: funerariabaztanbidaso.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | **948 48 95 50**
365 EGUN | info@funerariabaztanbidaso.com

Betiko taldea zu laguntzeka


IRACHE

tanatorioak
Betidanik

BERA (Kanttonberri, 14) | DONEZTEBE (Amezti, 13)
ELIZONDO (Santiago, 52) | LESAKA (Zarandia, 18)

ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

948 63 74 04 / 948 19 70 70



J. J. Errandoneak
59 urte beteko ditu abenduaren 13an. Zorionak institutuko hasiberriari eskola garaiko irakasleen lagunen partetik.




Berako **Edurne Garro Dozagaratek**
50 urte beteko ditu abenduaren 15ean. Aunitz urtez eta mila esker egunero zure irria oparitzeagatik. Muxu haundi bat!



Patxi Loiarde
igantziarrak azaroaren 27an 17 urte bete ditu. Zorionak etxekoan partetik. Segi horrela lanean, pilotari!



Donamariako **Egoi Ariztegik** urtea beteko du abenduaren 27an. Aunitz urte Oinatz eta familiaren partetik! Zorionak ttikitto!!




Arraiozko **Oinatz Arraztoak** Agerreberek abenduaren 15ean 4 urte beteko ditu! Aunitz urtez familia guztiaren partetik eta batez ere Aiora eta Urkoren partetik! Muxu haundi bat eta ongi pasatu eguna!



Lesakako **Jaione Goñi Mitxelenak** urteak beteko ditu abenduaren 19an. Zorionak Arantzako familiaren partetik. Muxu erraldoi bat.



Irati Perurera
Bazterrika etxeko printzesak 5 urte beteko ditu abenduaren 22an. Musu potolo bat familiaren eta bereziki Beñat eta Udaneren partetik.



Aunitz urtez **Nerea!**
Gure euskaltzainak abenduaren 28an urteak beteko ditu. Ongi-ongi ospatu zure eguna! Muxu haundi bat!



Gorka Etxarte Abuñek 2 urte beteko ditu abenduaren 15ean. Zorionak familiaren partetik, eta bereziki Silbia arrebaren partetik. Muxu handi bat!



Totuk abenduaren 27an urteak beteko ditu. Aunitz urtez eta ongi-ongi pasa zure eguna! Segi kaskoa buruan pedalei eraginez bertze horrenbertze urtez!



Aunitz urtez **Amaia!**
Zenbakiak goiti eta beheiti ibiltzen den beratarrek abenduaren 18an urteak beteko ditu. Ongi ospatu zure eguna!

Aunitz urtez!

Zorion itzazu zure ingurukoak!

Internetez

<http://erran.eus/zorionagurrak> helbidean sartu. Egun berean edo hurrengo lanegunean argitaratuko da webgunean, baita hurrengo aldizkarian ere.

Bulegoan eta postaz

Etor zaituz **TUPI-TTAPA**EN bulegora edo bidali argazkia eta testua: Koskontako bidea, 7-1-31770 LESAKA.

OROIGARRIA



KLARA-EMILI
2019/11/22

Lehenik bizia eman zeniguten, gero, bizia eman duzue gugatik, ez dugu hitzik hori eskertzeko!
Minaren minez bihotza biltzen zaigu, eta begiak negarrez betetzen.
EGUNDAINO ATZENDUKO EZ DATZUEN FAMILIA

URTEURRENA

Paquita URTIZBEREA ETXABIDE

1944/08/09 - 2018/01/09

II. urteurrena

Bi urte pasatu eta ondoan, beti bezala zaitugu gogoan.



ZURE FAMILIA

URTEMUGA

Tomas REKONDO ANDUEZA
Lesakan, 2018ko abenduaren 12an
I. urtemuga



Urtebeteko partitura ixilak ez digu zure musika ahantzi arazi.

Betirako gurekin eta gure artean Milesker emandako guztiarengatik.

ZURE FAMILIA

HERIOTZAK

- **Florencia Telletxea Telletxea**, Leitzakoa, azaroaren 20an, 93 urte zituela.
- **Ignacio Santesteban Santesteban**, Zubietakoa, azaroaren 21ean 77 urte zituela.
- **Elvira Moreno Iribarren**, Berakoa, azaroaren 21ean, 98 urte zituela.
- **M^a Rosario Fagoaga Gortari**, Zugarramurdikoa, azaroaren 21ean, 73 urte zituela.
- **Emilia Azkarraga Iribarren**, Azpilkuetakoa, azaroaren 22an, 51 urte zituela.
- **Clara Iribarren Sukilbide**, Azpilkuetakoa, azaroaren 22an, 78 urte zituela.
- **Justo Larralde Ordoki**, Arantzakoa, azaroaren 22an, 80 urte zituela.
- **Garbiñe Baselga Martikorena**, Lesakakoa, azaroaren 23an, 76 urte zituela.
- **Maria Isabel Telletxea Urdanabia**, Berakoa, azaroaren 23an, 92 urte zituela.
- **Dionisia Telletxea Telletxea**, Ezkurrakoa, azaroaren 24an, 94 urte zituela.
- **Ramona Otxoteko Errazkin**, Lesakakoa, azaroaren 26an, 74 urte zituela.
- **M^a Jesus Berrueta Iantzi**, Etxalarkoa, azaroaren 26an, 82 urte zituela.
- **Ramon Aranburu Olaziregi**, Berakoa, azaroaren 28an, 85 urte zituela.
- **Jose Ignacio Azpiroz Bengoetxea**, Leitzakoa, abenduaren 1ean, 86 urte zituela.
- **M^a Coro Bidart Iribarren**, Elizondokoa, abenduaren 1ean, 92 urte zituela.
- **Basilio Sarobe Aldabe**, Sunbillakoa, abenduaren 1ean, 90 urte zituela.
- **Florentina Dainziart Telletxea**, Elizondokoa, abenduaren 2an, 83 urte zituela.
- **Santiago Sestorain Larrea**, Leitzakoa, abenduaren 2an, 88 urte zituela.
- **Santiago Sansiñena Martiarena**, Elizondokoa, abenduaren 3an, 78 urte zituela.
- **Maria Zozaia Irigoien**, Igantzakoa, abenduaren 3an, 90 urte.

URTEURRENA

Koldo LEBRON ETXENIKE
Leitzan, 2019ko ilbeltzaren 6an
I. urteurrena



Izar gorri berri bat dago Leitzeko zeru gainean.

MIREN ETA ZURE FAMILIA



EMILI AZCARRAGA IRIBARREN
2019ko azaroaren 22a

Emili maitea, zuk gure bihotzean bete duzun tokia ez du inork inoiz beteko. Arras txoko berezia altxatu du gure bihotzak zu beti eta betiko oroitzeko. Beti biziko zara bertan. Maite datzugu!

Zuganako solasak, irri eta oroitzapen baikorrez beteak izanen gara, orai eta beti.

Inongo dudarik gabe, zure familia zaintzen eta alaitzen lagunduko dugu. Hau lortzea izanen da gure borroka. Denak batera!



Maite datzuegu!



BEILATOKIAK
ELIZONDON, BERAN ETA DONEZTEBEN
Zerbitzuak Baztanen, Bortzirietan, Bertizaranan eta Malerrekan
Hurbiltasuna eta begirunea

IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUI, A TU LADO

T. 948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

KONTATU KONTUAK



Errigoraren kanpainako bi kutxa banatu ditu TTIPI-TTAPAK. Errigoraren kanpainaren barrenean, TTIPI-TTAPAK bi saski zozketatu ditu Ttipi-Txartela duten harpidedunen artean: beltza eta zuria. Ttipi-txarteldunak zuzenean sartu dira zozketan eta honako hauei egokitu zaizkie sariak: Almandozko Lourdes Zelaieta Zelaietari –ezkerrean– eta Doneztebeko Maria Telletxea Urrozi –eskuinean–. Dagoeneko hartu dituzte beren kutxak TTIPI-TTAPAREN bulegoan.



Benito Ansola Saria jaso du Berako Oier Fuentesen 'Emisio etena' proiektuak. Gazteei euskarazko ikus-entzunezkoak ekoiztu ditzaten bidea zabaltzeko asmoz Euskaltzaleen Topaguneak bi urtetik behin ematen duen Benito Ansola saria jaso du Oier Fuentes beratararen *Emisio etena* proiektuak. Arantzan kokatutako dokumental bat egiteko izanen da. Fuentesek Lekeitiko Euskal Zine Bileraren 42. edizioan jaso du saria eta beka horri esker, filma garatzeko aukera izanen du. Euskal Zine Bileraren 43. edizioan aurkeztu beharko du.



Euskararen Eguna gogoan. Modu batera edo bertзера, Euskararen Eguna ospatu zuten joan den astean Baztan Ikastolan eta Leskakako Irain eskolan. Lesakan, abenduaren 2a ekitaldiz jositako eguna izan zuten eta horien artean, *Begiluze* kantaren estreinaldia izan zen ekitaldirik adierazgarriena. 6.mailako ikasleen txirula doinuekin batera, bildutakoek gurasoek sortutako abestiaz gozatzeko aukera izan zuten. Baztanen, abenduaren 4an ikasle eta irakasleak kanpora atera ziren, osagarri koloretsuekin, kantuz alaitu zituzten Elizondoko karrikak.



TTIPI-TTAPAKOEN bazkaria. TTIPI-TTAPAKO langile, berriemaile eta kolaboratzaileek bazkaria egin zuten azaroaren 30ean Arantzako Aterpean. Urte osoan egindako lana eskertu eta telefono eta ordenagailuak albo batera utzita, aurrez aurre solasean gustura aritu ziren. Bazkarira joaterik izan ez zutenei ere, mila esker!



Berdintasunari kanta eta kanta. Malerrekako Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuek antolatuta, neska-mutikoak berdintasunari kanta eta kanta ibili ziren azaroaren 23an Iturenen eta abenduaren 2an Sunbillan. Musika tresnak lagun, aski tarte atsegina pasatzeko aukera izan zuten Haizea Loirarekin.

PLAZAN BAZAN

MARIPURTZIL

PELLOZIRI




OLENTZERO ETA MARIDOMINGIRI ESKUTITZA

Eguberriak gain-gainean ditugu!!!
Urte osoan ongi portatu zarete?

Egiezu marrazki bat Olentzero eta Maridomingiri, eta eskutitza idatzi.
Ea zortea duzun eta oparixoren bat ekartzen dizuten!!

Oroitul haur aunitz zaretela Euskal Herrian eta denentzat opariak izateko ez dituzuela gauza gehiegi eskatu behar. Beraz... ongi ongi pentsatu!!!


1- MARRAZKIA EGIN



Hona hemen iruditxo batzuk, nahi badituzu moztu eta zure eskutitzean itsasi.



2- ESKUTITZA IDATZI



3- ALDIZKARIKO ORRIA MOZTU

4- MOZTU ETA GERO, GELDITUTAKO ORRIA ERDITIK DOBLATU



5- KOLATU BARRENEKO ALDETIK



OLENTZERO ETA
MARIDOMINGIRI



BIHOTZ-BIHOTZEL



© Luur

ABEN
DUAK
DIC

7

00:00

**Komertziala
eta euskal
musika**

10€ · 12€
KONTSUMIZIO
BATEKIN

ABEN
DUAK
DIC

14

00:00

**Komertziala.
eta
tekno**

10€ · 12€
KONTSUMIZIO
BATEKIN

ABEN
DUAK
DIC

21

21:00 (Ate irekiera)

**2. Kantu
zahar
afaria**

35€
EROSTEKO
AZKEN EGUNE
ASTEAZKENA 18

ABEN
DUAK
DIC

25

00:00

**EGUBERRI GAUA
Komertziala
eta
tekno**

13€
KONTSUMIZIO
BATEKIN

ABEN
DUAK
DIC

31

02:00

**URTE ZAHAR GAUA
Komertziala
eta
tekno**

13€
KONTSUMIZIO
BATEKIN

**SARRERAK
AURRETIK
EROSTEKO**

INTZA
taberna

**BAR
MENDI**
OSTATUA